1. - Dokumentazio teknikoa edo balio judizioen araberako irizpideen agiriak (2. fitxategi elektronikoa) irekitzeko ekitaldia: proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo BIGARREN asteazkenean egingo da. 2. - Proposamen ekonomikoak irekitzeko eta modu automatikoan ebaluagarri diren bestelako balorazio irizpideak baloratzeko ekitaldia (3. fitxategi elektronikoa): kontratazio profilaren bitartez jakin ahal izango da behin ezaguna denean.	1 - Acto para la apertura de la documentación técnica o criterios de valoración conforme a juicio de valor (archivo electrónico 2): SEGUNDO miércoles siguiente a la finalización del plazo de presentación de proposiciones. 2. - Acto para la apertura de proposiciones económicas y de otros criterios de valoración de aplicación automática (archivo electrónico 3): fecha que se indique en el perfil de la entidad contratante una vez sea conocida.

Aurrez adierazitako irekitze-datei dagokienez, edozein aldaketa jakinaraziko da kontratatzailearen profilaren bidez ere.	Cualquier modificación que pudiera acordarse en cuanto a las fechas de apertura indicadas anteriormente, será comunicada a través del perfil de contratante.
30.- Interesdunentzako informazioa	**30.- Información a los interesados**
Lizitazio honi buruz lizitatzaileek beharrezko luketen edozein informazio gehigarri honako helbide elektroniko honen bidez helarazi beharko zaio kontratazio-organoari: kontratazioa@donostia.eus Kontratazio organoarentzat soilik helbide elektroniko honen bidez jasotako kontsultak eta eskainitako informazioak izango dira ofizialak eta lotesleak SPKLren 138.3 artikuluan xedatutakoaren karietara. Jasotako galdera guztiak eta kontratazio organoak emango dituen erantzun guztiak ikusgai izango dira kontratatzailearen profilean.	Cualquier información adicional que respecto de la presente licitación pudieran necesitar los licitadores deberá trasladarse al órgano de contratación a través de la siguiente dirección electrónica: kontratazioa@donostia.eus Únicamente las consultas recibidas y las informaciones ofrecidas mediante el empleo de esta dirección electrónica serán oficiales y vinculantes para el órgano de contratación a efectos de lo previsto en el art. 138.3 de la LCSP. La totalidad de las cuestiones planteadas y las respuestas facilitadas por el órgano de contratación serán expuestas en el perfil del contratante.
31.- Bisita kokapenera	**31.- Visita al emplazamiento**
BAI	SI
Kontratu honen xede den proiektua idazteko, kontratazio-organoak interesgarritzat jotzen du lizitatzaileek aparkalekuaren eta plazaren ezaugarriak eta baldintzak ezagutzea. Horretarako, kokalekuaren bisita antolatuko da eskaintzak aurkezteko epea . Bisita horren data eta ordua eskaintzak aurkezteko garaian zehaztuko dira. Donostiako udalaren kontratatzailearen profilaren bitartez ezagutaraziko dira bai data, bai ordua zein bisita horren inguruan izan daitekeen beste edozein datu.	Para la redacción de los documentos objeto del presente contrato, el órgano de contratación considera de interés que los licitadores conozcan las características y condiciones que presenta el aparcamiento y la plaza. Para ello se organizará una visita al emplazamiento durante el plazo de presentación de ofertas. La fecha y hora de dicha visita se determinará durante el plazo de presentación de ofertas. Tanto la fecha como la hora y cualquier otro dato en relación a la visita se comunicarán a través del perfil del contratante del Ayuntamiento de Donostia.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

EZAUGARRIEN TAULAREN GEHIGARRIAK	ADENDAS AL CUADRO DE CARACTERÍSTICAS
I. GEHIGARRIA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK	ADENDA I.- INSTRUCCIONES PARA LA LICITACIÓN ELECTRÓNICA
II. GEHIGARRIA.- SORTEN MUGARI BURUZKO INFORMAZIOA. **EZ DAGOKIO.**	ADENDA II.- INFORMACION RELATIVA A LA LIMITACIÓN DE LOTES. **NO PROCEDE.**
III. GEHIGARRIA.- KAUDIMEN IRIZPIDEEN ZEHAZTAPENA.	ADENDA III.- DETERMINACIÓN DE LOS CRITERIOS DE SOLVENCIA.
IV. GEHIGARRIA.- BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BETEKIZUNEI BURUZKO INFORMAZIOA.	ADENDA IV.- INFORMACION SOBRE CONDICIONES LINGÜÍSTICAS DE EJECUCIÓN.
V. GEHIGARRIA.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA. **EZ DAGOKIO.**	ADENDA V.- INFORMACION SOBRE SUBROGACIÓN. **NO PROCEDE.**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

I. GEHIGARRIA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA

Donostiako Udala Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko Plataformara atxikita dago. Lizitatzaileek Plataforma hau erabili beharko dute honako kontratu honetan beraien eskaintzak aurkezteko.

Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintza administratiboei zein teknikoei buruzko informazio guztia www.contratacion.euskadi.eus webgunean jasota dago

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gorabeherak argitzeko zerbitzua:
945016298 telefono zenbakia.

Sistema erabili ahal izateko, helbide honetara jo beharko da
www.contratacion.euskadi.eus

ADENDA I.- INSTRUCCIONES PARA LA LICITACIÓN ELECTRÓNICA

SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA

El Ayuntamiento de Donostia está adherido a la Plataforma para la Licitación Electrónica del Gobierno Vasco. Los licitadores deberán emplear dicha plataforma para la presentación de sus ofertas en la presente licitación.

En la dirección www.contratacion.euskadi.eus está recogida toda la información necesaria sobre los requisitos administrativos y técnicos para el empleo de esta Plataforma.

Servicio de soporte para resolver dudas o incidencias sobre licitación electrónica: 945016298.

Para utilizar el sistema deberá accederse al portal:

www.contratacion.euskadi.eus

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

II. GEHIGARRIA.- SORTEN MUGARI BURUZKO INFORMAZIOA
ADENDA II. - INFORMACIÓN RELATIVA A LA LIMITACIÓN DE LOTES

EZ DAGOKIO / NO PROCEDE

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

III. GEHIGARRIA

KAUDIMEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA TEKNIKO EDO PROFESIONALA

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala, markatu diren irizpideei dagozkien dokumentuak aurkeztuz egiaztatuko dira.

KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA (SPKLko 87. artikulua)

a) X	**Lizitatzailearen urteko negozio bolumenaren adierazpena, amaitu diren azken hiru ekitaldietatik onena izan den ekitaldiari dagokiona.**
	Irizpidea: azken 3 urteetatik onena izan den ekitaldian negozio bolumen, gutxienez, kontratuaren balio zenbatetsia izana: hau da, 60.924,85 € **Honen bidez egiaztatuko da:** Merkataritzako Erregistroan onartutako eta utzitako urteko kontuen bidez, baldin eta enpresa bertan erregistratuta badago, bestela, izena emanda egon behar duen erregistro ofizialean utzitako kontuen bidez. Merkataritzako erregistroan izena emanda ez duten banakako enpresariek Merkataritza Erregistroak legalizatutako beren inbentario liburuen eta urteko kontuen bidez egiaztatuko dute. Enpresa sortu berrien kasuan (ondorio horietarako soilik, hiru urtetik beherako antzinatasuna dutenak hartuko dira halakotzat), baldin eta ezin badute urteko negozio-bolumenaren egiaztagiriak aurkeztu, SPKLren 86.1 artikuluaren bigarren paragrafoak dioenarekin bat, kontratazio-organoak kaudimenaren beste frogabide batzuk onartu ahal izango ditu, baldintza-agiri hauetan adierazitakoez bestelakoak.

KAUDIMEN TEKNIKOA EDO PROFESIONALA (SPKLko 90. artikulua):

* SPKL-ko 90.4 artikuluaren arabera, eratze berriko enpresek (hots, 5 urtekoa baino antzinakotasun txikiuagoa dutenek) ezingo dute kaudimen teknikoa a) irizpidearen bidez egiaztatu. Ondorioz, eratze berriko enpresek b) irizpidea soilik egiaztatu beharko dute. Gainerako enpresek bi irizpideak egiaztatu beharko dituzte (a+b).

a) X	**Azken hiru urteetan kontratuaren xedearen izaera berarekin edo antzekoarekin egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, ondo gauzatu izanaren ziurtagiriarekin batera.**
	Irizpidea: Azken 3 urteetako gauzatze handieneko urtean, gutxienez, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70a egin izana xedeari dagokion antzeko lanetan (Proiektuak idaztea eta aurrekontuak diseinatzea): hau da, **42.647,40 €.** **Honen bidez egiaztatuko da:** gauzatze onaren ziurtagiriek bermatua. Ziurtagiri horietan adierazita egongo dira zerbitzuak gauzatzearen zenbatekoa, datak eta tokia, eta zehaztuko da ea lanbideari buruzko arauei jarraituz egin ziren eta ea normal eta ondo bukatu ziren. Zerrendan sartuta dauden eta hartzailea sektore publikoko erakunde bat izan duten zerbitzuen ziurtagiriak zuzenean kontratazio organoari jakinarazi ahalko dizkio zerbitzuak kontratatu zituen erakundeak. Ondorio horietarako, zerbitzuen kontratistaren atzerriko sozietate filial batek gauzatutako zerbitzuak kontratistak berak zuzenean gauzatutakoak bezalaxe hartuko dira aintzat, baldin kontratistak zuzenean edo zeharka sozietate haren gaineko kontrola badu, Merkataritzaren Kodeko 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Kontratistaren partaidetza duen atzerriko sozietate batek gauzatu baditu zerbitzuak, eta aurrez aipatu baldintza betetzen ez bada, gauzatutako zerbitzutik, kontratistak sozietate horren kapitalean duen partaidetzaren proportzio bera baino ez da hartuko kontratistari egotz dakiokeen esperientziatzat.
b) X	**Kontratuan parte hartuko duen pertsonal teknikoari edo unitate teknikoetako pertsonalari buruzko adierazpena, langileak enpresakoak izan edo ez, eta batez ere kalitate kontrolaz arduratuko diren langileena.**
	Irizpidea: Gutxienez, honako lantaldea izan beharko du: -1. Teknikaria: Proiektua idatzi eta sinatzeko legez gaituta, **plegu teknikoko** hurrengo ataletan deskribatutako eginkizunak ebatziko dituena: -3.4.1.B -3.4.3.E -3.4.3.A

	2. Teknikaria: Proiektua idatzi eta sinatzeko legez gaituta, **plegu teknikoko** hurrengo ataletan deskribatutako eginkizunak ebatziko dituena: -3.4.1.A -3.4.1.C -3.4.1.D -3.4.2.A -3.4.2.B -3.4.3.B -3.4.3.C 3.-Teknikaria: Proiektua idatzi eta sinatzeko legez gaituta, **plegu teknikoko** hurrengo ataletan deskribatutako eginkizunak ebatziko dituena: -3.4.1.F -3.4.1.G -3.4.1.H -3.4.3.D **Honen bidez egiaztatuko da:** **- Kontratuari atxikitako gutxieneko teknikarien gaikuntza profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, proiektua idaztean esleituta dituen zereginen arabera**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

ADENDA III

SOLVENCIA ECONÓMICA Y FINANCIERA, Y TÉCNICA O PROFESIONAL

(Especificar para cada lote, en su caso)

La solvencia económica y financiera y técnica o profesional, se acreditará mediante la aportación de los documentos a que se refieren los criterios de selección marcados.

SOLVENCIA ECONÓMICA Y FINANCIERA (artículo 87 LCSP)

a) X	**Declaración sobre el volumen anual de negocios de la licitadora referido al año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos**.
	- Criterio: en el año de mayor volumen de negocio de los tres últimos concluidos el volumen de negocios deberá haber sido, como minimo, el Valor Estimado del contrato. es decir, 60.924,85 € - **Se acreditará mediante:** Cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si la empresa estuviera inscrita en dicho registro, y en caso contrario por las depositadas en el registro oficial en que deba estar inscrita. Las empresas individuales no inscritas en el Registro Mercantil acreditarán mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil. En el caso de empresas de nueva creación, entendiéndose como tales a estos únicos efectos, aquellas que tengan una antigüedad inferior a tres años, en caso de que no les sea posible presentar los documentos acreditativos relativos al volumen anual de negocios, de conformidad con el art. 86.1 párrafo segundo de la LCSP, el órgano de contratación podrá admitir de forma justificada otros medios de prueba de la solvencia distintos al expresado en estos pliegos.

SOLVENCIA TÉCNICA O PROFESIONAL (artículo 90 LCSP)

*En virtud del art. 90.4. de la LCSP, las empresas de nueva creacion no podran acreditar su solvencia tecnica mediante el criterio a). Por tanto, las empresas de nueva creacion solo deberan acreditar el criterio b). Las demas empresas deberan acreditar ambos criterios (a+b),

a) X	**Relación de los principales servicios o trabajos realizados en los últimos tres años del mismo tipo o naturaleza al que corresponde el objeto del contrato, avalados por certificados de buena ejecución.**
	Criterio: El empresario debera acreditar haber ejecutado durante el ano de mayor ejecucion de los 3 ultimos años concluidos, al menos, el 70% del Valor Estimado del contrato en trabajos similares al que corresponde el objeto del presente contrato (Elaboracion de proyectos y diseños, presupuestos), es decir, al **42.647,40** €. **Se acreditará mediante:** certificados de buena ejecución para las servicios más importantes; estos certificados indicarán el importe, las fechas y el lugar de ejecución de las servicios y se precisará si se realizaron según las reglas por las que se rige la profesión y se llevaron normalmente a buen término. Los certificados de buena ejecución de las servicios incluidas en la relación cuyo destinatario fuese una entidad del sector público podrán ser comunicados directamente al órgano de contratación por la entidad contratante de las servicios. A estos efectos, las servicios ejecutadas por una sociedad extranjera filial del contratista de servicios tendrán la misma consideración que las directamente ejecutadas por el propio contratista, siempre que este último ostente directa o indirectamente el control de aquélla en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio. Cuando se trate de servicios ejecutadas por una sociedad extranjera participada por el contratista sin que se cumpla dicha condición, solo se reconocerá como experiencia atribuible al contratista la obra ejecutada por la sociedad participada en la proporción de la participación de aquél en el capital social de ésta.
b) X	**Indicación del personal técnico o de las unidades técnicas, integradas o no en la empresa, participantes en el contrato, especialmente aquéllos encargados del control de calidad.**
	Criterio: Equipo mínimo de trabajo deberá estar formado por: -1. Técnico: Legalmente habilitado para la redacción y firma del proyecto que resuelva las funciones descritas en los siguientes apartados del **pliego técnico**: -3.4.1.B -3.4.3.E -3.4.3.A

	-2. Técnico: Legalmente habilitado para la redacción y firma del proyecto que resuelva las funciones descritas en los siguientes apartados del **pliego técnico**: -3.4.1.A -3.4.1.C -3.4.1.D -3.4.2.A -3.4.2.B -3.4.3.B -3.4.3.C - 3. Técnico: Legalmente habilitado para la redacción y firma del proyecto que resuelva las funciones descritas en los siguientes apartados del **pliego técnico**: -3.4.1.F -3.4.1.G -3.4.1.H -3.4.3.D **Se acreditará mediante la presentación de los siguientes documentos:** **-Documentación acreditativa de la habilitación profesional del personal técnico mínimo adscrito al contrato, en función de las tareas que tenga asignadas en la redacción del proyecto.**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

IV. GEHIGARRIA.- BETE BEHARREKO HIZKUNTZA BETEKIZUNEI BURUZKO INFORMAZIOA

ADENDA IV.- INFORMACIÓN SOBRE CONDICIONES LINGÜÍSTICAS DE EJECUCIÓN

Euskararen gaitasuna egiaztatzeko betebeharra duten lanpostuen zerrenda	**Relación de puestos de trabajo con obligatoriedad de acreditación de nivel de euskera.**
Lanpostuaren izena **Euskara maila** Lanpostua: koordinatzaile arduraduna C1	**Denominación del puesto** **Nivel de Euskera** Puesto: coordinador responsable C1
- Nahitaez zenbat dotaziotan egiaztatu behar den euskara maila lanpostu horretan (ehunekoa):	**- Porcentaje de obligatoriedad de acreditación del total de dotaciones del puesto:**
%100	%100
- Eskatutako maila egiaztatzeko aurkeztu beharreko ziurtagiriak	**- Certificados a presentar para la acreditación del nivel exigido**
Dekretu honetan zehaztutakoak: 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena, 187//2017 Dekretuak aldatutakoa.	Los previstos en el Decreto 297/2010, de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera, y equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, modificado por el Decreto 187/2017.
Salbuespen gisa, administrazio kontratu honen ezaugarri zehatzak kontuan izanik, euskararen ezagutza honako euskaltegi honek emandako ziurtagiriaren bidez frogatu ahal izango da:	Excepcionalmente, considerando las características concretas de este contrato administrativo, la acreditación podrá realizarse mediante certificado o documento expedido por el euskaltegi:
- Euskaltegiaren izena: Altza euskaltegia - Helbidea: Txirrita Pasalekua 23-20017 Donostia - Telefonoa: 943 464655	- Nombre de euskaltegi: Altza Euskaltegia - Dirección: Txirrita Pasalekua 23-20017 Donostia - Teléfono: 943 464655

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

V. GEHIGARRIA.- SUBROGAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA
ADENDA V.- INFORMACIÓN SOBRE SUBROGACIÓN

EZ DAGOKIO / NO PROCEDE

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA	PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES
Aurkibidea	**Índice**
I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK	**CAPÍTULO I - DISPOSICIONES GENERALES**
1.- Kontratuaren xedea.	1.- Objeto del contrato.
2.- Kontratatzailea eta Kontratazio Organoa; Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak.	2.- Entidad contratante y Órgano de contratación; Necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato.
3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.	3.- Presupuesto base de licitación.
4.- Kontratuaren balio zenbatetsia.	4.- Valor estimado del contrato.
5.- Kontratuaren prezioa.	5.- Precio del contrato.
6.- Kreditua izatea.	6.- Existencia de crédito.
7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua.	7.- Plazo y lugar de ejecución del servicio.
8.- Prezioak berrikustea.	8.- Revisión de precios.
9.- Kontratatzailearen profila.	9.- Perfil de contratante.
10.- Alor hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakume eta gizonen berdintasuna, hizkuntza berdintasuna, enpleguaren babesa, lan baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa	10.- Información en materia fiscal, medio ambiente, igualdad de mujeres y hombres, igualdad lingüística, protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales y protección de datos.
11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak.	11.- Régimen jurídico del contrato y prerrogativas de la Administración.
12.- Errekurtso araubidea.	12.- Régimen de recursos.
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA	**CAPÍTULO II - CONTRATACIÓN**
13.- Espediente mota eta lizitazio modua.	13.- Clase de expediente y forma de licitación
14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak eta Lanbide edo enpresa baimenak/ gaikuntzak, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta lanbidezkoa edo teknikoa.	14.- Personas naturales o jurídicas licitadoras y sus Autorizaciones/Habilitaciones profesionales, solvencia económica y financiera y profesional o técnica.
15.- Behin-behineko bermea.	15.- Garantía provisional.
16.- Proposamenak aurkeztea.	16.- Presentación de proposiciones.
17.- Lizitatzaileei informazioa ematea.	17.- Información a las licitadoras.
18.- Proposamenen edukia.	18.- Contenido de las proposiciones.
19.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoa: “DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA”.	19.- Archivo electrónico nº UNO: “DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA”.
20.- BI zenbakiko artxibo elektronikoa: “BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA”.	20.- Archivo electrónico nº DOS: “DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR”.
21.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa: “FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA”.	21.- Archivo electrónico nº TRES: “OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS”.

22.- Aldaerak onartzea.	22.- Admisibilidad de variantes.
23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak.	23.- Efectos de la presentación de proposiciones.
24.- Kontratazio mahaia.	24.- Mesa de contratación.
25.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea.	25.- Apertura y examen de las proposiciones.
26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea.	26.- Publicidad del resultado de los actos de la mesa de contratación y notificación a las licitadoras afectadas.
27.- Esleipen irizpideak.	27.- Criterios de adjudicación.
28.- Eskaintzak baloratzea.	28.- Valoración de las ofertas.
29.- Eskaintzak argitzea.	29.- Aclaración de ofertas.
30.- Balio nabarmen baxuak dituzten eskaintzak.	30.- Ofertas con valores anormalmente bajos.
31.- Prozedurako ondorengotza.	31.- Sucesión en el procedimiento.
32.- Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta esleipen prozeduran administrazioak atzera egitea.	32.- Decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y desistimiento del procedimiento de adjudicación por la Administración.
33.- Esleipena.	33.- Adjudicación.
34.- Kontratua formalizatzea.	34.- Formalización del contrato.
III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA	**CAPÍTULO III - EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
35.- Kontratuaren arduraduna.	35.- Responsable del contrato.
36.- Kontratistaren ondorengotza.	36.- Sucesión en la persona de la contratista.
37.- Kontratua besteri lagatzea.	37.- Cesión del contrato.
38.- Kontratua gauzatzeko baldintzak eta betebeharrak.	38.- Condiciones y obligaciones de ejecución.
39.- Obra proiektuak prestatzeko kontratuari buruzko berezitasunak.	39.- Especialidades en relación al contrato de elaboración de proyectos de obras.
40.- Zerbitzu kontratuen berezitasunak, herritarrentzat zuzeneko prestazioak dakartzatenean.	40.- Especialidades en relación a los contratos de servicios que conlleven prestaciones directas a favor de la ciudadanía.
41.- Jabetza intelektualaren eskubideak.	41.- Derechos de la propiedad intelectual.
42.- Informazioaren segurtasunari buruzko funtsezko betebeharrak	42.- Obligaciones esenciales en materia de seguridad de la información
43.- Zehapenak: berandutzagatikoa eta beste batzuk.	43.- Penalidades: por demora y otras penalidades.
44.- Kontratuaren aldaketak.	44.- Modificaciones del contrato.
45.- Kontratistari egin beharreko ordainketak.	45.- Abonos al contratista.
46.- Kontratua etetea.	46.- Suspensión del contrato.
47.- Harrera eta berme epea.	47.- Recepción y plazo de garantía.
48.- Kontratua suntsiaraztea.	48.- Resolución del contrato.
LIZITATZAILEEK BETE BEHARREKO ERANSKINAK (EREDUAK ETA ADIERAZPENAK)	**ANEXOS (MODELOS Y DECLARACIONES) A RELLENAR POR LAS LICITADORAS**

BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA	PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES
I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK	**CAPÍTULO I - DISPOSICIONES GENERALES**
1.- Kontratuaren xedea	**1.- Objeto del contrato**
1.- Kontratuaren xedea ezaugarrien taulako **3. atalean** deskribatutako zerbitzua da, betiere preskripzio teknikoei buruzko baldintza agirian ezarritako baldintzekin bat. Hala badagokio, kontuan hartu beharko dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) Bigarren Liburuko I. tituluan aurreikusten dituen kasuetan tramita daitezkeen aldaketak. Lege horren bidez Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.	1.- Constituye el objeto del contrato el servicio descrito en el **apartado 3** del cuadro de características, de acuerdo con las condiciones establecidas en el pliego de prescripciones técnicas y, en su caso, con los modificados que puedan tramitarse en los supuestos previstos en el Título I del Libro Segundo de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014 (LCSP).
Atal horretan hala ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren baldintzak eta mugak aplikaturik, SPKLren 99. artikuluak dioenarekin bat.	Cuando así se establezca en dicho apartado se licitará por lotes, siguiendo los términos y límites que se describen en el mismo, conforme al artículo 99 de la LCSP.
2.- Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa ezaugarrien taulako **3. atalean** dago jasota.	2.- La codificación correspondiente a la nomenclatura Vocabulario Común de Contratos (CPV) figura en el **apartado 3** del cuadro de características.
2.- Erakunde kontratatzailea eta Kontratazio Organoa; Kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboak	**2.- Entidad contratante y Órgano de contratación; Necesidades administrativas a satisfacer mediante el contrato.**
- Erakunde kontratatzailea eta Kontratazio organoa ezaugarrien taulako **1. atalean** azaltzen dira.	- La entidad contratante y el órgano de contratación se describen en el **apartado 1** del cuadro de características.
Kontratu honekin beteko dira preskripzio teknikoen agirian deskribatuta dauden premia edo beharrak, zehazki bertan deskribatzen diren zerbitzuen bitartez; agiri hori ez badago, bete beharreko premia administratiboak agiri honetan zehaztutakoak soilik izango dira.	- Con este contrato se satisfarán las necesidades que se describen en el pliego de prescripciones técnicas, mediante los servicios descritos en el mismo, y si no existiera este documento, las necesidades son las exclusivamente descritas en este pliego.
3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	**3.- Presupuesto base de licitación**
1.- Ezaugarrien taulako **4. atalean** balio erantsiaren gaineko zerga barne harturik maximotzat adierazten dena da kontratuko lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa.	1.- El importe del presupuesto base de licitación del contrato es el señalado como máximo en el **apartado 4** del cuadro de características, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.
2.- SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. atalean** adierazten dira, hala dagokionean, lizitaziorako oinarrizko aurrekontua zehazteko, kontuan hartu diren kostu zuzenak, zeharkakoak eta bestelako gastuak.	2.- A los efectos de lo previsto en el artículo 100.2 de la LCSP, en **el apartado 4** del cuadro de características se indican, en su caso, los costes directos, indirectos y el resto de gastos que se han tenido en cuenta para la determinación del presupuesto base de licitación.

4.- Kontratuaren balio zenbatetsia	**4.- Valor estimado del contrato**
1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101. artikuluaren arabera kalkulatu eta ezaugarrien taulako **5. atalean** jaso dena, kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion esleipen prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko bai pertsona fisiko eta juridiko lizitatzaileen (aurrerantzean lizitatzaileak) gaitasun baldintzak eta aplikagarria den errekurtsoen araubidea finkatzeko. Balio zenbatetsi horrek, hala aurreikusten den kasuetan, hurrenez hurren ezaugarrien taulako **9. eta 21. ataletan** jasotzen diren balizko aukera guztiak jasoko ditu, izan daitezkeen luzapenekin eta kontratuko aldaketa posibleekin batera.	1.- El valor estimado del contrato, calculado conforme al artículo 101 de la LCSP y recogido en el **apartado 5** del cuadro de características, ha sido tenido en cuenta para elegir, tanto el procedimiento de adjudicación aplicable a este contrato y la publicidad a la que va a someterse, como para establecer las condiciones de aptitud de las personas físicas y jurídicas licitadoras (en adelante las licitadoras) y el régimen de recursos aplicable. Dicho valor estimado incluirá, en el supuesto de que así se prevean, cualquier forma de opción eventual, las eventuales prórrogas y posibles modificaciones contractuales señaladas en los **apartados 9 y 21** respectivamente del cuadro de características.
2.- SPKLren 101.5 artikuluan aurreikusten denaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **5. atalean** adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko erabili den metodoa.	2.- A los efectos de lo previsto en el artículo 101.5 de la LCSP, en el **apartado 5** del cuadro de características se indica el método utilizado para la determinación del valor estimado del contrato.
5.- Kontratuaren prezioa	**5.- Precio del contrato**
1.- Kontratuaren prezioa esleipenetik ateratzen dena izango da. Balio erantsiaren gaineko zerga partida independente gisa jaso beharko du. Kontratuaren prezioan sartutzat joko dira aplikatu beharreko edozein motatako tributu, tasa eta kanonak, bai eta baldintza-agiri honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzeak esleipendunari dakarzkion gastu guztiak ere.	1.- El precio del contrato será el que resulte de la adjudicación del mismo y deberá indicar como partida independiente el IVA. En el precio del contrato se considerarán incluidos los tributos, tasas y cánones de cualquier índole que sean de aplicación, así como todos los gastos que se originen para la adjudicataria como consecuencia del cumplimiento de las obligaciones contempladas en el presente pliego.
2.- SPKLren 102.4 artikuluan aurreikusten denaren ondorioetarako, ezaugarrien taulako **4. atalean** adierazten da kontratuaren prezioa zehazteko erabili den sistema.	2.- A efectos de lo previsto en el artículo 102.4 de la LCSP, en el **apartado 4** del cuadro de características se indica el sistema utilizado para la determinación del precio.
3.- Prezioaren zehaztapena oroharreko prezioan egiten den kontratuetan, enpresa esleipendunak eskainiko du kontratuaren prezioa, eta hura inoiz ez da izango lizitazio aurrekontutik gorakoa.	3.- En los contratos en los que la determinación del precio se efectúe a través de tanto alzado el precio del contrato será el ofertado por la empresa adjudicataria que en ningún caso podrá superar el presupuesto base de licitación.
4.- Prezioaren zehaztapena prestazioko osagai edo unitateen prezio unitarioen bitartez egiten den kontratuetan:	4.- En los contratos en que la determinación del precio se efectúe a través de precios unitarios correspondientes a los distintos componentes o unidades de prestación:
a) Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen denean, esleipendunak eskainitako prezio unitarioa unitate kopuruaz biderkaturik ateratzen den emaitza izango da prezioa.	a) Cuando el número de unidades que integran el objeto se defina con exactitud: el precio será el resultado de multiplicar el precio unitario ofertado por el adjudicatario por el número de unidades.
b) Xedea osatzen duen unitate kopurua zehatz definitzen ez denean:	b) Cuando el número de unidades que integran el objeto no se defina con exactitud:
1) Unitate bakoitzaren prezioa esleipendunak eskainitakoa izango da.	1) El precio de cada unidad será el ofertado por el adjudicatario.
2) Kontratuaren gehienezko mugako aurrekontua finkatuko da, nahiz aurrekontu horretako gastu	2) Se establecerá el presupuesto máximo limitativo del contrato, si bien el gasto efectivo de este presupuesto

efektiboa Administrazioaren behar errealek baldintzatuta egongo den; izan ere, Administrazioak ez du obligaziorik izango ez unitate kopuru jakin bat eskatzeko, ezta aurrekontua osorik gastatzeko ere.	está condicionado por las necesidades reales de la Administración, que no queda obligada a demandar un determinado número de unidades, ni a gastarlo en su totalidad.
6.- Kreditua izatea	**6.- Existencia de crédito**
1.- Behar adinako kreditu egokia dago, kontratua gauzatzeko kalkulatutako gehieneko gastuari aurre egiteko. Kontratua aurrekontuko partiden kargura finantzatuko da, eta ezaugarrien taulako **7. atalean** ezartzen diren urteroko zenbatekoekin bat.	1.- Existe crédito adecuado y suficiente para hacer frente al gasto máximo estimado del contrato a realizar. El contrato se financiará con cargo a la/s partida/s presupuestaria/s y conforme a la/s anualidad/es que se establecen en el **apartado 7** del cuadro de características.
2.- Ezaugarrien taularen hasieran aurreikusiarekin bat, eta SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusiaren indarrez, espedientea aurrez tramitatzen bada, kontratuaren esleipenak etendura baldintza bat izango du, zehazki behar besteko kreditu egokia izatea, dagokion ekitaldian kontratuari darizkion obligazioak beteko direla bermatzearren.	2.- Si de acuerdo con lo previsto al inicio del cuadro de características, a tenor de lo previsto en el artículo 117.2 de la LCSP, el expediente se tramita anticipadamente, la adjudicación del contrato queda sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para garantizar las obligaciones derivadas del contrato en el ejercicio correspondiente.
7.- Zerbitzua betetzeko epea eta lekua	**7.- Plazo y lugar de ejecución del servicio**
1.- Zerbitzua betetzeko epea ezaugarrien taulako **8. atalean** ageri dena da, edo, bestela, enpresa esleipendunak eskaintzen duena, eskaintzaileek epe osoa edota epe partzialak murriztea proposa dezaketen kasuan.	1.- El plazo de ejecución será el que figura en el **apartado 8** del cuadro de características, o el que oferte la empresa adjudicataria, en el supuesto de que las licitadoras puedan proponer reducción del plazo total y/o de los plazos parciales.
2.- Kontratua luzatu ahal izango da, baldin eta ezaugarrien taulako **9. atalean** horrela jasota badago. Luzapena derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat SPKLren 29. artikuluan adierazitakoari jarraituz.	2.- El contrato podrá ser prorrogado si así se prevé en el **apartado 9** del cuadro de características, siendo la prórroga obligatoria para la contratista en los términos previstos en el artículo 29 de la LCSP.
3.- Zerbitzuak toki jakin batean eman behar badira, ezaugarrien taulako **12. atalean** hala adieraziko da.	3.- En caso de que los servicios deban desarrollarse en un lugar determinado, se indicará en el **apartado 12** del cuadro de características**.**
8.- Prezioen berrikuspena	**8.- Revisión de precios**
1.- Berrikuspena egitea egokia bada, horrela adieraziko da ezaugarrien taulako **14. atalean**, eta formula aplikagarria ere zehaztuko da bertan.	1.- Si procediera la revisión, se indicará en el **apartado 14** del cuadro de características, que recogerá la fórmula aplicable.
2.- Prezioen berrikuspena SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzetan egingo da.	2.- La revisión de precios tendrá lugar en los términos establecidos en la LCSP (artículos 103 y siguientes).
9.- Kontratatzailearen profila	**9.- Perfil de contratante**
1.- Kontratu honi buruz kontratatzailearen profilaren bidez argitaratuko den informazioa ezaugarrien taulako **2. atalean** adierazten den helbide elektronikoan ikusi ahal izango da.	1.- La información relativa al presente contrato que vaya a ser publicada a través del perfil de contratante podrá ser consultada en la dirección electrónica que se indica en el **apartado 2** del cuadro de características.
2.- Herri administrazioen kontratuak esleitzeko lizitazio iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratuko da.	2.- El anuncio de licitación para la adjudicación de contratos de las Administraciones Públicas se publicará en el perfil de contratante.

3.- Kontratatzailearen profilean, kontratua esleitzeko deialdiari buruzko informazioa emango da, baldintza administratibo berezien agiriekin eta, hala dagokionean, dokumentazio osagarriarekin batera.	3.- En el perfil de contratante se ofrecerá información relativa a la convocatoria de la licitación del contrato, incluyendo los pliegos de cláusulas administrativas particulares y documentación complementaria, en su caso.
4.- Kontratuak erregulazio harmonizatukoak direnean, lizitazioa Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean ere argitaratuko da, SPKLren 135. artikuluari jarraikiz.	4.- Cuando los contratos estén sujetos a regulación armonizada, la licitación se publicará además en el Diario Oficial de la Unión Europea, de conformidad con el artículo 135 LCSP.
10.- Alor hauei buruzko informazioa: zergak, ingurumena, emakume eta gizonen berdintasuna, hizkuntza berdintasuna, enpleguaren babesa, lan baldintzak eta laneko arriskuen prebentzioa, eta datuen babesa.	**10.- Información en materia fiscal, medio ambiente, igualdad de mujeres y hombres, igualdad lingüística, protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales y protección de datos.**
Alor horietan indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa lortzeko erakundeak:	En los siguientes organismos se puede obtener información de las obligaciones y disposiciones vigentes en relación con
- Fiskalitatea: Donostiako Udaleko Finantza Zuzendaritzan, eta gainerako zerga administrazioetan.	- Fiscalidad: Dirección Financiera del Ayuntamiento de Donostia/ San Sebastián, y en el resto de Administraciones Tributarias.
– Enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta desgaituak gizartean eta lan munduan txertatzea: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.	- Protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales e inserción sociolaboral de personas con discapacidad: Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Trabajo y Justicia del Gobierno Vasco.
– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakunde erakunde autonomoa. – Udaleko Berdintasun Bulegoa	- Igualdad de mujeres y hombres: Organismo Autónomo EMAKUNDE- Instituto Vasco de la Mujer. - Negociado de Igualdad del Ayuntamiento
– Hizkuntza berdintasuna: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza. – Udaleko Euskara Zerbitzua	- Igualdad lingüística: Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco - Servicio de Euskera del Ayuntamiento
– Ingurumenaren babesa: IHOBE sozietate publikoa. – Udaleko Ingurumen Zuzendaritza	- Protección del medio ambiente: Sociedad pública IHOBE. - Dirección de Medio Ambiente del Ayuntamiento
– Datu pertsonalen babesa: Datuak Babesteko Euskal Agentzia. – Udaleko Lehendakaritza Zuzendaritza	- Protección de datos de carácter personal: Agencia Vasca de Protección de Datos. - Dirección de Presidencia del Ayuntamiento
– Lehiaren Babesa Lehiaren Euskal Agintaritza https //www.competencia.euskadi.eus/webavc00-home/es/	- Defensa de la Competencia Autoridad Vasca de la Competencia https //www.competencia.euskadi.eus/webavc00-home/es/
11.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak	**11.- Régimen jurídico del contrato y prerrogativas de la Administración**
1.- Kontratu honek izaera administratiboa du, SPKLren 25. artikuluaren arabera. Aldeak espresuki lotuta gelditzen dira baldintza agiri honetan eta dena delako proiektuan jasotakoari.	1.- El presente contrato tiene carácter administrativo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 25 de la LCSP. Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en este pliego y en el correspondiente proyecto.
2.- Baldintza administratibo berezien agiriak eta preskripzio teknikoen agiriak kontratu izaera dute, eta, beraz, esleipendunak kontratua formalizatzen duenean aurrez adierazitako bi dokumentuak ere bere eduki osoan sinatu	2.- El pliego de cláusulas administrativas particulares y el pliego de prescripciones técnicas particulares, tienen carácter contractual, por lo que el acto de formalización del contrato supone la aceptación y firma de la totalidad del contenido de los

dituela ulertuko da.	dos documentos previamente citados.
3.- Baldintza agirietan jaso gabe dauden alderdietan, honako hauek dira kontratua arautuko dutenak: Sektore Publikoko Kontratuen Legea (SPKL); maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (HAKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaz onartu zena, aurrekoaren aurka ez doan guztian. Horrez gain, araututa geldituko da Euskal Autonomia Erkidegoan, Kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzen dituen apirilaren 6ko 3/2016 Legearen bidez, baita Udalean kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapen aplikagarriren bidez ere. Arau horiek SPKLren xedapen indargabetzaileak eragin ez duen guztiari dagokionez aplikatuko dira. Nolanahi ere, kontratua datu pertsonalen babesari buruzko araudi nazionalari eta Europar Batasunari lotuta egongo da, bereziki 3/2018 Lege Organikoara eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrera.	3.- Para lo no previsto en los pliegos, el contrato se regirá por la LCSP, por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público (RD 817/2009) y por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado mediante Real Decreto 1098/2001, de 12 de Octubre (RGLCAP), en todo lo que no se oponga a la anterior. Además se regirá por cualesquiera otras disposiciones que regulen la contratación tanto a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi (Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública) como a nivel del Ayuntamiento y que resulten aplicables. La aplicación de estas normas se llevará a cabo en relación con todo lo que no haya resultado afectado por la disposición derogatoria de la LCSP. En todo caso, el contrato estará sujeto a la normativa nacional y e la Unión Europea en materia de protección de datos personales, en particular al Reglamento General de Protección de Datos y la Ley Orgánica 3/2018.
4.- Nolanahi ere, aurretik aipatutako legezko eta erregelamenduzko arauak SPKLren aurka ez doazen guztian aplikatuko dira.	4.- En todo caso, las normas legales y reglamentarias citadas anteriormente serán de aplicación en todo lo que no se oponga a la LCSP
5.- Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.	5.- Supletoriamente, se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado.
6.- Baldintza agiri honen eta kontratuko beste dokumentuetako edozeinen artean desadostasunik izanez gero, baldintza agiri hau nagusituko da.	6.- En caso de discordancia entre el presente pliego y cualquiera del resto de documentos contractuales, prevalecerá este pliego.
7.- Kontratuko klausulak, kontratuaren parte diren bestelako dokumentuak eta gauza hitzartua betetzeko unean aplikagarriak diren jarraibide edo arauak, edo horien alderdiren bat, ez ezagutzeak ez du esleipenduna horiek guztiak betetzetik salbuesten.	7.- El desconocimiento de las cláusulas del contrato en cualquiera de sus términos, de los otros documentos contractuales que forman parte y de las instrucciones o de la normativa que resulten de aplicación en la ejecución de la cosa pactada, no exime a la adjudicataria de la obligación de cumplirlas.
8.- SPKLren 190. artikuluan aurreikusiarekin bat, kontratazio organoak du kontratu administratiboak interpretatzeko eta haiek betetzean sortutako zalantzak ebazteko eskumena. Era berean, egindako kontratuak alde bakarretik aldatu ahal izango ditu, eta horiek suntsiaraztea erabaki ahal izango du, betiere SPKLk eta hura garatzeko xedapenek jasotzen dituzten mugen barnean eta bertan adierazitako baldintzei eta ondorioei lotuta.	8.- El órgano de contratación ostenta, de acuerdo con lo previsto en el artículo 190 de la LCSP la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos y resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento. Igualmente, podrá modificar unilateralmente los contratos celebrados y acordar su resolución, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP y sus disposiciones de desarrollo.
9.- Kontratua aplikatu edo interpretatzean, gauzatzean, aldatzean, betetzean edo suntsiaraztean sor litezkeen auziak udalaren organo eskudunek erabakiko dituzte, kontratistari entzun ondoren, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOk 97. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Organo horiek hartzen dituzten erabakiak betearazi beharrekoak izango dira berehala.	9.- Las cuestiones litigiosas que pudieran surgir para la aplicación o interpretación del contrato, su ejecución, modificación, cumplimiento o resolución, serán resueltas, previa audiencia a la contratista conforme al procedimiento establecido en el artículo 191 de la LCSP y en el artículo 97 del RGLCAP, por los órganos competentes del Ayuntamiento y sus acuerdos serán inmediatamente ejecutivos.
10.- Interesdun baten eskariz hasitako prozeduretan, berariaz bestelakorik ezarri ez bada, eta baldin eta horien xedea diru zenbatekoak erreklamatzea, administrazio prerrogatibak baliatzea edo administrazio kontratu baten gauzatzeari, burutzeari edo azkentzeari buruzko beste edozein gai bada,	10.- En los procedimientos iniciados a solicitud de una persona interesada, para los que no se establezca específicamente otra cosa, y que tengan por objeto o se refieran a la reclamación de cantidades, el ejercicio de prerrogativas administrativas o a cualquier otra cuestión relativa de la ejecución, consumación o

ebazpena emateko aurreikusitako epea ebazpena jakinarazi gabe igaroz gero, bere eskabidea administrazio isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango du interesdunak, nahiz eta bere horretan iraungo duen ebazteko betebeharrak.	extinción de un contrato administrativo, una vez transcurrido el plazo previsto para su resolución sin haberse notificado ésta, la persona interesada podrá considerar desestimada su solicitud por silencio administrativo, sin perjuicio de la subsistencia de la obligación de resolver.
12.- Errekurtso araubidea	**12.- Régimen de recursos**
1.- Baldintza agiri honen eta preskripzio teknikoen agiriaren kontra hautazko errekurtsoa jarri ahal izango da, SPKLren 44. artikuluan aurreikusitako errekurtso bereziaren bitartez, 100.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duen kontratua baldin bada.	1.- El presente pliego y el de prescripciones técnicas podrán ser recurridos potestativamente mediante el recurso especial previsto en del artículo 44 de la LCSP si se trata de un contrato cuyo valor estimado sea superior a 100.000 euros.
2.- Bestelako kontratuen kasuan, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, sektore publikoko araubide juridikoari dagokionez indarrean dagoen erregulazioak, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legeak aurreikusten dituzten errekurtso arruntak jarri ahal izango dira.	2.- En el resto de contratos, se podrán interponer los recursos ordinarios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o en la regulación vigente del régimen jurídico del sector público, así como en la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.
II. KAPITULUA - KONTRATAZIOA	**CAPÍTULO II - CONTRATACIÓN**
13.- Espediente mota eta lizitazio modua	**13.- Clase de expediente y forma de licitación**
1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien taularen hasieran aurreikusitako prozedura eta tramitazioari jarraikiz garatuko da.	1.- El expediente de contratación se realiza por el procedimiento y la tramitación previstos al inicio del cuadro de características.
Aldaerak onartzen direnean, lizitatzaileek aukerak eskaini ahal izango dituzte, ezaugarrien taulako **13. atalean** ezarritako moduan eta, betiere, preskripzio teknikoen agirian finkatutako baldintza, modalitate eta ezaugarriak jasoz, zeinak aipatutako atal horretan bertan laburbiltzen baitira.	En el supuesto de admisión de variantes, las licitadoras podrán ofertar alternativas en la forma establecida en el **apartado 13** del cuadro de características y con los requisitos, modalidades y características técnicas fijadas en el pliego de prescripciones técnicas particulares y resumidas en dicho apartado.
2.- Espedientearen presako tramitazioak berekin ekarriko du lizitazio eta esleipenerako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako erregelekin bat.	2.- La tramitación urgente del expediente implicará la reducción de los plazos establecidos para su licitación y adjudicación, conforme a las reglas establecidas en el artículo 119 y concordantes de la LCSP.
14.- Pertsona natural edo juridiko lizitatzaileak eta Lanbide edo enpresa baimenak/ gaikuntzak, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta lanbidezkoa edo teknikoa.	**14.- Personas naturales o jurídicas licitadoras y sus Autorizaciones/Habilitaciones profesionales, solvencia económica y financiera y profesional o técnica**
1.- Administrazioarekin kontratatu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko inolako galarazpenik eragiten ez badie, eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.	1.- Podrán contratar con la Administración las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en una prohibición de contratar, y acrediten su solvencia económica y financiera y técnica o profesional.
Araudi aplikagarriak hala ezartzen duela-eta, esleitzaileari eskatzen zaionean bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait baldintza betetzea esleipen prozeduran parte hartu ahal	Cuando, por así determinarlo la normativa aplicable, se le requieran a la licitadora determinados requisitos relativos a su organización, destino de sus beneficios, sistema de financiación u otros para poder participar en el correspondiente procedimiento de

izateko, alderdi horiek prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu.	adjudicación, deberá acreditarlos al concurrir en el mismo.
2.- Proposamenak aurkezteko epearen amaiera egunean, lizitatzaileek ez dute izango SPKLk 71. artikuluan aurreikusitako kontratatzeko debekurik. Kontratua esleitzeko garaian ere ez die kontratatzeko debekuetako batek berak ere eragin behar.	2.- Las licitadoras no deberán estar incursas en ninguna de las causas de prohibición de contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP en la fecha de conclusión del plazo de presentación de proposiciones. Tampoco deberán estar incursas en tal situación cuando se proceda a la adjudicación del contrato.
3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa edo lanbide gaikuntza izan beharko dute, kasuan kasukoa.	3.- Las licitadoras deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que constituyan el objeto del contrato.
4.- Pertsona juridikoak soilik izan daitezke esleipendun, baldin eta euren estatutu edo fundazio arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera eremuen barruan jasotako prestazioen kontratuak badira.	4.- Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.
5.- Era berean, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua esleitzen zaion arte enpresa elkartea eskritura publiko bitartez eratuta egotea.	5.- La Administración podrá, igualmente, contratar con uniones de empresas que se constituyan temporalmente al efecto, sin que sea necesaria la formalización de las mismas en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación del contrato a su favor.
Aldi baterako enpresa elkarteei dagokienez, haien osaera aldatzen denean eta kontratua formalizatu aurretik eta ondoren gertatzen diren aldaketa kasuetan, SPKLren 69. artikuluan eta ondorengoetan jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer gorabehera gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari.	En relación con las uniones temporales de empresas, caso de alteración de su composición así como en los supuestos de modificación que se produzcan antes y después de la formalización del contrato, se estará a lo dispuesto en el artículo 69 y siguientes de la LCSP. A estos efectos, se deberá comunicar al órgano de contratación la circunstancia que se hubiere producido.
6.- Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatuetako enpresei eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da.	6.- En relación con las empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo y empresas no comunitarias será de aplicación lo dispuesto en los artículos 67 y 68 de la LCSP.
Lizitatzaileek Ezaugarrien Taulako 15. ataleko gaikuntzak eta kaudimenak izan beharko dituzte.	Las licitadoras deberán reunir las solvencias y habilitaciones exigidas en el punto 15 del cuadro de características.
15.- Behin-behineko bermea	**15.- Garantía provisional**
1.- SPKLren 106. artikuluan aurreikusiarekin bat, aparteko egoera gisa, interes publikoko arrazoiak tarteko eta espedientean arrazoiz justifikaturik, kontratu honen kasuan behin-behineko bermea eratzea eskatzen bada, ezaugarrien taulako **18. atalean** ageri dena izango da berme horren zenbatekoa.	1.- De conformidad con lo previsto en el artículo 106 de la LCSP, si excepcionalmente, por motivos de interés público y de forma justificada en el expediente se exige para el presente contrato la constitución de una garantía provisional, su importe será el que figure en el **apartado 18** del cuadro de características.
2.- Bermeen formari eta baldintzei dagokienez, SPKLren 106. eta 108. artikuluetan jasotakoa beteko da, bai eta HAKLEOren 55., 56., 57. eta 58. artikuluetan jasotakoa ere.	2.- En cuanto a la forma y requisitos de las garantías, se estará a lo previsto en los artículos 106 y 108 de la LCSP, así como lo dispuesto en los artículos 55, 56, 57 y 58 del RGLCAP.
3.- Behin-behineko bermea automatikoki iraungiko da, eta lizitatzaileei kontratua burutu eta berehala itzuliko zaie.	3.- La garantía provisional se extinguirá automáticamente y se devolverá a las licitadoras inmediatamente después de la perfección del contrato.

16.- Proposamenak aurkeztea	**16.- Presentación de proposiciones**
1.- Proposamenak aurkezteko epea izango da Kontratatzailearen profilean argitaratutako lizitazio iragarkiak zehaztutako epea edo erregulazio harmonizatuko kontratuen kasuan Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean (EBAO) argitaratutako epea. Proposamenak bitarteko elektronikoen erabiliz aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzako Kontratazioko Plataformaren bidez. www.contratacion.euskadi.eus Jakinarazpenak eta komunikazioak ere Plataforma horren bitartez egingo dira.	1.- Las proposiciones se presentarán en el plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el perfil de contratante y, en el caso de contratos sujetos a regulación armonizada, en el Diario Oficial de la Unión Europa (DOUE). Las proposiciones se presentarán por medios electrónicos a través de la plataforma de licitación electrónica del Gobierno Vasco. www.contratacion.euskadi.eus Las notificaciones y comunicaciones con los licitadores se realizarán a través de esta Plataforma.
2.- Dokumentuak izendatzeko unean kontuan hartuko dira baldintza agiri honetako **19., 20. eta 21. klausuletan** adierazitako atalak, horietan adierazten baita BAT, BI eta HIRU artxibo elektronikoetan jaso beharreko dokumentu edukia.	2.- Los documentos se nombrarán teniendo en cuenta los distintos apartados señalados en las **cláusulas 19, 20 y 21** de este pliego como contenido documental a incluir en los archivos electrónicos UNO, DOS y TRES.
3.- Eskaintzak isil-gordekoak izango dira; horregatik, behar adina neurri hartuko da lizitazioa jendaurrean egin arte eskaintzak sekretuak izatea ziurtatzeko.	3.- Las proposiciones serán secretas y, para ello, se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de la licitación pública.
4.- Kontratuak gauzatzeko izendatutako arduradunen, ordezkoen eta harremanetarako pertsonen izaera pertsonaleko datuen tratamendua egingo da unean-unean aplikagarria den izaera pertsonaleko araudiaren arabera. Emandako datuen tratamenduaren helburua da Udalak egindako administrazio kontrataziorako deialdietan eskaintzak aurkezteari dagokion informazio pertsonala kudeatzea. Datuen tratamenduari legitimazioa ematen diote Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikuluak eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak. Datuen hartzaileak legeak ezarritakoak dira, tratamendu horren esparruan aplikagarri direnak. Interesdunek eskubidea izango dute datuetara sartzeko, haiek zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta haien aurka egiteko, baita datuak babesteko araudiaren arabera aplikagarriak diren beste batzuk eskatzeko ere. Horretarako, tratamenduaren arduraduna den Donostiako Udalera jo beharko dute. Helbidea: Ijentea kalea, 1- 20003 Donostia.	4.- Los datos personales de los/las responsables, representantes o personas de contacto para la ejecución del contrato serán tratados conforme a la normativa de protección de datos personales vigente en cada momento. La finalidad del tratamiento de los datos personales aportados es la gestión de la información personal relativa a la presentación de ofertas a las convocatorias de contratación administrativa para la ejecución de contratos realizadas por el Ayuntamiento. El tratamiento de datos se encuentra legitimado por el artículo 6.1.e) del Reglamento General de Protección da Datos y la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos de Sector Público. Las personas destinatarias de los datos son las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento Las personas afectadas podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición, y demás derechos que resulten aplicables conforme a la normativa en materia de protección de datos, ante el Responsable del tratamiento: Ayuntamiento de San Sebastián, C/ Ijentea, 1 - 20003 Donostia / San Sebastián.
17.- Lizitatzaileei informazioa ematea	**17.- Información a las licitadoras**
1.- SPKLren 138.3 artikuluak aipatzen duen informazio osagarri edo gehigarria eman beharra dagoenean, administrazio kontratatzaileak informazio hori eman beharko du, beranduenez eskaintzak aurkezteko finkatutako azken eguna baino 6 egun natural lehenago, betiere informazio eskaera azken egun hori baino, gutxienez, 12 egun natural lehenago aurkezten bada. Eskari hori honako helbide elektronikoaren bitartez bideratu beharko da: kontratazioa@donostia.eus	1.- Cuando sea preciso proporcionar la información adicional o complementaria a que se refiere el artículo 138.3 de la LCSP, la Administración contratante deberá facilitarla, a más tardar 6 días naturales antes de la fecha límite fijada para la presentación de ofertas, siempre que la solicitud se presente con una antelación mínima de 12 días naturales respecto de aquella fecha. Dicha solicitud se efectuará exclusivamente a través de la siguiente dirección electrónica: kontratazioa@donostia.eus

Kontratazio organoarentzat soilik helbide elektroniko honen bidez jasotako kontsultak eta eskainitako informazioak izango dira ofizialak eta lotesleak SPKLren 138.3 artikuluan xedatutakoaren karietara. Jasotako galdera guztiak eta kontratazio organoak emango dituen erantzun guztiak ikusgai izango dira kontratatzailearen profilean.	Únicamente las consultas recibidas y las informaciones ofrecidas mediante el empleo de esta dirección electrónica serán oficiales y vinculantes para el órgano de contratación a efectos de lo previsto en el art. 138.3 de la LCSP. La totalidad de las cuestiones planteadas y las respuestas facilitadas por el órgano de contratación serán expuestas en el perfil de contratante.
2.- Presazkotzat jo diren espedienteen kasuan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu aurretiko gehienezko epe hori 4 egun naturalekoa izango da, erregulazio harmonizatupeko kontratuen kasuan.	2.- En los expedientes que hayan sido calificados de urgentes, el plazo será de 4 días naturales a más tardar antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas para los contratos sujetos a regulación armonizada.
3.- Baldintza agiriez edo gainerako dokumentazioaz eskatutako argibideak kontratatzailearen profilean publiko egiten diren kasuetan, erantzunak lotesleak izango dira.	3.- En los casos en que las aclaraciones solicitadas respecto de los pliegos o del resto de la documentación se hagan públicas en el correspondiente perfil de contratante, las respuestas tendrán carácter vinculante.
18.- Proposamenen edukia	**18.- Contenido de las proposiciones**
1.- Proposamenak hurrengo klausuletan adierazten diren artxiboetan aurkeztuko ditu lizitatzaileak edo lizitatzailearen ordezkari diharduen pertsonak.	1.- Las proposiciones se presentarán en los archivos que se indican en las cláusulas siguientes, por la licitadora o persona que ostente su representación.
2.- Artxibo elektroniko bakoitzean, aparteko orri edo fitxategi batean, edukia jasoko da, zenbakiz adierazita (HAKLEO, 80.1 artikulua).	2.- En el interior de cada archivo electrónico se hará constar en hoja o fichero independiente su contenido, enunciado numéricamente (art.80.1 RGLCAP).
19.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoa: "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA"	**19.- Archivo electrónico nº UNO: "DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA"**
1.- "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA" izeneko artxibo elektronikoan sartu beharko dira ondoren zerrendatzen diren dokumentuak, horiek guztiak jasotzen dituen aurkibidearekin batera.	1.- En este archivo electrónico titulado "DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA" se deberán incluir los documentos que seguidamente se relacionan, así como un índice en el que se relacionen todos ellos.
a) Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB). SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusiarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, **I. Eranskinean** jasotako jarraibideen arabera beterik, eta lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta eta han adierazitako formulario eredura egokituta.	**a) Documento Europeo Único de Contratación (DEUC)**. De conformidad con lo previsto en los artículos 140 y 141 de la LCSP se presentará una declaración responsable a cumplimentar conforme a las indicaciones incluidas en el **Anexo I,** firmada por la licitadora o su representante, ajustada al modelo de formulario que allí se indica.
Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.	Cuando la empresa licitadora recurra a la solvencia y medios de otras entidades, deberá presentarse un DEUC por cada una de ellas.
Kontratuaren gaia sortatan zatitzea aurreikusten denean, baldin eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioari edo tekniko eta profesionalari buruzko baldintzak sortatik sortara aldatzen badira, Europako kontratazio agiri bakar bat aurkeztuko da kaudimenari buruzko baldintza berberak aplikatzen zaizkion sorta bakoitzeko edo sorta talde bakoitzeko.	Cuando en el cuadro de características se prevea la división por lotes del objeto del contrato, si los requisitos de solvencia económica y financiera o técnica y profesional exigidos variaran de un lote a otro, se aportará un DEUC por cada lote o grupo de lotes al que se apliquen los mismos requisitos de solvencia.
b) Desgaitasun kuotak eta berdintasun plana betetzeko	**b) Declaración responsable para el cumplimiento de las**

erantzukizunpeko adierazpena. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute beren langileen %2a gutxienez desgaitasuna duten pertsonak izateko. Bestalde, 50 langile edo gehiago dituzten enpresek konpromisoa hartu behar dute berdintasun plana edukitzeko (II. eranskina).	**cuotas de discapacidad y el plan de igualdad.** Las empresas de 50 o más trabajadores y trabajadoras deberán comprometerse a cumplir el requisito de que el 2% de sus empleadas y empleados sean personas con discapacidad. Las empresas de 50 o más personas empleadas, además de lo anterior, deberán comprometerse a cumplir con la obligación de contar con un plan de igualdad (Anexo II).
c) **Aldi baterako enpresa elkarte bat eratzeko konpromisoa, hala badagokio.** Enpresa bi edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea sorturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza agiri honetako **III. eranskinean** jasotzen da aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.	c) **Compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios, en su caso**. Cuando dos o más empresas acudan a una licitación constituyendo una unión temporal, deberán aportar un documento privado indicando los nombres y circunstancias de las empresas que la suscriban, la participación de cada una de ellas, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal, caso de resultar adjudicatarias (arts. 69 LCSP y 24 RGLCAP). El citado documento deberá estar firmado por quienes tengan la representación de cada una de las empresas componentes de la Unión. En estos casos, cada una de las empresas deberá presentar su DEUC. En el **Anexo III** de este pliego se incorpora el modelo de compromiso de constitución de Unión Temporal de Empresarios.
d) Ezaugarrien taulako **16. atalean** adierazten diren profil eta zehaztapenen araberako pertsonak eta material aldetiko bitartekoak kontratua gauzatzeari atxikitzeko erantzukizunpeko adierazpena. Baldintza agiri honetako **IV. eranskinean** jasotzen da eredua.	d) **Declaración responsable de adscripción a la ejecución del contrato de los medios personales y materiales** con los perfiles y especificaciones que se indican en el **apartado 16** del cuadro de características. Se incorpora modelo en el **Anexo IV al presente pliego.**
e) **Enpresa lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpen berariazkoa,** bera parte den enpresa taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak hartzen dituena, Merkataritza Kodeko 42. artikuluan ezarritako baldintzetan. Adierazpen hori aurkeztu beharko da, baldin eta ezaugarrien taulako **19. atalean** proposamen bat nabarmen baxua dela irizteko parametroak ezartzen badira. Enpresa talde bateko kide ez izatekotan, adierazpenak horixe adierazi beharko du. Baldintza agiri honetako **V. eranskinean** jasotzen da horretarako eredua.	e) **Declaración expresa responsable de la empresa licitadora relativa al grupo empresarial** al que pertenece y comprensiva de todas las sociedades pertenecientes a un mismo grupo, en los términos establecidos en el artículo 42 del Código de Comercio. Se aportará siempre y cuando en el **apartado 19** del cuadro de características se establezcan parámetros para considerar que una proposición es anormalmente baja. En caso de no pertenecer a ningún grupo empresarial, la declaración se realizará en este sentido. Se incorpora modelo en el **Anexo V al presente pliego.**
f) **Lizitatzaileen dokumentu eta datu konfidentzialei buruzko adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak. Hori, gainera, argi adierazi beharko da (gaininprimatua, orri-bazterrean edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke, horiek hirugarren pertsona edo entitate batzuei zabaltzea lizitatzailearen interes komertzial zilegien kontrakoa izan daitekeenean edo enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean. Adierazpen	f) **Declaración de los documentos y datos de las licitadoras de carácter confidencial.** Las empresas licitadoras tendrán que indicar, si es el caso, qué documentos administrativos y técnicos y datos presentados son, a su parecer, constitutivos de ser considerados confidenciales. Adicionalmente, esta circunstancia deberá reflejarse (sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma) en el propio documento señalado como tal. Los documentos y datos presentados por las empresas licitadoras pueden ser considerados de carácter confidencial cuando su divulgación a terceras personas o entidades pueda ser contraria a sus intereses comerciales legítimos o perjudicar la competencia leal entre empresas. De no

hori egin ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da. **Baldintza agiri honetako VI. eranskinean** jasotzen da eredua.	aportarse esta declaración se presumirá que ningún documento o dato posee dicho carácter. Se incorpora modelo en el **Anexo VI del presente pliego.**
g) **Behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentua, hala dagokionean.** Behin-behineko bermea eskatuz gero, honela egingo da horretarako gordailua:	g) **Documento acreditativo de la garantía provisional, en su caso**. Si se exige garantía provisional, ésta se depositará del siguiente modo:
– Banku kontuaren nazioarteko zenbakia duen kodea: IBAN: ES03 2095.0611.05.1060000006 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.	– En la cuenta con código Internacional de Cuenta Bancaria Kodea: IBAN: ES03 2095.0611.05.1060000006 cuando se trate de garantías en efectivo, debiéndose entonces incluir el correspondiente resguardo que acredite dicho depósito.
– Idatzoharra egindako baloreen ibilgetze ziurtagiriak, abalak edo kauzio aseguruen ziurtagiriak direnean, kontratazio organoaren aurrean (ikusi abal eredua **VII. eranskinean**).	– Ante el órgano de contratación, cuando se trate de certificados de inmovilización de valores anotados, de avales o de certificados de seguro de caución (ver modelo de aval en el **Anexo VII**).
Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkarteko enpresa batek nahiz gehiagok era ditzakete behin-behineko bermeak, baina, denen artean, ezaugarrien taulako **18. atalean** eskatzen den zenbatekora iritsi behar dute, eta elkartea osatzen duten guztiei berme solidarioa eman.	En el caso de uniones temporales de empresas las garantías provisionales podrán constituirse por una o varias de las empresas participantes siempre que en conjunto se alcance la cuantía requerida en el **apartado 18** del cuadro de características y garantice solidariamente a todas las integrantes de la unión temporal.
h) **Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak**. Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letrako erantzukizunpeko adierazpenaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.	h) **Especialidades en la documentación que han de presentar las licitadoras extranjeras.** Las licitadoras extranjeras deberán presentar, además de la declaración responsable a que se refiere la letra a) anterior, la documentación específica que a continuación se detalla.
Espainiarrak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoa:	Todas las empresas no españolas deben aportar:
– **Edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jartzeko adierazpena,** kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua)**.**	– **Declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales Españoles de cualquier orden** para todas las incidencias que, de modo directo o indirecto, pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la licitadora (art.140.1 f) de la LCSP).
Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:	Las empresas de Estados que no sean miembros de la Unión Europea o signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Único Europeo deberán aportar además:
- Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako **txostena**, eta bertan jasota geldituko da, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo,	- **Informe** expedido por la Misión Diplomática Permanente u Oficina Consular de España del lugar del domicilio de la empresa, en el que se haga constar, previa acreditación por la empresa, que figura inscrita en el registro local profesional, comercial o análogo o, en su defecto que actúa con

bestela, tokiko trafikoan ohikotasunez aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan**.**	habitualidad en el tráfico local en el ámbito de las actividades a las que se extiende el objeto del contrato.
- **Elkarrekikotasun txostena,** SPKLren 68. artikuluak aipatua. Erregulazio harmonizatuko kontratuak direnean, berriz, txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko da, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa. Esleipendun enpresa, kasu horretan, Espainian ireki beharko du sukurtsala, eta ordezkariak eta boteredunak izendatu beraien operazioetarako, eta Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da.	- **Informe de reciprocidad,** al que se refiere el artículo 68 de la LCSP, salvo que se trate de contratos sujetos a regulación armonizada, en cuyo caso se sustituirá por un informe de la Misión Diplomática Permanente o de la Secretaría General de Comercio Exterior del Ministerio de Economía sobre la condición de Estado signatario del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial de Comercio. La empresa adjudicataria, en este caso, deberá abrir sucursal en España con designación de apoderados y representantes para sus operaciones, y deberán inscribirse en el Registro Mercantil.
i) Langileei aplikatuko zaien **Hitzarmen Kolektiboaren adierazpena, <u>IX. Eranskineko</u>** ereduaren arabera; aitzitik, soldata-baldintzak hobetzea esleipen irizpide gisa aurreikusi bada, eranskin hau eta dagokion dokumentazioa 2. artxiboan (balio judizioen araberako irizpidea bada) edo 3. artxiboan (irizpide automatikoa bada) sartu beharko da, eta ez 1. artxiboan. Lizitatzaileak adierazi beharko du zein den aplikatu beharreko lan hitzarmen kolektiboa kontratuaren xedea gauzatuko duten langileei, eta lan hitzarmen hori enpresa edo sektore esparrukoa den. Lizitatzaileak adierazitako hitzarmen aplikagarria enpresakoa izanez gero, adierazi beharko da, halaber, zein izango litzatekeen lan hitzarmen sektorial aplikagarria, enpresak hitzarmenik ez izatekotan, hura ordezkatzeko.	**i)** **Declaración del Convenio Colectivo** a aplicar a los y las trabajadoras según modelo del **<u>Anexo IX</u>**; a no ser que mejorar las condiciones salariales se haya previsto como criterio de adjudicación, en cuyo caso deberá ir en el archivo 2 (si es un criterio sujeto a juicio de valor) o en el 3 (si es un criterio automático), y no en el archivo 1. El/la licitador/a deberá indicar cual es el convenio colectivo aplicable a los y las trabajadoras que van a ejecutar el objeto del contrato y si dicho convenio es de ámbito sectorial o de empresa. En el caso de que el convenio a aplicar declarado por el/la licitador/a fuera de empresa, deberá indicarse así mismo el convenio sectorial que, de no existir el de empresa, sería de aplicación.
2.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak noiznahi eska diezaieke lizitatzaileei dokumentu bidez justifikatzeko betetzen dutela erantzukizunpeko adierazpen bidez adierazi duten hori.	2.- El órgano de contratación o la mesa de contratación podrán, en cualquier momento, solicitar la justificación documental del cumplimiento de las condiciones sobre las que las licitadoras hubieran declarado responsablemente su cumplimiento.
Lizitatzaileak gehienez ere 10 egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatutako dokumentazioa, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendua esandako epean behar bezala betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak bere eskaintza kendu egin duela eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.	La licitadora deberá presentar la documentación requerida en un plazo suficiente que no podrá ser superior a 10 días hábiles, a contar desde el día siguiente al de la recepción del requerimiento. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta y será excluida del procedimiento.
20.- BI zk.ko artxibo elektronikoa: "BALIO-JUDIZIOAREN BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA"	**20.- Archivo electrónico nº DOS: "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR"**
1.- Ezaugarrien taulako **19.1 atalean** aurretik eta balio-judizio baten bitartez baloratu beharreko esleipen irizpideak jaso baldin badira, lizitatzaileak BI zenbakiko artxibo elektronikoa aurkeztu beharko du, "BALIO-JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin, horretan sartuz	1.- Si en el **apartado 19.1** del cuadro de características se han incluido criterios de adjudicación apreciables mediante juicio de valor que deban ser objeto de evaluación previa, la licitadora deberá aportar un archivo electrónico nº DOS con el título "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE

hartan eskatutako dokumentazioa.	VALOR", en el que incluya la documentación allí exigida.
2.- Artxibo horretan ez da inolaz ere sartuko HIRU zenbakiko artxibo elektronikoan behar duen dokumenturik.	2.- En ningún caso deberán incluirse en este archivo electrónico documentos propios del archivo electrónico nº TRES.
3.- Ezaugarrien Taulako 19.1. atalean (balio judizio bidezko esleipen irizpideak) ezarri bada esleipen irizpide bezala soldaten baldintzen hobekuntza, kontratistak agirien artean barneratuko du **IX. Eranskina** eta zein eratan aplikatuko dituen gauzatze baldintza berezi bezala ezarritako soldata baldintzak edo hobekuntza bezala berak eskainitakoak, langileei aplikatuko direla adierazi duen Lan Hitzarmenaren soldata taulekin alderatuta.	3.- Si en el apartado 19.1 del cuadro de características (criterios a evaluar mediante juicio de valor) se ha establecido como criterio de adjudicación la mejora de las condiciones salariales, la contratista incluirá como parte de la documentación el **Anexo IX** y la forma en que aplicará las condiciones salariales establecidas como condición especial de ejecución u ofertadas como mejora en relación con las tablas salariales del convenio que declara aplicará a los y las trabajadoras.
21.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa: "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA"	**21.- Archivo electrónico nº TRES: "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS"**
1.- "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izeneko artxibo elektronikoan, eskaintza ekonomikoa eta formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko bestelako dokumentuak jaso beharko dira.	1.- En este archivo electrónico titulado "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS", se deberán incluir la oferta económica y el resto de documentos a evaluar mediante la aplicación de fórmulas.
2.- Proposamenak **VIII. eranskinean** jasotako eredura egokitu beharko dira, eta ez da onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten hutsak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenik. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, jasanarazi behar den kasuan.	2.- Las proposiciones deberán ajustarse al modelo que figura en el **Anexo VIII,** no aceptándose aquellas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta. Las ofertas económicas de las licitadoras deberán indicar, como partida independiente, el importe del Impuesto sobre Valor Añadido que deba ser repercutido.
Bai eskaintza ekonomikoa bai artxibo elektroniko horietan jasotzen den bestelako dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko dira.	Tanto la oferta económica como el resto de documentación contenida en este archivo electrónico serán evaluadas conforme a los criterios expresados en el **apartado 19** del cuadro de características.
3.- Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzaileak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du eskaintza ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.	3.- Si alguna proposición excediese del presupuesto base de licitación, variara sustancialmente el modelo establecido, o comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte de la empresa licitadora de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la mesa de contratación, en resolución motivada. Por el contrario, el cambio u omisión de algunas palabras del modelo, con tal que lo uno o la otra no altere su sentido, no será causa bastante para el rechazo de la proposición.
4.- Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake, SPKLren 142. artikuluan aldaerak onartzeari buruz ezarritakoa eragotzi gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkartea eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta ere aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago. Printzipio hori urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.	4.- Cada licitadora no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 142 de la LCSP sobre admisibilidad de variantes. Tampoco podrá suscribir ninguna proposición en unión temporal con otras empresas si lo ha hecho individualmente o figura en más de una unión temporal. La contravención de este principio dará lugar a la desestimación de todas las ofertas presentadas simultáneamente.

5.- Proposamena enpresa elkarte batek egina denean, elkarteko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.	5.- Cuando la propuesta se formule por una agrupación de empresas, todas las que la componen habrán de firmar la propuesta directamente o mediante representante.
6.- Ezaugarrien taulako **13. atalak** aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, erreferentzia gisa oinarria hartzen duen eskaintza ekonomikoaz gain eskaintza ekonomiko bat jaso ahal izango du artxibo horrek aldaera bakoitzeko. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa, era berean, baldintza agiri honetako **VIII. eranskinean** ageri den ereduaren arabera formulatuko da, eta atal horretan adierazten diren kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.	6.- Cuando el **apartado 13** del cuadro de características autorice la presentación de variantes, además de la oferta económica referida a la base, este archivo podrá incluir una oferta económica por cada variante. La oferta económica correspondiente a cada variante se formulará, igualmente, conforme al modelo que figura en el **Anexo VIII** de este pliego, e incluirá los conceptos y condiciones señalados en ese apartado.
7.- Ezaugarrien Taulako 19.2. atalean (formula bidezko esleipen irizpideak) ezarri bada esleipen irizpide bezala soldaten baldintzen hobekuntza, kontratistak agirien artean barneratuko du **IX. Eranskina** eta zein eratan aplikatuko dituen gauzatze baldintza berezi bezala ezarritako soldata baldintzak edo hobekuntza bezala berak eskainitakoak, langileei aplikatuko diela adierazi duen Lan Hitzarmenaren soldata taulekin alderatuta.	7.- Si en el apartado 19.2 del cuadro de características (criterios a evaluar mediante fórmulas) se ha establecido como criterio de adjudicación la mejora de las condiciones salariales, la contratista incluirá como parte de la documentación el **Anexo IX** y la forma en que aplicará las condiciones salariales establecidas como condición especial de ejecución u ofertadas como mejora en relación con las tablas salariales del convenio que declara aplicará a los trabajadores.
22.- Aldaerak onartzea	**22.- Admisibilidad de variantes**
1.- Aldaerak onartzen diren kasuan, lizitatzaile bakoitzak aurkezten duen proposamen bakarrean egoki irizten dion adina aukera jaso ahal izango du, kontratuaren xedea kontuan hartuta, preskripzio teknikoen agirian finkatutako baldintza, modalitate eta baldintza teknikoekin, zeinak ezaugarrien taulako **13. atalean** laburtzen baitira. Aldaerak ezaugarrien taulako atal horretan bertan ezartzen den moduan aurkeztuko dira, eta ezingo dute kontratuaren lizitazioko oinarrizko aurrekontua gainditu.	1.- En el supuesto de admisión de variantes, la única proposición que presente cada licitadora podrá comprender cuantas soluciones distintas considere oportuno ofrecer en relación con el objeto del contrato, con los requisitos, modalidades y características técnicas fijadas en el pliego de prescripciones técnicas particulares, sintetizadas en el **apartado 13** del cuadro de características**.** Las variantes se presentarán en la forma establecida en este mismo apartado del cuadro de características y no podrán superar el presupuesto base de licitación del contrato.
2.- Nolanahi ere, derrigorrezkoa izango da enpresa lizitatzaileentzat haiei eskatutako oinarrizko zerbitzuari bakarrik eta literalki dagokion proposamen bat aurkeztea. Betiere, prestazioa betetzeko epea eta prezioa, biak, baldintza agiri honen hasierako ezaugarrien taulan jasotakoaren berdinak edo txikiagoak izan behar dira eta zehatz-mehatz bat etorriko dira lizitatzaileak aurkezten duen lan egitarauan adierazitakoekin.	2.- Será obligatoria en todo caso para las empresas licitadoras la formulación de una propuesta referida exclusiva y literalmente al servicio básico requerido, y con un plazo de ejecución de la prestación y un precio, igual o menor en ambos casos, a los recogidos en el "cuadro de características" que figura al comienzo de este pliego y deberán coincidir exactamente con los reflejados en el Programa de trabajo que presente.
23.- Proposamenak aurkeztearen ondorioak	**23.- Efectos de la presentación de proposiciones**
1.- Proposamenak aurkeztuz gero, ulertuko da enpresa lizitatzaileak goitik behera onartzen dituela baldintza agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko klausulak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio mahaia eta organoa baimentzen dituela Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatu ditzaten. Baldintza agiriak ez onartzeak eskaintza atzera botatzea ekarriko du, ezinbestean.	1.- La presentación de proposiciones presupone por parte de la empresa licitadora la aceptación incondicional de las cláusulas de este pliego y del pliego de prescripciones técnicas sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea. El no sometimiento a los pliegos implica necesariamente el rechazo de la oferta.
2.- Lizitatzaileek ezingo dute beren proposamena kendu 15	2.- Las licitadoras no podrán retirar su proposición durante el plazo

egun naturaletan, proposamenak irekitzen direnetik aurrera, esleipenduna aukeratzeko irizpide bakarra prezioa izan denean, edo bi hilabeteko epean, kontratua esleitzeko beste irizpide batzuk kontuan hartu direnean, SPKLren 158.4 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz. Epe hori 15 egun baliodunez luzatuko da, nabarmen baxutzat jotako eskaintzei dagokienez SPKLren 149. artikuluak aipatzen dituen izapideak bete behar direnean.	de 15 días naturales, a contar desde la apertura de las proposiciones, cuando el único criterio para seleccionar a la adjudicataria haya sido el precio, o durante el plazo de dos meses, cuando para la adjudicación del contrato se hayan tenido en cuenta otros criterios, conforme a lo previsto en el artículo 158.4 de la LCSP. Dicho plazo quedará ampliado en 15 días hábiles cuando sea necesario seguir los trámites a que se refiere el artículo 149 LCSP, relativo a las ofertas anormalmente bajas.
3.- Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, doloz, erruz edo zabarkeriaz jardunez gero, lizitatzaileak ezingo du Administrazio Publikoekin kontratatu, SPKLren 71.2 artikuluan xedatuarekin bat. Gainera, behin-behineko bermea konfiskatuta geratuko da, SPKLren 106.1 artikuluarekin bat, horrelako bermerik eskatu baldin bada.	3.- La retirada indebida de una proposición, si mediase dolo, culpa o negligencia, será causa que impedirá a la licitadora contratar con las Administraciones Públicas de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 71.2 de la LCSP, conllevando a su vez la incautación de la garantía provisional conforme al artículo 106.1 de la LCSP, si ésta hubiera sido exigida.
24.- Kontratazio mahaia	**24.- Mesa de contratación**
1.- Kontratazio mahaia izango da eskaintzak baloratzeko organo tekniko eskumenduna, eta jardungo du SPKLren 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta, gainera, mahaiaren osaketa eta eginkizunak garatzen dituen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 21. eta 22. artikuluetan jasotakoari jarraikiz.	1.- La mesa de contratación será el órgano técnico competente para efectuar la valoración de las ofertas y actuará conforme a lo previsto en el artículo 326 de la LCSP, y de acuerdo con los artículos 21 y 22 del Real Decreto 817/2009, 8 de mayo, que vienen a desarrollar su composición y funciones.
2.- Mahaiaren osaera eta funtzionamendua honako web orri honetan dator jasota: http://www.donostia.eus/info/Contratacion.nsf/vMesa/FF4CABDAF65AA717C1257A9B002EF1E0?OpenDocument&sf=31&id=C671670319675&idioma=eus	2.- Su composición y funcionamiento vienen establecido en la página Ayuntamiento siguiente: http://www.donostia.eus/info/Contratacion.nsf/vMesa/FF4CABDAF65AA717C1257A9B002EF1E0?OpenDocument&sf=31&id=C671670319675&idioma=cas
25.- Eskaintzak irekitzea eta aztertzea	**25.- Apertura y examen de las proposiciones**
25.1.- BAT zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea	**25.1.- Apertura de los archivos electrónicos nº UNO y calificación de la documentación administrativa**
1.- Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzaileek BAT zenbakiko artxibo elektronikoan garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak akats edo huts konpongarririk ikusten badu dokumentu aurkeztuan, alde interesdunei emango die aditzera, eta gehienez 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko. Era berean, dagoeneko aurkeztuaz gain beste zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango dio mahaiak lizitatzaileari, hori aurkezteko 5 egun naturaleko epea ematearekin batera.	1.- Concluido el plazo de presentación de proposiciones, la mesa de contratación procederá a la apertura y calificación de la documentación administrativa presentada por las licitadoras, en tiempo y forma, en el denominado archivo electrónico nº UNO. Si la mesa observase defectos u omisiones subsanables en la documentación presentada, lo comunicará a las partes interesadas, concediéndoles un plazo no superior a 3 días naturales para su corrección o subsanación. De igual forma, la mesa podrá recabar de las licitadoras la presentación de documentación complementaria o aclaratoria de la ya aportada, concediendo un plazo de 5 días naturales para su presentación.
2.- Interesdunei jakinarazpena legezko bidez emango zaie aditzera, betiere interesdunek jaso izana idatziz jasota utziz.	2.- La comunicación a las interesadas se efectuará mediante notificación por los medios legales habilitados al efecto, siempre dejando constancia de su recepción.
3.- Azkenean, kontratazio mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaile onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horietarako arrazoiak ere emanda.	3.- Finalmente, la mesa de contratación procederá a determinar las licitadoras que son admitidas a la licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo.

25.2.- BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea (BI zenbakiko artxibo elektronikoa dagoenean bakarrik)	**25.2.- Apertura y examen de los archivos electrónicos nº DOS (sólo cuando exista archivo electrónico nº DOS)**
1.- Haien aurkezpena nahitaezkoa denean, "BALIO JUDIZIO BITARTEZ BALORATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA" izenarekin identifikatutako BI zenbakiko artxibo elektronikoak irekiko dira, horien edukia ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazitako irizpideen arabera ebaluatzearren.	1.- En el caso de que su presentación fuese obligatoria, se procederá a la apertura de los archivos electrónicos nº DOS, identificados como "DOCUMENTACIÓN A VALORAR CONFORME A UN JUICIO DE VALOR", al objeto de evaluar su contenido con arreglo a los criterios expresados en el **apartado 19** del cuadro de características.
2.- Ekitaldi hori hasteko, mahaiak berariazko erabakia hartuko du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.	2.- Dicho acto se iniciará con un pronunciamiento expreso sobre la calificación de las proposiciones efectuada por la mesa que identifique las admitidas a licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo.
3.- Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten lizitatzaileak eta BI zenbakiko artxibo elektronikoetan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko dokumentazioa (HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa) sartzen dutenak.	3.- Se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas y las que incorporen en los archivos electrónicos nº DOS documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas (Archivo electrónico nº TRES).
25.3.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea	**25.3.- Apertura y examen de los archivos electrónicos nº TRES**
1.- HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak irekitzeko ekitaldiaren hasieran –BI zenbakiko artxibo elektronikorik ez dagoenean–, mahaiak berariazko erabakia hartuko du proposamenen kalifikazioari buruz, lizitaziora onartuak eta lizitaziotik kanpo utziak identifikatuz eta horretarako arrazoiak emanez.	1.- La apertura de los archivos electrónicos nº TRES se iniciará, cuando no haya archivos electrónicos nº DOS, con un pronunciamiento expreso sobre la calificación de las proposiciones efectuadas por la mesa que identifique las admitidas a licitación, las rechazadas y las causas de su rechazo.
2.- Balio judizio bitartez ebaluatzeko irizpiderik badago, ekitaldi horretan emango da ezagutzera horren emaitza.	2.- En el caso de que existan criterios objeto de evaluación mediante juicios de valor, se dará a conocer en este acto el resultado de la misma.
3.- Ondoren, kontratazio mahaiak ireki egingo ditu onartutako lizitatzaileek aurkeztutako HIRU zenbakiko artxibo elektronikoak, "FORMULEN APLIKAZIOAREN BITARTEZ EBALUATZEKO ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA DOKUMENTAZIOA" izenekoak, eta eskaintzak irakurriko ditu.	3.- Seguidamente, la mesa de contratación procederá a la apertura de los archivos electrónicos nº TRES de las licitadoras admitidas, denominados "OFERTA ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN EVALUABLE MEDIANTE LA APLICACIÓN DE FÓRMULAS", dando lectura a las ofertas.
5.- Artxibo elektroniko horietan jasotzen den dokumentazioa ezaugarrien taulako **19. atalean** adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko da.	5.- La documentación contenida en estos archivos electrónicos será evaluada conforme a los criterios expresados en el **apartado 19** del cuadro de características**.**
6.- Edonola ere, irizpide horien ebaluazioa BI zenbakiko artxibo elektronikoetan jasotako dokumentazioaren balorazioaren ondotikoa izango da beti.	6.- En todo caso, la evaluación de estos criterios será siempre posterior a la valoración de la documentación contenida en los archivos electrónicos nº DOS.
25.4.- Kontratazio mahaiaren aktak	**25.4.- Actas de la mesa de contratación**
Aurreko atalen arabera jardundako guztia jasoko da dagozkion aktetan, horiek prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko baitituzte.	De todo lo actuado conforme a los apartados anteriores, se dejará constancia en las actas correspondientes, en las que se reflejarán el resultado del procedimiento y sus incidencias.

26.- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitza argitaratzea eta lizitatzaile ukituei jakinaraztea	**26.- Publicidad del resultado de los actos de la mesa de contratación y notificación a las licitadoras afectadas**
1.- Eskaintzen kalifikazioa, onarpena edo bazterketa kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak zuzenduko zaizkie lizitatzaile ukituei.	1.- La calificación, admisión o exclusión de las ofertas se publicarán en el perfil de contratante. Se excluirá aquella información que no sea susceptible de publicación de conformidad con la legislación vigente. Todo ello, sin perjuicio de la necesaria comunicación o notificación, según proceda, a las licitadoras afectadas.
27.- Esleipen irizpideak	**27.- Criterios de adjudicación**
1.- Kontratua esleitzeko irizpideak eta haztapena, bai oinarrizko eskaintzari bai aldaera edo hobekuntzei aplikatuko zaizkienak, lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **19. atalean** ezarritakoak izango dira.	1.- Los criterios a tener en cuenta, así como su ponderación para la adjudicación del contrato, aplicables tanto a la oferta base como a las variantes o mejoras en su caso, serán los establecidos en el anuncio de licitación y en el **apartado 19** del cuadro de características.
2.- Enpresa Lizitatzaileren batek ez badu aurkezten formula aritmetikoak aplikatuta baloratzen ez diren esleipen irizpideei buruzko dokumentaziorik, enpresa horren proposamena ez da baloratuko aztertzen ari den irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira, inola ere, esleipen prozeduratik kanpo utziko arrazoi horrengatik.	2.- Si alguna empresa licitadora no aportara la documentación relativa a los criterios de adjudicación que no se valorasen por aplicación de fórmulas aritméticas la proposición de dicha empresa no será valorada respecto del criterio de que se trate. En ningún caso serán excluidas del procedimiento de adjudicación las proposiciones por este motivo.
3.- Era berean, proposamenak ez dira baloratuko, kasuan kasuko irizpideari dagokionez, baldin eta baldintza agiri honen Ezaugarrien Taulan esleipen irizpideei lotutako testu idatzietako paperaren tamainari, orri-bazterrei, letra motari eta lerroarteari buruz (alde batera utzita grafikoak, diagramak…) jarritako parametroetako edozeini kasu egin gabe aurkezten badira. Halere, parametro horiei kasu ez egiteak ez du berekin ekarriko haiek esleipen prozesutik kanpo gelditzea.	3- Asimismo, todas las proposiciones presentadas sin atender cualquiera de los parámetros establecidos en la Cuadro de Características de este pliego en cuanto al tamaño del papel, márgenes, tipo de letra e interlineado de los textos escritos (independientemente de gráficos, fotografías, diagramas...) relacionados con dichos criterios de adjudicación no serán valoradas respecto del criterio de que se trate sin que, en ningún caso, dicha inobservancia suponga su exclusión del procedimiento de adjudicación.
28.- Eskaintzak baloratzea	**28.- Valoración de las ofertas**
1.- Bere eginkizunetan aritzeko, mahaiak beharrezko iritzitako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.	1.- Para el ejercicio de sus funciones, la mesa podrá solicitar cuantos informes técnicos considere precisos, de conformidad con lo previsto en el artículo 146.2.b) de la LCSP.
2.- Eskatzen diren preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak kanpoan geratuko dira.	2.- Las propuestas que no cumplan las prescripciones técnicas exigidas serán excluidas.
3.- Ezaugarrien taulako **19. ataleko** irizpideen kasuan, balio judizioaren mendeko balorazioa dutenak haztapen osoaren % 50 baino gehiago direnean, prestakuntza egokia duen aditu batzorde batek egingo du BI zenbakiko artxibo elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa, edo organismo tekniko espezializatu batek, berariaz adieraziko baita ezaugarrien taulako esandako atalean, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko.	3.- Cuando los criterios cuya valoración dependa de un juicio de valor del **apartado 19** del cuadro de características superen el 50% del total de la ponderación, la evaluación previa del fichero electrónico nº DOS se realizará por un comité formado por personas expertas con cualificación apropiada o por un organismo técnico especializado, expresamente indicado en dicho apartado del cuadro de características y publicado en el perfil de contratante.
4.- SPKLren 132. eta 150. artikuluei jarraikiz, kontratazio-organoak LEA/AVCri jakinarazi beharko dizkio lizitazio honen esparruan ezagutu ditzakeen balizko egitate edo zantzu guztiak,	4.- En virtud de lo dispuesto en los artículos 132 y 150 de la LCSP, el órgano de contratación notificará a LEA/AVC cualesquiera hechos o indicios de los que tengan conocimiento en el marco de

lehiaren defentsaren alorreko legediaren urraketak izan badaitezke. Bereziki, akordio, erabaki edo gomendio kolektibo, edo lizitatzaileen arteko praktika itundu edo nahita paraleloa den jardueraren zantzu oro, horien helburua kontratazio-prozesuan lehia eragotzi murriztu edo faltsutzea bada edo lehia benetan eragozten, murrizten edo faltsutzen badute edo eragotzi, murriztu edo faltsutu ahal badute	la presente licitación, que puedan constituir infracción a la legislación de defensa de la competencia. En particular, cualquier indicio de acuerdo, decisión o recomendación colectiva, o práctica concertada o conscientemente paralela entre los licitadores, que tenga por objeto, produzca o pueda producir el efecto de impedir, restringir o falsear la competencia en el proceso de contratación.
29.- Eskaintzak argitzea	**29.- Aclaración de ofertas**
Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak eskaintza aurkeztuari buruzko argibideak eskatu ahal izango dizkiote lizitatzaileari, edo eskaintzaren erredakzioko akats material agerikoak zuzentzeko esan, betiere tratu berdintasunaren printzipioa errespetatuta eta eskaintzaren baldintzak aldatzeko inolako aukerarik emateke. Jardundako guztia dokumentu bidez jaso beharko da espedientean (SPKLren 95. artikulua).	El órgano de contratación o la mesa de contratación podrán solicitar a la licitadora aclaración sobre la oferta presentada o si hubiere de corregir manifiestos errores materiales en la redacción de la misma, siempre que se respete el principio de igualdad de trato y sin que puedan, en ningún caso, modificarse los términos de la oferta. De todo lo actuado deberá dejarse constancia documental en el expediente (art. 95 LCSP).
30.- Balio nabarmen baxuak dituzten eskaintzak	**30.- Ofertas con valores anormalmente bajos**
1.- Proposamen bat nabarmen baxutzat jo dela-eta betetzerik izango ez dela ulertzeko parametro objektiboak finkatu ahal izango ditu kontratazio organoak ezaugarrien taulako **19. atalean**.	1.- El órgano de contratación podrá establecer, en el **apartado 19** del cuadro de características, los parámetros objetivos, en virtud de los cuales se entenderá que la proposición no puede ser cumplida por ser considerada anormalmente baja.
2.- Anormaltasun presuntziopean dagokeen proposamen bat identifikatzen denean, kontratazio mahaiak –edo, bestela, kontratazio organoak– lizitatzaileari edo lizitatzaileei eskatu beharko die eskaintza ezohikotzat edo anormaltzat definitzea eragin duten proposameneko parametroak arrazoi bidez eta zehatz justifikatzeko eta xehakatzeko. SPKLren 149. artikuluko 4.etik 6.era bitarteko azpiataletan aurreikusitako prozedura tramitatuko du, eta, emaitza ikusirik, proposamena onartzea edo atzera botatzea proposatuko dio kontratazio organoari.	2.- Cuando se identifique una proposición que pueda estar incursa en presunción de anormalidad, la mesa de contratación o en su defecto el órgano de contratación, deberá requerir a la licitadora o licitadoras para que justifiquen y desglosen, razonada y detalladamente, los parámetros de su proposición que han definido la anormalidad de la oferta, tramitando el procedimiento previsto en los apartados 4 a 6 del artículo 149 de la LCSP y, en vista de su resultado, proponiendo al órgano de contratación su aceptación o rechazo.
31.- Prozedurako ondorengotza	**31.- Sucesión en el procedimiento**
Baldin eta, prozedura izapidetzen den bitartean eta kontratua formalizatu baino lehenago, enpresaren ondarea edo jardueraren adar bat beste zer batekin bat egin, zatikatu edo eskualdatzeko eragiketa bat gertatzen bada, sozietate xurgatzailea, bat-egitetik sortu dena, zatiketaren onuradun izan dena edo enpresaren ondarea edo dena delako jarduera adarra eskuratu duena izango da prozeduran lehengo enpresa lizitatzaile edo hautagai haren ondorengoa, betiere horretarako gaitasuna badu, kontratatzeko debekurik ez badu eta bere kaudimen eta sailkapena egiaztatzen badu, esleipen prozeduran parte hartu ahal izateari begira baldintza administratibo berezien agiri honetan eskatzen diren baldintzak beteta.	Si durante la tramitación de un procedimiento y antes de la formalización del contrato se produjese una operación de fusión, escisión, transmisión del patrimonio empresarial o de una rama de la actividad, le sucederá a la empresa licitadora o candidata en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio empresarial o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibición de contratar y acredite su solvencia y clasificación en las condiciones exigidas en el pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación.
32.- Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta esleipen prozeduran administrazioak atzera egitea	**32.- Decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y desistimiento del procedimiento de adjudicación por la Administración**
Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko eta SPKLren 152.	La decisión de no adjudicar o celebrar el contrato y el desistimiento

artikuluko baldintzetan esleipen prozeduran atzera egiteko erabakia bakar-bakarrik formalizazioaren aurretik hartu ahal izango du kontratazio organoak. Erabakia lizitatzaileei jakinarazi beharko die, eta baita Europako Batzordeari ere kontratua Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean iragarri baldin bada.	del procedimiento de adjudicación en los términos del artículo 152 de la LCSP sólo podrán acordarse por el órgano de contratación antes de la formalización, notificándolo a las licitadoras e informando también a la Comisión Europea cuando el contrato haya sido anunciado en el Diario Oficial de la Unión Europea.
33.- Esleipena	**33.- Adjudicación**
33.1.- Eskaintzen sailkapena eta esleitzeko proposamena	**33.1.- Clasificación de las ofertas y propuesta de adjudicación**
1.- Behin eskaintzak baloratu ondoren, aktarekin batera dagokion balorazioa eta kontratua esleitzeko proposamena bidaliko dizkio kontratazio mahaiak kontratazio organoari. Proposamenean, ezaugarrien taulako **19. atalean** jasotako irizpideen aplikazioz bakoitzari emandako puntuazioaren arabera beheranzko hurrenkeraz antolatuta agertuko dira eskaintzak, kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuta.	1.- Una vez valoradas las ofertas, la mesa de contratación remitirá al órgano de contratación, junto con el acta, la correspondiente valoración y la propuesta de adjudicación en la que figurarán ordenadas las ofertas de forma decreciente, incluyendo la puntuación otorgada a cada una de ellas por aplicación de los criterios indicados en el **apartado 19** del cuadro de características e identificando la que presente mejor relación calidad-precio.
Kontratua esleitzeko proposamenak ez du eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta, beraz, hark ez du eskubiderik eskuratuko Administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatzen den arte.	La propuesta de adjudicación del contrato no crea derecho alguno en favor de la licitadora propuesta, que no los adquirirá, frente a la Administración, mientras no se haya formalizado el contrato.
Kontuan hartutako irizpide bakarra prezioa denean, ulertuko da eskaintzarik onena preziorik txikiena jasotzen duena dela.	Cuando el único criterio considerado sea el precio, se entenderá que la mejor oferta es la que incorpora el precio más bajo.
2.- Ezaugarrien taulako **19. atalean** aurreikusi ez denean bi lizitatzaile edo gehiagoren arteko guztirako puntuazioko berdinketak desegiteko irizpiderik, edo irizpide horiek aurreikusi baina aplikatu ondoren berdinketak segituz gero, SPKLren 147.2 artikuluan aurreikusten diren irizpide sozialak dagokien hurrenkerari jarraikiz aplikatuta desegingo da berdinketa.	2.- Cuando no se hayan previsto en el **apartado 19** del cuadro de características criterios de desempate o cuando, previstos y aplicados, el empate persistiera entre la puntuación total de dos o más licitadoras, este se resolverá mediante la aplicación por orden de los criterios sociales previstos en el artículo 147.2 de la LCSP.
33.2.- Kalitate-prezio erlaziorik onena duen eskaintza ekonomikoa aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko justifikazio dokumentazioa aurkeztea	**33.2.- Presentación de la documentación justificativa del cumplimiento de los requisitos previos por la licitadora que haya presentado la oferta con mejor relación calidad-precio**
1.- Kontratazio organoak mahaiaren proposamena onartzen duenean, kasuan kasuko zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote kontratua esleitzeko beharrezkotzat jotako dokumentazioa aurkezteko. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango du lizitatzaileak, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.	1.- Aceptada la propuesta de la mesa por el órgano de contratación, los servicios correspondientes requerirán a la licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el siguiente a aquel en el que haya recibido el requerimiento, presente la documentación que se relaciona como necesaria para adjudicar el contrato.
Dokumentazioa honakoa izango da:	Esta documentación será la siguiente:
– **Jarduteko gaitasuna eta jarduera eremua egiaztatzen duten dokumentuak.** Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa edo aldaketa eskrituraren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, baldin eta aplikagarri zaion merkataritza legeriaren arabera inskripzio betebehar hori galdagarria bada. Aldiz, erregistroan inskribatuta egote hori galdagarria ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estatutuen edo fundazio aktaren	– **Documentos que acrediten la capacidad de obrar y su ámbito de actividad**. Si la empresa es una persona jurídica, la capacidad de obrar se acreditará mediante la presentación de escritura de constitución o modificación, debidamente inscrita en el Registro Mercantil cuando este requisito sea exigible según la legislación mercantil aplicable. Si dicho requisito no fuera exigible, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acta fundacional,

bitartez egiaztatuko da, eta dokumentu horretan jasota egongo dira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.	en el que consten las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial.
Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik esleituko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz. Hori guztia aurkezten den dokumentazioan egiaztatu beharko da.	Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto u ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios, cuestión que deberá quedar acreditada en la documentación aportada.
Enpresa pertsona bakarrekoa denean, nortasun agiria edo haren ordez balio duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.	Si la empresa fuera individual, mediante la presentación del documento nacional de identidad o documento que haga sus veces.
– **Hala dagokionean, ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak.** Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera.	– **Documentos que acrediten, en su caso, la representación.** Las personas que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra, presentarán copia del DNI, así como poder bastante al efecto.
Ordezkari horrek NANik ez badu, arauzko eran hura ordezkatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion erakunde administratiboak konpultsatua.	En caso de que la persona representante no posea DNI, deberá presentar fotocopia, legitimada notarialmente o compulsada por el órgano administrativo competente, del documento que lo sustituya reglamentariamente.
Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar du. Alabaina, egintza konkretu baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, betiere Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.	Si la empresa fuere persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil. No obstante, si se trata de un poder para un acto concreto no será necesaria la inscripción en el Registro Mercantil, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 94.1.5 del Reglamento del Registro Mercantil.
– **Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala.** Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzea SPKLren 87. eta 90. artikuluetan aurreikusi eta lizitazio iragarkian eta ezaugarrien taulako **15. atalean** zehaztutako bitartekoak erabiliz.	– **Solvencia económica- financiera y técnica o profesional.** Acreditación de su solvencia económica, financiera y técnica o profesional por alguno de los medios previstos en los artículos 87 y 90 de la LCSP y que se especifiquen en el anuncio de licitación y en el **apartado 15** del cuadro de características.
Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, horien kaudimena zehaztera begira, metatu egingo dira elkartekide bakoitzaren ezaugarriak (HAKLEOren 24.1 artikulua). Aldi baterako enpresa elkarte (ABEE) batean batuta aurkezten diren enpresen artean kolusio-zantzuren bat hautemanez gero, kontratazio-mahaiak edo -organoak eskatuko die, SPKLren 69. artikuluarekin bat, berariaz eta arrazoibideak emanez justifika dezatela elkartuta lehiatzeko arrazoiak. Eta, enpresen justifikazioa aztertu ostean, kasuren batean kolusio- zantzu sendoak hautemanez gero, LEA/AVCri eman behar zaio horren berri.	En las Uniones Temporales de Empresas, a efectos de determinación de su solvencia, se acumularán las características de cada una de las integrantes de la misma (art 24.1 del RGLCAP). Cuando se aprecien indicios de colusión entre empresas que concurran agrupadas en una unión temporal de empresas (UTE), la mesa o el Órgano de contratación requerirá a las mismas, de acuerdo con el articulo 69 de la LCSP, que justifiquen de forma expresa y motivada las razones para concurrir agrupadas. Deberá darse traslado a LEA/AVC de aquellos casos en los que, considerando la justificación efectuada por las empresas, concurran indicios fundados de colusión.
Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako	Las licitadoras no españolas que sean nacionales de

Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalak diren lizitatzaileek, Espainian sailkatu gabe daudenean, sailkapenaren ordez aurkeztu beharko dute beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duen dokumentazioa, betiere SPKLren 87 artikuluan jasotakoaren arabera eta kontratazio organoak ezaugarrien taulako **15. atalean** ezarritako bitartekoak erabilita.	Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo, caso de no hallarse clasificadas en España, deberán presentar, en sustitución de la clasificación, la documentación acreditativa de su solvencia económica y financiera y técnica en la forma establecida en los artículos 87 y 88 de la LCSP, y por los medios previstos por el órgano de contratación en el **apartado 15** del cuadro de características.
Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu kideek kontratatzeko baimena duten enpresariei buruz ezartzen dituzten zerrenda ofizialak eramateko eskumena duten organoek luzatutako inskripzio ziurtagiriak aurkeztuz gero, ziurtagiria luzatzen duen estatu kide batean establezimendua duten enpresariei buruzkoak direnean, uste izango da enpresak gaitasuna duela haietan jasotako hautapen kualitatiborako baldintzei dagokienez.	A estos efectos los certificados de inscripción expedidos por los órganos competentes de la llevanza de las listas oficiales de empresarios y empresarias autorizadas para contratar establecidas por los Estados miembros de la Unión Europea referidos a empresarios y empresarias establecidas en el Estado miembro que expide el certificado, constituirán una presunción de aptitud con respecto a los requisitos de selección cualitativa que en ellos figuren.
Era berean, berdin ulertuko da, haietan ziurtatutako alderdiei dagokienez, ziurtapen organismo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztuz gero, baldin eta horiek betetzen badituzte lizitatzaileak establezimendua duen estatu kideko legeriaren arabera luzatutako ziurtapen arau europarrak.	Igual valor presuntivo surtirán, respecto de los extremos en ellos certificados, las certificaciones emitidas por organismos de certificación competentes que respondan a las normas europeas de certificación expedidas de conformidad con la legislación del Estado miembro en que esté establecida la licitadora.
Aurreko atalean aipatutako dokumentuetan enpresaria zerrendan inskribatzea edo ziurtagiria ematea eta sailkapena lortzea ahalbidetu duten erreferentziak adierazi beharko dira.	Los documentos a que se refiere el apartado anterior deberán indicar las referencias que hayan permitido la inscripción del empresario o empresaria en la lista o la expedición de la certificación, así como la clasificación obtenida.
– **Kontratuaren xede den prestazioa emateko enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzea.** Kontratatzeko gaitasunerako baldintzatzat legez galdagarria baldin bada, kontratu honen xede den prestazioa emateko behar den enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.	– **La acreditación de la habilitación empresarial o profesional para la realización de la prestación objeto del contrato.** Si resulta legalmente exigible como condición de aptitud para contratar, deberá aportarse la documentación que acredite la correspondiente habilitación empresarial o profesional para la realización de la prestación que constituye el objeto del presente contrato.
– **Kaudimena kanpo bitartekoak erabiliz egiaztatzeko** (SPKLren 75. artikulua), frogatu egin beharko da egiaz badirela kontratua gauzatzeko pertsona eta material aldetiko bitartekoak, eta, hartarako, beste entitate horiek idatziz hartutako konpromisoa aurkeztu beharko da.	– **La acreditación de la solvencia mediante medios externos** (art.75 LCSP), exigirá demostrar que para la ejecución del contrato dispone efectivamente de esos medios humanos y materiales mediante la presentación del compromiso por escrito de dichas entidades.
Lizitatzaileak, kontratua gauzatzeko, bere kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berak erabiliko ditu. Aurreikusi ezindako arrazoiak sortu direla eta, horiek ordezkatu behar izanez gero, pareko kaudimena egiazta dezaketen beste bitarteko batzuk baliatuko ditu, betiere Administrazioak baimenduta.	La licitadora ejecutará el contrato con los mismos medios que ha aportado para acreditar su solvencia. Solo podrá sustituirlos, por causas imprevisibles, por otros medios que acrediten solvencia equivalente y con la correspondiente autorización de la Administración.
– **Lizitatzaileak azpikontratatzeko asmoa duen kontratu zatiari buruzko adierazpena.** Ezaugarrien taulako **17. atalak** hala eskatzen duenean, lizitatzaileek adierazi egin beharko dute kontratuaren zer zati azpikontratatzea aurreikusi duten, azpikontratazioaren diru zenbatekoa ehuneko gisa adierazita, lan hori egingo duten	– **Declaración relativa a la parte del contrato que la licitadora tenga previsto subcontratar.** Cuando así se exija en el **apartado 17** del cuadro de características, las licitadoras deberán indicar la parte del contrato que tengan previsto subcontratar, señalando su importe, en porcentaje, y el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a

azpikontratisten izena edo enpresa profila (kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definituta) zehaztuta (SPKLren 215. artikulua).	las condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que vaya a encomendar su realización (artículo 215 LCSP).
– **Ingurumen kudeaketako arauak eta kalitate bermearen ingurukoak** betetzea. Ezaugarrien taulako **15. atalean** horrela aurreikusten bada, han adierazten diren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu lizitatzaileak.	– Cumplimiento **de normas de gestión medio ambiental y de garantía de la calidad.** Si así se prevé en el **apartado 15** del cuadro de características, la licitadora deberá aportar los certificados allí indicados.
– **Zerga betekizunetan zein Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak.** SPKL-ko 71.1.d), 140.1.a) eta 150.2 artikuluek enpresa lizitatzaileei honako betebeharra ezartzen die: Indarrean dagoen araudiak eskatutako zerga-betebeharretan edota Gizarte Segurantzakoetan egunean izatea. Arau hau betetzen dela egiaztatze aldera, Donostiako Udalak zuzenean Herri Administrazio eskudunei eskatuko die prozedura hau ebazteko honako dokumentazioa: - Udalarekin ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. - Gipuzkoako, Bizkaiako, edo Arabako Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. - Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak. Hala ere, Zergak Gipuzkoako, Bizkaiako edo Arabako, Foru Ogasunarekiko ordaintzen ez dituzten entitateek honakoa aurkeztu beharko dute: zerga betekizunak betetzeari buruzko ziurtagiriak, eskumena duen organoak igorriak. Hau guztia urriaren 1eko 39/2015 Legeko (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena) 53.1.d) artikuluarekin adostasunean; eta baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduko (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) 6.1.c) artikuluarekin ere.	– **Certificados acreditativos de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.** Los artículos 71.1d), 140.1.a) y 150.2 de la LCSP exigen a las empresas licitadoras hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y/o de Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes A fin de acreditar su cumplimiento, el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián consultará directamente a las Administraciones Públicas competentes la siguiente información para la resolución de este procedimiento: - Certificados de estar al corriente del pago con el Ayuntamiento. - Certificados de estar al corriente del pago con la Hacienda Foral de Gipuzkoa, Bizkaia o Araba. - Certificados de estar al corriente de pago con la Seguridad Social. No obstante, las entidades que no tributen a la Hacienda Foral de Gipuzkoa, Bizkaia o Araba deberán aportar los certificados a emitir por el órgano competente sobre el cumplimiento de las obligaciones tributarias. Todo ello de acuerdo con el artículo 53.1.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; así como con el artículo 6.1.c) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos.
– 50 langile edo gehiago dituzten enpresek **berdintasun plan bat badutela justifikatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko dute, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako denak, 45. artikuluan xedatzen duenari jarraituz.	– Las empresas de 50 o más trabajadoras o trabajadores deberán presentar la d**ocumentación justificativa de contar con un plan de igualdad** en aplicación de lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley Orgánica 3 / 2007 de 22 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.
– **Langile finko desgaituen kopuruari buruzko adierazpena.** 50 langile edo gehiagoko enpresek dokumentazioa aurkeztu beharko dute, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako lanpostu kuota edo, bestela, osagarri gisa edo subsidiarioki, horren ordez har daitezkeen neurriak	– **Declaración relativa al número de personas trabajadoras fijas con discapacidad.** Las empresas de 50 o más personas trabajadoras deberán aportar la documentación acreditativa del cumplimiento de la cuota de reserva de puestos de trabajo a personas con discapacidad igual o superior al 33% o, complementaria o

betetzen dituztela egiaztatzeko, hain zuzen ere 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 29koak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duenak, zein horren garapenerako araudiak, aurreikusten dutenarekin bat.	subsidiariamente, del cumplimiento de las medidas que alternativamente puedan adoptarse, de acuerdo con lo previsto en el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de Derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, así como en la correspondiente normativa de desarrollo.
– **Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren mendeko jarduerak zertzen direnean:** urteko ekitaldiko alta, edo azken ordainagiria, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizunpeko adierazpenarekin batera eta, hala dagokionean, salbuetsita egoteari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.	– **Cuando se ejerzan actividades sujetas al Impuesto sobre Actividades Económicas**: alta referida al ejercicio corriente, o último recibo, junto con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado Impuesto y, en su caso, declaración responsable de encontrarse exento.
– **Behin betiko bermea eratzea**, kasuan-kasuan dagokiona. Honela egin ahal izango da gordailua:	– **Constitución de la garantía definitiva** que, en su caso, sea procedente**.,** Se podrá depositar del siguiente modo:
• Banku kontuaren nazioarteko zenbakia duen kodea: IBAN: ES03 2095.0611.05.1060000006 kontuan, diruzko bermeak direnean; horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.	• En la cuenta con código Internacional de Cuenta Bancaria IBAN: ES03 2095.0611.05.1060000006 cuando se trate de garantías en efectivo, debiéndose entonces incluir el correspondiente resguardo que acredite dicho depósito.
• Kontratazio organoaren aurrean, idatzoharra egindako baloreen ibilgetze ziurtagiriak, abalak edo kauzio aseguruen ziurtagiriak direnean (ikusi eredua **VII. eranskinean).**	• Ante el órgano de contratación, cuando se trate de certificados de inmovilización de valores anotados, de avales o de certificados de seguro de caución (ver modelo de aval en el **Anexo VII).**
– Pleguaren ezaugarri taulako **22. atalean** hala eskatu bada (esleipendunak Donostiako Udalaren ardura diren datu pertsonaletara sarbidea eta trataera izateagatik), datu-tratamendurako enkargu kontratua **(X. Eranskina).**	– En caso de que lo exija la **cláusula 22** de la tabla de características del pliego (por ser un contrato que implique por parte del adjudicatario el acceso y tratamiento de datos de carácter personal responsabilidad del Ayuntamiento de San Sebastián), el contrato de encargado de tratamiento de datos **(Anexo X).**
– Pleguaren ezaugarri taulako **22. atalean** hala eskatu bada (adin txikikoekin harreman zuzena dakarren kontratu bat izateagatik), esleipendun gisa proposatutako enpresak kontratua gauzatuko duten langileen izen-abizenak eta NANa aurkeztu beharko ditu (XI. eranskinaren arabera), Donostiako Udalak haien sexu-delituen ziurtagiriak kontsultatu ahal izateko, ziurtagiri horiek negatiboak direla egiaztatzeko. Interesdunek eskubidea dute jada Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua). Donostiako Udalak egiaztapen hori egiten ahalko du eskaera egiten den unean bertan, baita kontratua indarrean dagoen bitartean ere, interesdunak kontrakorik adierazten ez badu behintzat. Aurka eginez gero, beharrezkoa da oposizioaren arrazoiak justifikatzea (Europako Parlamentuaren eta	– En caso de que lo exija la **cláusula 22** de la tabla de características del pliego (por ser un contrato que implique relación directa con menores), la empresa propuesta como adjudicataria deberá presentar los nombres y apellidos y el DNI de los trabajadores que ejecutarán el contrato (Según Anexo XI), para poder consultar por parte del Ayuntamiento de San Sebastián sus certificados de delitos de naturaleza sexual, a fin de comprobar que estos son negativos. Las personas interesadas tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración. (Artículo 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas). El Ayuntamiento de San Sebastián podrá llevar a cabo esta comprobación en el momento de la solicitud como en cualquier momento durante la vigencia del contrato, salvo que la persona interesada se opusiera a ello.

Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua). Kontsultatu “Aurka egiteko eskubidea” izapidea. Donostiako Udalak datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa izango du interes publikoan egindako misio bat betetzean edo Udalari berari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1) artikuluan aurreikusitako moduan.	En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016. Consulte el trámite “Derecho de oposición”. El tratamiento de los datos de carácter personal por parte del Ayuntamiento de San Sebastián queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o el ejercicio de poderes públicos conferidos al propio Ayuntamiento, en los términos previstos en el artículo 6.1) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.
– Pleguaren ezaugarri taulako **24. atalean** asegururen bat eskatu bada, enpresak sinatu duen seguru horren kopia aurkeztu beharko du.	– En caso de que en la **cláusula 24** de la tabla de características del pliego se haya exigido algún seguro, deberá aportarse copia del seguro que la empresa haya suscrito.
– Pleguaren ezaugarri taulako **IV. Gehigarrian** zerbitzua egikaritu behar duen pertsonalari hizkuntza betekizunak eskatu bazaizkio, pleguko 38.2.3 atalean adierazitako titulu eta ziurtagiriak; hauen faltan, administrazio kontratuaren ezaugarri zehatzei erreparatuta, salbuespenez, IV. Gehigarrian aurreikusitako euskaltegiak egindako ziurtagiri edo dokumentu bidez. Salbuespenez, esleipen proposamena egiteko unean enpresak ez badu oraindik bere pertsonala zein izango den ezagutzen, geroago aurkeztu ahalko ditu, betiere kontratuaren exekuzioa hasi baino lehen bada.	– En caso de que en el **adenda IV** de la tabla de características del pliego se hayan exigido obligaciones lingüísticas en relación al personal destinado al servicio, los títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera indicados en la **cláusula 38.2.3** del pliego o, en su defecto, excepcionalmente, considerando las características concretas de este contrato administrativo, mediante certificado o documento expedido por el euskaltegi señalado en el adenda IV. Excepcionalmente, si en el momento de la propuesta de adjudicación la empresa desconoce quién va a ser su personal, podrá presentarlos en un momento posterior, aunque siempre antes de la ejecución del contrato.
2.- Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan inskribatu izanaren ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzailea salbuetsita geldituko da, hartan jasotakoaren arabera eta aurkakoa frogatu ezean, erregistroan jasotako inguruabarrei buruzko egiaztagiriak aurkeztetik.	2.- No obstante lo anterior, la presentación del certificado de inscripción en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco dispensará a la empresa licitadora, a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, de presentar los documentos acreditativos de las circunstancias cuya inscripción consta en el registro.
Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKL neurri batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.	La presentación del certificado de inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público tendrá los efectos previstos en el artículo 87.2 y 96 de la LCSP y en el 19 del Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la LCSP.
Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu.	Los certificados deberán acompañarse de una declaración responsable en la que se manifieste que las circunstancias reflejadas en el certificado no han experimentado variación.
Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko inskripzioan frogatu beharreko baldintzetako bat jasota agertzen ez denean, enpresak SPKLn ezarritako bitartekoetako bat erabiliz frogatu beharko du.	Cuando en la inscripción del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas no conste alguno de los requisitos que deba acreditar, la empresa deberá justificarlos por alguno de los medios previstos en la LCSP.
Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa	Cuando la empresa esté inscrita en el Registro Oficial de

Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean agertzen denean, enpresaren espediente birtual moduan, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema baten moduan edo aurrekalifikazio sistema baten moduan, eta organo horiek haietan doan sartu daitezkeenean, enpresak ez du aurkeztu beharko toki horietan inskribatutako datuak egiaztatzen dituzten dokumentuak edo bestelako froga dokumentalik. Izan ere, lizitatzaileak bakarrik adierazi beharko du, espresuki, dena delako erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela.	Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligada a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares, siendo únicamente necesario la manifestación expresa por parte de la licitadora de su inscripción en el Registro o base de datos correspondiente.
3.- Aurreko bi ataletako dokumentazio guztia eta ezarritako epearen barnean behar bezala aurkezten ez bada, ulertuko da lizitatzaileak atzera egin duela bere eskaintzan. Horrenbestez, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan; diru kopuru hori jasotzeko, behin-behineko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan. Gertakari horrek kontratatzeko debekurako espedientearen irekiera dakar. Espediente hori arauzko eran ezartzen den prozeduraren bidez izapidetuko da. SPKLko 72.3 artikuluarekin adostasunean, kontratatzeko debekuaren aitorpena kontratazio organoaren eskumena da, eta kontratatzeko debekuaren epea gehienez hiru urte izango da (72.6 art.).	3.- De no cumplimentarse adecuadamente, y en el plazo establecido, la presentación de la documentación referida en los dos apartados anteriores, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía provisional, si se hubiera constituido. La comisión de esta circunstancia conllevará la correspondiente apertura de expediente para la declaración de la prohibición de contratar que se sustanciará por los trámites del procedimiento que reglamentariamente se establezca. De conformidad con el art. 72.3 de la LCSP, la declaración de la prohibición para contratar corresponde al órgano de contratación y el plazo de duración de la prohibición puede extenderse hasta tres años (Art. 72.6).
Aurreko paragrafoan aipatutako kasuan, eskaintzen sailkapenean hurrengo den lizitatzaileari dokumentazio berbera eskatuko zaio (SPKLren 150.2 artikulua).	En el supuesto señalado en el párrafo anterior se procederá a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas (art. 150.2 LCSP).
4.- Klausula honetan adierazia emandako epearen barnean betetzen ez duen lizitatzaileari, doloa, errua edo zabarkeria tartean direla jardun baldin badu, kontratatzeko debekua ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2 a) artikuluan aurreikusiaren arabera.	4.- La licitadora que no cumplimente lo establecido en esta cláusula dentro del plazo señalado mediando dolo, culpa o negligencia podrá ser declarada en prohibición de contratar según lo previsto en el artículo 71.2 a) de la LCSP.
33.3.- Behin betiko bermea	**33.3.- Garantía definitiva**
1.- SPKLren 145. artikuluaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu beharko du, eta kontratazio organoaren eskura jarri. Bermea lizitatzaileak eskainitako amaierako prezioaren 100eko 5 izango da, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita. Berme horren eraketa 10 egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLren 150.2 artikuluan aipatutako errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera.	1.- La licitadora que presente la mejor oferta de conformidad con lo dispuesto en el artículo 145 de la LCSP, deberá constituir a disposición del órgano de contratación una garantía definitiva. Su cuantía será igual al 5 por 100 del importe del precio final ofertado por la licitadora, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido. La constitución de esta garantía deberá ser acreditada en el plazo de diez días hábiles a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento del artículo 150.2 LCSP.
2.- Ezaugarrien taulako **18. atalean** jasotzen den behin betiko bermea SPKLren 108. artikuluan eta HAKLEOren 55. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten den moduetako edozeinetan eratu ahal izango da. Eskakizun hori esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, Administrazioak ez du haren aldeko esleipenik egingo.	2.- La garantía definitiva que figura en el **apartado 18** del cuadro de características podrá constituirse en cualquiera de las formas previstas en los artículos 108 de la LCSP y 55 y siguientes del RGLCAP. De no cumplirse este requisito por causas imputables a la empresa adjudicataria, la Administración no efectuará la adjudicación a su favor.
3.- Aipatutako ezaugarrien taulako atalean hala aurreikusten	3.- Si así se prevé en el citado apartado del cuadro de

bada, prezioko atxikipen bitartez eratu ahal izango da.	características, podrá constituirse mediante retención en el precio.
Prezioko atxikipen bitartez eratuz gero, behin betiko bermea kontratistari jasanaraziko zaio, aurrez berariaz emandako baimenarekin, eta horren kopurua lehen fakturatik eta hurrengoetatik kentzen joango zaio, harik eta kopurua osatzen den arte.	En caso de constituirse mediante retención en el precio, la garantía definitiva será repercutida a la contratista, previa autorización expresa, deduciéndose su importe de la primera factura y sucesivas hasta alcanzar la totalidad de la misma.
4.- Kontratistari eska dakizkiokeen zehapenak edo kalte-ordainak bermearen bitartez gauzatzen badira, kontratistak berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa dagokion kopuruz handitu, haiek gauzatzen direnetik 15 egun naturaleko epean; horrela ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.	4.- En caso de que se hagan efectivas sobre esta garantía las penalidades o indemnizaciones exigibles a la contratista, esta deberá reponer o ampliar aquella en la cuantía que corresponda en el plazo de 15 días naturales desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución.
5.- Kontratuan izandako aldaketaren bat dela eta kontratuaren prezioa ere aldatzen bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia lizitatzaileari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasi eta 15 egun naturaleko epean, hain zuzen, prezio berriarekiko proportzioa mantendu dezan.	5.- Cuando como consecuencia de una modificación del contrato experimente variación su precio, deberá reajustarse la garantía en el plazo de 15 días naturales contados desde la fecha en que se notifique a la adjudicataria el acuerdo de modificación, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado.
6.- Nolanahi ere, behin betiko bermea SPKLren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuei erantzuteko erabiliko da. Kontzeptu horien barruan sartuta dago kontratistak ez betetzea kontratuari lotutako prestazioak oker betetzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko obligazioa, SPKLren 196. artikuluan jasota dagoena.	6.- En todo caso, la garantía definitiva responderá de los conceptos a que se refiere el artículo 110 LCSP. Dentro de dichos conceptos se incluye el incumplimiento por parte de la contratista de la obligación de indemnizar los daños y perjuicios ocasionados a terceras personas como consecuencia de la incorrecta ejecución de las prestaciones objeto del contrato, prevista en el artículo 196 LCSP.
7.- Behin-behineko bermea eratzen denean, esleipendunak aukeran izango du behin-behineko bermearen zenbatekoa behin betiko bermeari aplikatzea edo azken hori berriro eratzea.	7.- En aquellos supuestos en los que se constituya garantía provisional la adjudicataria potestativamente podrá aplicar el importe de la garantía provisional a la definitiva, o proceder a la nueva constitución de esta última.
8.- Berme osagarria SPKLren 107.2 artikuluan jasotakoaren arabera ezarriko da, eta, hala badagokio, ezaugarrien taulako **18. atalean** xedatutakoari jarraituko zaio.	8.- La garantía complementaria se establecerá de conformidad con lo previsto en el artículo 107.2 LCSP, y se estará, en su caso, a lo dispuesto en el **apartado 18** del cuadro de características.
33.4.- Esleipena	**33.4.- Adjudicación**
1.- Kontratazio organoak kontratua esleitu beharko du **33.2 klausulak** aipatzen duen dokumentazioa jaso eta hurrengo 5 egun baliodunen barruan.	1.- El órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los 5 días hábiles siguientes a la recepción de la documentación a la que se refiere la **cláusula 33.2.**
Ezingo da utzi esleitu gabe lizitazio bat, baldin eta baldintza agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.	No podrá declararse desierta una licitación cuando exista alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en el pliego.
2.- Esleipenaren ebazpena arrazoitua izan beharko da eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratuta egon beharko da 15 eguneko epean.	2.- La resolución de adjudicación deberá ser motivada y se notificará a las empresas candidatas y licitadoras, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de 15 días.
3.- Aurreko atalak aipatzen dituen jakinarazpenak eta publizitateak beharrezko informazioa jasoko dute, eta bereziki SPKLren 151.2 artikuluak eskatutakoa, hain zuzen esleipen prozeduran interesa duten pertsonek behar besteko oinarriarekin errekurtsoak jarri ahal izan ditzaten esleipen	3.- La notificación y la publicidad a que se refiere el apartado anterior contendrá la información necesaria que permita a las personas interesadas en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la decisión de adjudicación, y en particular la exigida por el artículo 151.2 de la

erabakiaren kontra.	LCSP.
4.- Esleipenaren motibazioan 155.3 artikuluan jasotako isilpekotasun salbuespena aplikatu beharko da.	4.- Será de aplicación a la motivación de la adjudicación la excepción de confidencialidad contenida en el artículo 155.3 de la LCSP.
5.- Edonola ere, kontratua zer epetan formalizatu behar den adieraziko da bai jakinarazpenean bai kontratatzailearen profilean, SPKLren 153. artikuluak xedatzen duenarekin bat.	5.- En todo caso, en la notificación y en el perfil del contratante se indicará el plazo en que debe procederse a su formalización conforme a lo dispuesto en el artículo 153 de la LCSP.
34.- Kontratua formalizatzea	**34.- Formalización del contrato**
1.- Kontratua administrazio dokumentuan formalizatu beharko da. Dokumentu hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie estu-estu, eta behar besteko titulua izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortzen dituen gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo da inola ere sartu esleipen irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.	1.- El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, la contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso, se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.
2.- Kontratua formalizazioaz burutzen da eta, horrenbestez, ezin izango da inolaz ere kontratua gauzatzen hasi, aurrez formalizatzeke.	2.- El contrato se perfecciona con su formalización y en ningún caso podrá iniciarse la ejecución del contrato sin su previa formalización.
3.- Kontratua sinatu aurretik, esleipenduna ordezkatzen duen pertsonak honakoak aurkeztu beharko dizkio kontratazio organoari:	3.- Previamente a la firma del contrato, la persona representante de la adjudicataria deberá presentar ante el órgano de contratación:
a) Bere identitatea eta ordezkaritza egiaztatzen dituzten dokumentuak.	a) Los documentos que acrediten su identidad y representación.
b) Esleipenduna aldi baterako enpresa elkartea baldin bada, elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkarteari eman zaion IFK eta ahalorde nahikoz hornitutako ordezkaria izango den pertsonaren izendapena.	b) Si el adjudicatario fuera una Unión Temporal de Empresas, escritura pública de su constitución, CIF asignado y nombramiento de la persona representante con poder suficiente.
c) Baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak edo estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroak emandako ziurtagiria aurkeztu bada, esleipendunak berretsi egin beharko du ziurtagiria ematea eragin zuten ezaugarriak oraindik ere badituela.	c) Si se hubiese presentado certificado expedido por el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma del País Vasco o del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado, la adjudicataria deberá reiterar la vigencia de las circunstancias que motivaron su expedición.
4.- Kontratua kontratazio arloko errekurtso berezia jartzeko modukoa bada, ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita 15 egun balioduneko epea igaro baino lehen.	4.- Si el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran 15 días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las licitadoras.
Kontratazio organoak esleipendunari eskatuko dio, aurreko lerrokadan aurreikusitako epea igarotakoan eta, betiere, epe horretan, kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri ez bada, formaliza dezala kontratua, gehienez ere 5 egun naturaleko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Berdin jokatuko du, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.	El órgano de contratación requerirá a la adjudicataria para que formalice el contrato en plazo no superior a 5 días naturales a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión.

5.- Bestelako kasuetan, kontratuaren formalizaziorako gehienezko epea 15 egun baliodunekoa izango da, esleipendunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.	5.- En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse en el plazo máximo de 15 días hábiles contados desde el siguiente al de la recepción por la adjudicataria de la notificación de la adjudicación.
6.- Kontratuaren edukian espresuki jaso beharko dira esleipendunak proposamen teknikoan, eta alderdi sozialen eta ingurumenekoen gaineko esleipen irizpideen aldetik baloratutako alderdiei dagokienez, bere gain hartutako obligazioak.	6.- Deberán incorporarse expresamente al contenido del contrato las obligaciones que asuma la adjudicataria en su propuesta técnica con relación a los aspectos valorados como criterios de adjudicación relativos a aspectos sociales y medioambientales.
7.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan; kopuru hori jasotzeko, behin betiko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratu den kasuetan. Horretaz gain, kontratatzeko debekua ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.	7.- Cuando por causas imputables a la adjudicataria no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de que pueda ser declarado incurso en prohibición de contratar, según lo previsto en el artículo 71.2.b) de la LCSP.
8.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzak eragindako kalteen ordaina emango zaio kontratistari.	8.- Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará a la contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.
9.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.	9.- De la formalización del contrato se dará publicidad según lo dispuesto en el artículo 154 de la LCSP.
III. KAPITULUA - KONTRATUA GAUZATZEA	**CAPÍTULO III - EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
35.- Kontratuaren arduraduna	**35.- Responsable del contrato**
1.- Kontratazio organoak, kontratua esleitzeko ebazpenean, kontratuaren pertsona arduraduna izendatuko du. Pertsona horren eginkizuna izango da kontratua gauzatzen dela ikuskatzea eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak ematea, hitzartutako prestazioa behar den moduan eta egoki gauzatuko dela ziurtatzearren.	1.- El órgano de contratación designará en la resolución de adjudicación del contrato a una persona responsable del contrato, a la que corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada.
Era berean, kontratuaren arduradun izango den pertsonak laguntzaileak eduki ahal izango ditu, titulu profesional edo jakintza espezifikoen arabera. Laguntzaile horiek kontratua esleitzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira halaber.	Asimismo, la persona responsable del contrato podrá contar con personas colaboradoras, en función de títulos profesionales o conocimientos específicos, que serán identificadas en la misma resolución de adjudicación del contrato.
2.- Kontratuaren arduraduna izango da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.	2.- La persona responsable del contrato es la persona interlocutora entre la empresa adjudicataria y el órgano de contratación.
3.- Bere eginkizunak garatu ahal izateko, arduradunak eta laguntzaileak libre sartu ahal izango dira kontratuaren xede den prestazioa garatzen den lekuetara, eta egoki iritzitako ikuskapen guztiak egin ahal izango dituzte, kontratistak koordinatzaile izendatzen duen pertsonak lagunduta, betiere kokaleku horiek eta haien baldintza teknikoak kontratuaren xede diren prestazioak garatzeko erabakigarriak badira. Kasu horietan, kontratuaren arduradunak lekuetara sartzeko beharra justifikatu beharko du, espresuki eta espediente administratiboan zehaztuta; espediente hori kontratazio organoak berretsi	3.- Para el ejercicio de sus funciones, la persona responsable y quienes colaboren con ella tendrán libre acceso a los lugares de prestación del objeto del contrato, y podrán realizar las inspecciones que consideren oportunas acompañadas por la persona designada por la contratista como coordinadora, siempre que dichos emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato. En estos casos, la persona responsable del contrato deberá justificar la necesidad del acceso, de forma expresa y detallada en el expediente administrativo, que deberá ser

beharko du aurretik.	ratificado, previamente, por el órgano de contratación.
Era berean, egoki deritzoten informazio eta dokumentazioa eskatu ahal izango dute, eta kontratuaren xedea behar bezala betetzeko beharrezko bilerak sustatu eta deitu, betetze horretako edozein gorabehera bideratu ahal izatearren.	Asimismo, podrán solicitar la información y documentación que estimen oportuna y promover y convocar las reuniones que resulten necesarias para la adecuada ejecución del objeto del contrato y para solucionar cualquier incidente en su ejecución.
Kontratuaren arduradunak ezarriko ditu jarraibideak.	La persona responsable del contrato establecerá las directrices oportunas.
4.- Zehazki, honako eginkizun hauek dagozkio:	4.- En particular, le corresponden las siguientes funciones:
a) Kontratua gauzatzeko lanak kontratuan bertan jasotako baldintzetan eta aurreikusitako epean betetzen ari direla egiaztatzea. Bereziki, beharrezko ekintzak zertzea, jarduera horrek kontratuaren kalitate eskakizunak eta klausula sozialak, ingurumenekoak eta berritzaileak betetzen ote dituen egiaztatzeko.	a) Comprobar que la ejecución se desarrolla en los términos del contrato, y en el plazo de duración previsto. En especial, llevar a cabo las acciones necesarias para verificar si se cumplen los requisitos de calidad del contrato y las cláusulas sociales, medioambientales, de tipo social e innovadoras.
b) Kontratazio organoari aditzera ematea edozein motatako ez-betetzeak eta, hala dagokionean, proposamena egitea zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko, kontratua behar bezala gauzatzea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko edo administrazioari enpresa kontratistaren ez-betetzeak eragiten dizkion kalteengatiko ordaina emateko prozedura abiatzeko.	b) Informar al órgano de contratación sobre los incumplimientos de cualquier clase y, cuando corresponda, proponer el inicio del procedimiento de imposición de penalidades, la suspensión del contrato, la resolución del contrato y la adopción de cuantas medidas sean necesarias para garantizar el correcto cumplimiento del contrato o para resarcir a la Administración de los daños y perjuicios que provoque el incumplimiento de la empresa contratista.
c) Kontratuan egin beharreko aldaketa oro egiteko gomendioa egitea; esaterako, jardun eraginkorragoak eman ditzaketen zehaztapen, jarraibide edo bestelako betebeharrak.	c) Recomendar cualquier cambio necesario en el contrato, como especificaciones, instrucciones u otros requisitos que proporcionen operaciones más eficaces.
d) Kontratuari atxikitako pertsona zein material aldetiko aldaketak baimentzea, betiere kontratazio organoak emandako jarraibideen ildotik, kontratuaren aldaketarik ez dakarten kasuetan.	d) Autorizar, siguiendo las instrucciones del órgano de contratación, la alteración de medios humanos o materiales adscritos al contrato en aquellos supuestos que no supongan modificación del mismo.
e) Luzapenen behar eta egokitasunari buruzko txostena ematea eta horiek arrazoitzea.	e) Informar y motivar la necesidad y procedencia de prórrogas.
f) Enpresa kontratistak azpikontratista edo hornitzaileekiko dituen ordainketa obligazioak betetzen dituela egiaztatzea.	f) Comprobar que la empresa contratista cumple con su obligación de pago a las subcontratistas o suministradoras.
5.- Kontratua gauzatu bitartean aldatzen badira kontratuaren arduraduna edo laguntzaileak, enpresa kontratistari horren berri emango zaio, idatziz, kontratatzailearen profilean argitaratzearekin batera.	5.- Si durante la ejecución del contrato se modificara la persona responsable del contrato o las personas colaboradoras, será puesto en conocimiento de la empresa contratista por escrito y publicado en el perfil del contratante.
36.- Kontratistaren ondorengotza	**36.- Sucesión en la persona de la contratista**
1.- Enpresen edo haien jarduera adarren batzea, zatiketa, ekarpen edo eskualdatzea gertatuz gero, kontratuak jarraitu egingo du kontratua esleitzen zaion entitatearekin, hori	1.- En los casos de fusión, escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas continuará el contrato con la entidad a la que se atribuye el contrato, que

subrogatu egingo baita kontratuari darizkion eskubide eta obligazioetan, betiere SPKLren 98. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzen badira. Kontratista enpresen aldi baterako elkarte bat denean, SPKLren 69.8 atalean araututakoari jarraituko zaio.	quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, si se cumplen las condiciones exigidas en el artículo 98 de la LCSP. Cuando la contratista sea una unión temporal de empresas se estará a lo establecido en el artículo 69.8 de la LCSP.
2.- Kontratistaren betebeharra da administrazioari era frogagarrian jakinaraztea nortasun juridikoari eragiten dion aldaketa oro. Horrelakoetan eten egingo da kasuan kasuko fakturak ordaintzeko legez aurreikusten diren epeen konputua, harik eta aldaketak egiaztatzen diren arte.	2.- Es obligación de la contratista comunicar fehacientemente a la Administración cualquier cambio que afecte a su personalidad jurídica, suspendiéndose el cómputo de los plazos legalmente previstos para el abono de las facturas correspondientes hasta que se verifiquen los mismos.
3. Subrogazioa ezinezkoa bada kontratua eskuratuko duen entitateak beharrezkoak diren kaudimen eta gaitasun baldintzak betetzen ez dituelako, kontratua suntsiarazi egingo da, eta esleipendunaren erruz suntsiarazi dela joko da ondorio guztietarako.	3.- Si no pudiese producirse la subrogación por no reunir la entidad a la que se atribuya el contrato las condiciones de solvencia necesarias, se resolverá el contrato considerándose a todos los efectos como un supuesto de resolución por culpa de la adjudicataria.
37.- Kontratua besteri lagatzea eta Azpikontratazioa.	**37.- Cesión del contrato y Subcontratación.**
1.- Kontratuari darizkion eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio pertsona edo enpresa esleipendunak, betiere lagapen hartzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan ez badira eta lagapenak merkatuko lehiaren egiazko murrizketa eragiten ez badu.	1.- Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por la persona o empresa adjudicataria a una tercera persona siempre que sus cualidades técnicas o personales no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado.
2.- Kontratistak bere eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izan diezazkion, baldintza hauek bete beharko dira:	2.- Para que la contratista pueda ceder sus derechos y obligaciones a terceras personas deberán cumplirse los siguientes requisitos:
• Kontratazio organoak lagapena egiteko baimena berariaz eta aurretik ematea. Baimen hori beti emango da ondoko baldintzak betez gero.	• Que el órgano de contratación autorice expresamente y con carácter previo la cesión. Dicha autorización se otorgará siempre que se den los requisitos previstos a continuación.
• Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez % 20 betea izatea.	• Que la cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato.
• Lagapena hartzen duen enpresak kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratua gauzatzeko fasearen arabera eskatzen zaion kaudimena izatea. Gainera, behar bezala sailkatuta egon behar du, baldin eta lagatzaileari ere baldintza hori ezarri bazaio, eta horri ez dio eragin behar kontratatzeko inolako debekuk.	• Que la empresa cesionaria tenga capacidad para contratar y la solvencia que resulte exigible en función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar debidamente clasificada si tal requisito ha sido exigido a la cedente, y no estar incurso en una causa de prohibición de contratar.
• Enpresa esleipendunaren eta enpresa lagapen hartzailearen arteko lagapena eskritura publiko bitartez formalizatzea.	• Que la cesión se formalice, entre la empresa adjudicataria y la empresa cesionaria, en escritura pública.
3.- Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.	3.- La cesionaria quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones que corresponderían a la cedente.
4.- Azpikontratazio kasuetan, ondorengo baldintza hauek bete beharko dira:	4.- La subcontratación quedará sometida al cumplimiento de los siguientes requisitos:
5.- Enpresa kontratistak prestazioa modu partzialean egitea	5.- La empresa contratista podrá concertar con terceras partes la

ados dezake hirugarren aldeekin. Azpikontratu horiek burutzean SPKL Legearen 215. artikuluko 2. atalean ezarritakoaren arabera eskagarri diren betekizunak bete beharko dira. Era berean, SPKLren 202. artikuluaren 1. zenbakiaren azken paragrafoan aipatzen den betebeharraren mende egongo dira, hau da, datu pertsonalen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egongo dira, bereziki 3/2018 Lege Organikora eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrera.	realización parcial de la prestación. La celebración de los subcontratos estará sometida al cumplimiento de los requisitos exigibles de conformidad con el apartado 2 del artículo 215 de la LCSP. Igualmente, quedarán sometidos a la obligación a que hace referencia el último párrafo del apartado 1 del artículo 202 de la LCSP referida al sometimiento a la normativa nacional y de la Unión Europea en materia de protección de datos personales, en particular, el Reglamento General de Protección de Datos y la Ley Orgánica 3/2018.
6.- Ezaugarrien taulako **15. atalean** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.	6.- Las tareas críticas que se indican en el **apartado 15** del cuadro de características no pueden ser objeto de subcontratación, debiendo ser ejecutadas directamente por la contratista principal.
7.- Enpresa azpikontratistak soilik enpresa kontratista nagusiaren mende geratuko dira. Horrenbestez, azken hori izango da kontratua gauzatzearen gaineko erantzukizun osoa hartuko duena administrazioaren aurrean, gizarte edo lan arloko betebeharrak betetzeari dagokionean ere bai (zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 6. artikulua).	7.- Las empresas subcontratistas quedarán obligadas sólo ante la empresa contratista principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral (artículo 6 de la Ley 3/2016, de 7 de abril, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación pública).
8.- SPKL Legearen 215.2. artikuluan ezarritako betebeharrak bete ezean, artikulu bereko 3. eta 4. ataletan xedatutakoa aplikatuko da.	8.- En caso de incumplimiento de las obligaciones establecidas en el artículo 215.2 de la LCSP será de aplicación lo dispuesto en los apartados 3 y 4 del mismo artículo.
9.- Enpresa kontratistak enpresa azpikontratistei egin beharreko ordainketetan SPKL Legearen 216. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.	9.- Los pagos que la empresa contratista realice a las empresas subcontratistas deberán ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 de la LCSP.
10.- Kontratistak inola ere ezingo du hitzartu kontratuaren zati bat egitea lege ordenamenduaren arabera kontratatzeko ezgaituta dauden pertsonekin edo Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 71. artikuluan jasotako kasuetan daudenekin.	10.- En ningún caso podrá concertarse por la empresa contratista la ejecución parcial del contrato con personas inhabilitadas para contratar de acuerdo con el ordenamiento jurídico, o comprendidas en alguno de los supuestos del artículo 71 de la LCSP.
11.- Enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri emango die langileen ordezkariei, lan arloko legeriak agintzen duen bezala.	11.- La empresa contratista deberá informar a las y los representantes del personal adscrito a la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.
12.- Enpresa edo erakunde esleipendunak kontratazio organoari aurkeztu beharko dio azpikontratuaren dokumentua, eta dokumentu horretan ezarriko dira enpresa edo erakunde azpikontratistak kontratua gauzatzeko dituen betebeharrak eta horiek ez betetzeak ekarriko dituen ondorioak.	12.- La empresa o entidad adjudicataria deberá presentar ante el órgano de contratación el documento en el que se plasmará el subcontrato, que deberá establecer las obligaciones de la empresa o entidad subcontratista con relación a las cláusulas previstas en el presente contrato y las consecuencias de su incumplimiento.
38.- Kontratua gauzatzeko baldintzak eta betebeharrak	**38.- Condiciones y obligaciones de ejecución**
38.1.- Baldintza orokorrak	**38.1.- Condiciones generales**
1.- Kontratua gauzatzeko zehatz-mehatz segituko dira baldintza agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian jasotako klausulak, eta interpretatzeko unean jarraitu egin beharko dira kontratuaren arduradunak kontratistari emandako jarraibideak.	1.- El contrato se ejecutará con estricta sujeción a las cláusulas estipuladas en este pliego, al pliego de prescripciones técnicas y de acuerdo a las instrucciones que para su interpretación, diera a la contratista la persona responsable del contrato.
2.- Esleipendunaren erantzukizuna izango da zerbitzuaren xede diren prestazioen kalitatea, bai eta kontratua gauzatzerakoan	2.- La adjudicataria será responsable de la calidad de las prestaciones objeto de servicio, así como de las consecuencias

administrazioarentzat edo hirugarren pertsonentzat huts, akats, metodo desegoki edo emaitza okerretatik sortzen diren ondorioak ere.	que se deduzcan para la Administración o para terceras personas de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.
3.- Pertsona edo enpresa kontratistak lantalde eta langile egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta lanen martxak noiznahi sortzen dituen premiei behar bezala erantzun. Bere eskaintzan aipatutako bitarteko teknikoak ere jarriko ditu eta, oro har, lanak ondo egiteko behar diren guztiak.	3.- La persona o empresa contratista deberá prestar el servicio con el equipo y medios personales adecuados, respondiendo en todo momento a las necesidades que se deriven de la marcha de los trabajos. Aportará también los medios técnicos incluidos en su propuesta y, en general, cuantos se precisen para la buena ejecución de los trabajos.
4.- Nolanahi ere, kontratistak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du, balizko kalteen erantzukizuna estaltzeko. Enpresa esleipendunak aseguru kontratu horren kopia aurkeztu beharko du, bai eta kontratu hori sinatu aurretik ordaindutako azken ordainagiriaren kopia ere. Gainera, baldin eta ezaugarrien taulako **24. atalean** hala jasotzen bada, aipatutako estaldurak aseguratu eta han zehaztutako aseguru osagarriak izan beharko ditu.	4.- La persona o empresa contratista deberá disponer en cualquier caso de un seguro de responsabilidad civil que cubra su posible responsabilidad por daños. La empresa adjudicataria deberá aportar copia de dicho contrato, así como copia del último recibo abonado con carácter previo a la firma del contrato. Además, si así se establece en el **apartado 24** del cuadro de características deberá asegurar las coberturas indicadas y disponer de los seguros adicionales que se especifican.
Nolanahi ere, kontratistak ordainduko ditu kalte-galerak, aseguru polizetako mugak gainditzen dituen zatian eta polizek estali gabeko ondasunetan eta arriskuetan.	En todo caso, serán soportados por el contratista los daños y perjuicios en lo que superen los límites que se establezcan en las pólizas de seguro; así como en los bienes y riesgos no cubiertos por las mismas.
5.- Administrazioaren ardura izango da kontratistak prestazioa ondo gauzatu ote duen erabakitzea, hau da, kontratua gauzatzeko eta betetzeko jarritako baldintzak bete ote dituen erabakitzea, eta, beharrezkoa bada, bere ardura izango da kontratatutako prestazioak gauza daitezen galdatzea eta, prestazioak jaso dituenean akatsik ikusi badu, akatsak zuzen daitezen eskatzea. Baldin eta egindako lanak ez badira egokitzen kontratupeko prestaziora kontratistari egoztekoak diren akats edo hutsen ondorioz, prestazioari uko egin ahal izango dio, eta salbuetsita geldituko da hari ordaintzeko betebeharretik edo, hala badagokio, eskubidea izango du hari ordaindutako prezioa berreskuratzeko.	5.- La Administración determinará si la prestación realizada por el contratista se ajusta a las prescripciones establecidas para su ejecución y cumplimiento, requiriendo, en su caso, la realización de las prestaciones contratadas y la subsanación de los defectos observados con ocasión de su recepción. Si los trabajos efectuados no se adecuan a la prestación contratada, como consecuencia de vicios o defectos imputables al contratista, podrá rechazar la misma quedando exento de la obligación de pago o teniendo derecho, en su caso, a la recuperación del precio satisfecho.
6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek borondatez onartzen dute lizitatze, esleitze eta gauzatze prozesuetatik eratorritako datu guztiei gardentasuna ematea.	6.- Las empresas que concurran a la licitación aceptan voluntariamente dar transparencia institucional a todos los datos derivados de los procesos de licitación, adjudicación y ejecución.
38.2.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak	**38.2.- Condiciones especiales de ejecución del contrato**
Ezaugarrien taulako **20. atalean** aurreikusiez gain, gauzatze uneko obligazio bereziak dira honakoak:	Además de las previstas en el **apartado 20** del cuadro de características, son obligaciones especiales de ejecución las que se detallan a continuación:
38.2.1- Lan eta gizarte arloko baldintzak eta ingurumenaren babesaren arlokoak.	**38.2.1.- Condiciones laborales, sociales y de protección del medio ambiente.**
1.- Kontratistak adierazi beharko du 1. zenbakiko fitxategi elektronikoan zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xedearen jarduera egiten duen langileei. Enpresa esleipendunak adierazitako hitzarmen kolektibo horren gaineko informazioa esleipen erabakian sartuko da eta	1.- La contratista deberá indicar en el fichero electrónico nº 1 el convenio colectivo que será de aplicación al personal que realice la actividad objeto del contrato. La información sobre el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declare aplicable al personal que realice la actividad objeto del contrato se incluirá en

kontratatzaile profilean argitaratuko da.	la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.
2.- Kontratistak bete beharko ditu, kontratua gauzatzen den bitarte osoan, ezaugarrien taulako 20. atalean adierazitako lansariei buruzko baldintzak, langile bakoitzari dagokion lanbide kategoriaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata ez da inola ere izango han adierazitakoa baino baxuagoa. Kontratista behartuta dago gai horren inguruan eskatzen zaion informazio edo dokumentazio guztia kontratazio organoari ematera.	2.- La contratista deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato cumplir con las condiciones salariales señaladas en el apartado 20 del cuadro de características, según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel. La contratista vendrá obligada a facilitar al órgano de contratación cualquier información o documentación que le sea requerida para acreditar este extremo.
3.- Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak gizarte segurantzan izena eta alta emanda daudela.	3.- En caso de subcontratación, la empresa subcontratista deberá igualmente cumplir con lo dispuesto en esta cláusula. La empresa contratista comprobará, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y el alta en la seguridad social de los trabajadores y las trabajadoras de las empresas con las cuales subcontrante.
4.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.	4.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada a asumir las consecuencias económicas que de aquel se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.
5.- Atal honetan ezarritakoa, SPKLren 211 f) atalean agertutako ondorioetarako, gauzatzeko baldintza berezi bezala eta funtsezko betebehar bezala ezartzen da. Hura ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekarri ahal izango du, erakunde kontrataziogileak hala erabakitzen badu.	5.- Lo dispuesto en el presente apartado tiene el carácter de condición especial de ejecución y obligación esencial a los efectos previstos en el artículo 211 f) de la LCSP, siendo por tanto cualquier incumplimiento de la misma causa de resolución del contrato, a voluntad de la entidad contratante.
38.2.2.- Subrogazio kasuetako baldintzak.	**38.2.2.- Condiciones en los supuestos de subrogación.**
SPKLren 130. artikuluan jasotako informazio betebeharra aplikatuz, ezaugarrien taularen **V. gehigarrian** informatzen da subrogazioak eragindako langileen kontratuen baldintzez, enpresa lizitatzaileek, beraiei kontratua esleituz gero, benetako lan kostuen ebaluazio egokia egin dezaten.	En aplicación de la obligación de informar prevista en el artículo 130 de la LCSP, en el **adenda V** del cuadro de características se facilita la información sobre las condiciones de los contratos del personal a los que afecta la subrogación, con el objeto de permitir a las empresas licitadoras una adecuada evaluación de los costes laborales efectivos en que incurrirán de resultar adjudicatarias del contrato.
Informazio hau ematen da: subrogazioari lotutako langileen zerrenda, aplikaziozko hitzarmen kolektiboa, lan kategoria, kontratu mota, antzinatasun data, lansaioa, kontratuaren mugaeguna, langile bakoitzaren urteko soldata gordina, subrogazioari lotutako langileei aplikagarri zaizkien itunak eta, derrigorrezkoa denean, titulazio akademikoa.	La información consiste en la relación del personal objeto de subrogación, el convenio colectivo de aplicación, la categoría laboral, el tipo de contrato, la fecha de antigüedad, la jornada, el vencimiento del contrato, el salario bruto anual de cada trabajador y trabajadora, los pactos en vigor aplicables al personal que afecte la subrogación, así como, cuando sea preceptiva, la titulación académica.
SPKLko 130.6 artikuluaren baitan, eta alde batera utzi gabe hala badagokio Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginak – urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez	En virtud del art. 130.6 de la LCSP, y sin perjuicio de la aplicación, en su caso, de lo establecido en el artículo 44 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real

onetsiak– 44. artikuluan ezarritakoa aplikatzea, administrazio-klausula partikularren agirian beti aurreikusi beharko da subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioen erantzule izateko kontratistak duen betebeharra,, baita kontratua suntsitzen denean eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituenean ere; betebehar hori ez da inola ere izango kontratista berriarena. Kasu horretan, Administrazioak, aipatutako soldatak ez direla ordaindu egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru kopuruak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.	Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, el pliego de cláusulas administrativas particulares siempre contemplará la obligación del contratista de responder de los salarios impagados a los trabajadores afectados por subrogación, así como de las cotizaciones a la Seguridad social devengadas, aún en el supuesto de que se resuelva el contrato y aquellos sean subrogados por el nuevo contratista, sin que en ningún caso dicha obligación corresponda a este último. En este caso, la Administración, una vez acreditada la falta de pago de los citados salarios, procederá a la retención de las cantidades debidas al contratista para garantizar el pago de los citados salarios, y a la no devolución de la garantía definitiva en tanto no se acredite el abono de éstos.
Kontratuaren xede den prestazioa egiten ari den eta eraginpeko langileen enplegatzaile den enpresak subrogazioaren eraginpeko langileei buruzko informazioa eman beharko dio Donostiako Udalari. Informazio hori 10 eguneko epean eman beharko da, errekerimendua egiten denetik zenbatzen hasita, eta ez bada betetzen, 100 euroko zigorra ezarriko da atzeratutako egun bakoitzeko.	La empresa que viniese efectuando la prestación objeto del contrato y que tenga la condición de empleadora de los trabajadores afectados está obligada a proporcionar al Ayuntamiento de Donostia la información relativa al personal a los que afecta la subrogación. Esta información deberá ser facilitada en el plazo de 10 días desde su requerimiento y el incumplimiento de la misma acarreará la imposición de una penalidad de 100€ por cada día de retraso.
38.2.3.- Bete beharreko hizkuntza baldintzak.	**38.2.3.- Condiciones lingüísticas de ejecución.**
<u>1. Zerbitzua ematean erabilitako BITARTEKOEI begirako betebeharrak.</u>	<u>1. Obligaciones en relación a los MEDIOS utilizados en la prestación.</u>
a) Kontratuaren xedea herritarrei zuzendutako zerbitzua ematea denean, hala nola hondartzetako sorospen zerbitzua, TAO, garabia, aparkalekuak, udalekuak, ikastaroak, tailerrak, tabernen ustiapena, eguzkitakoak eta abar, bermatu egin beharko da euskara, gaztelania bezalaxe, zerbitzu hizkuntza izango dela. Horiek horrela, jarraibide hauek beteko dira, ahozko zein idatzizko komunikazioetan:	**a) Si el objeto del contrato es prestar un servicio a la ciudadanía** (servicio de salvamento en las playas, OTA, grúa, parkings, colonias de verano, cursos, talleres, explotación de bares, toldos, etc.) se garantizará que el euskera, al igual que el castellano, sea lengua de servicio. Por lo tanto, se cumplirán los siguientes criterios tanto en las comunicaciones orales como escritas:
1. Harrera hizkuntza euskara izango da eta herritarrak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da, bai telefonoz, bai aurrez aurre.	1. La primera lengua de atención será el euskera, y después se continuará en la lengua elegida por la ciudadanía, tanto por teléfono como en persona.
Era berean, ahozko mezuak, erantzungailu automatikoz, bozgorailuz, audioa duten tresnez eta antzeko bitartekoez zabaldutakoak, bi hizkuntza ofizialetan emango dira, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz.	Asimismo, los mensajes orales, emitidos por contestadores automáticos, megafonía, aparatos de audio, etc. se emitirán en las dos lenguas oficiales, primero en euskera y después en castellano.
2. Zerbitzu hori emateko erabiltzen diren idatzizko osagai guztiak (inprimakiak, jakinarazpenak, oharrak, seinaleak, errotuluak, azalpenak, publizitatea...) bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira, euskarari lehentasuna emanez, zehaztutako euskara nabarmentzeko neurrien arabera.	2. Todos los elementos escritos (impresos, notificaciones, notas, señales, rótulos, instrucciones, publicidad…) que se utilicen para la prestación del servicio adjudicado estarán redactados en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera, de acuerdo con las medidas establecidas para resaltar el euskera.
3. Komunikazio horiek guztiak, idatzizkoak nahiz ahozkoak, euskaraz egingo dira, hartzaileen ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.	3. Todas las comunicaciones mencionadas, tanto escritas como orales, se harán en euskera, cuando las características de las personas receptoras del servicio contratado así lo permitan.
b) Kontratuaren xedea udal langileei zuzendutako zerbitzu bat bada (aplikazio informatikoak, prestakuntza saioak, aholkularitza zerbitzua, mediku azterketak...), bermatu egin beharko da euskara, gaztelania bezalaxe, zerbitzu hizkuntza izango dela, ahoz nahiz idatziz. Horiek horrela, honako jarraibide hauek beteko dira, ahozko zein idatzizko komunikazioetan:	**b) Si el objeto del contrato es prestar un servicio dirigido al personal municipal** (aplicaciones informáticas, sesiones de formación, servicio de asesoría, reconocimientos médicos…), se garantizará que el euskera, al igual que el castellano, sea lengua de servicio, tanto por escrito como oralmente. Por lo tanto, se cumplirán los siguientes criterios tanto en las comunicaciones orales como escritas:

1. Esleitutako zerbitzua emateko udal administrazioari zuzendutako osagai idatzi guztiak (bilera deiak, aktak, lanerako dokumentuak, txostenak...) beti eta aldi berean bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta aurkeztuko dira, euskarari lehentasuna emanez.	1. Toda la documentación remitida a la administración municipal para la prestación del servicio contratado (convocatorias de reuniones, actas, documentos de trabajo, informes...) se presentarán siempre simultáneamente en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera.
2. Esleitutako zerbitzua emateko udal administrazioarekin izan beharreko ahozko harremanetan euskararen erabilera bermatuko da behar den guztietan.	2. Siempre que sea necesario se garantizará el uso del euskera en las relaciones orales existentes entre la empresa adjudicataria y la administración municipal, a la hora de prestar el servicio contratado.
c) Kontratuaren xedea azterlan, txosten, proiektu eta izaera bereko beste dokumentu batzuk egitea denean, horiek euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egin eta emango dira, baldin eta Kontratazio Organoak, salbuespenez, kontratazio mota bakoitzeko proiektu eta abarren ezaugarri bereziak kontuan izanik, bestelakorik erabakitzen ez badu; edonola ere, gutxienez, proiektuen memoriak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dira. Era berean, softwareko testuzko eta soinuzko interfazea bi hizkuntza ofizialetan egingo da, jendaurreko aurkezpenak egin aurretik. Kontratua gauzatu ahal izateko lizitatzaileak udaleko beste ataletako langileekin harremana izango badu, aurreko b) azpiatalean ezarritako baldintza guztiak beteko dira, euskara ere zerbitzu hizkuntza izan dadin, ahoz nahiz idatziz.	**c) Cuando el objeto del contrato sea la elaboración de estudios, informes, proyectos u otro tipo de documentos similares** se realizarán y entregarán en euskera o en las dos lenguas oficiales, salvo que, excepcionalmente, considerando las características especiales de proyectos, etc. objeto del contrato, el Órgano de Contratación decida lo contrario; en todo caso, al menos las memorias de los proyectos se realizarán en euskera o en las dos lenguas oficiales. Asimismo, la interfaz de texto y de sonido del software se realizarán en las dos lenguas oficiales, previamente a su presentación pública. Si para ejecutar el contrato la empresa licitadora tiene relación con el personal de otros departamentos municipales, se cumplirán todas las condiciones anteriormente expuestas en el apartado b), para que el euskera sea también lengua de servicio tanto oralmente como por escrito.
Jendaurrean lanaren edo emaitzen aurkezpena egin beharko balitz, berau euskaraz egiteko beharrezko den langile bat egotea bermatuko da beti.	Si hubiera que realizar alguna exposición pública del trabajo o sus conclusiones, se garantizará que haya siempre una persona que pueda hacerla en euskera.
d) Kontratuaren gaia udal barruan zerbitzuren bat ematea izanez gero eta herritarrek edo udal langileek zuzenean jaso behar ez badute zerbitzu hori (esate baterako, udal eraikinak garbitzea, zaborra biltzea eta abar), Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta kontratuaz arduratzen den udal alorrak zehaztuko dituzte kontratuetan bete beharreko hizkuntzazko baldintzak.	**d) Cuando el objeto del contrato lo constituyan prestaciones de servicios de carácter interno municipal que no se dirijan directamente ni a la ciudadanía ni al personal municipal (p. ej. limpieza de edificios municipales, recogida de basuras, etc.)** las condiciones lingüísticas a cumplir en estos contratos serán establecidas por el Servicio Municipal de Euskera en colaboración con el área responsable del contrato.
<u>2. Zerbitzuari atxikitako LANGILEEN hizkuntza betebeharrak.</u>	<u>2. Obligaciones lingüísticas en relación al PERSONAL destinado al servicio.</u>
Zerbitzuari atxikitako langileen hizkuntza gaitasuna IV. gehigarrian zehazten da, eta horren egiaztapena Europako Erreferentzia Esparrura egokitzeko 297/2010 Dekretuan eta hura aldatzen duen 187/2017 Dekretuan jasotako titulu eta ziurtagirien bidez egin ahal izango da. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira hizkuntza titulu eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.	La acreditación de la competencia lingüística del personal destinado al servicio, recogida en el adenda IV, se podrá efectuar mediante los títulos y certificados recogidos en el Decreto 297/2010 de adecuación al Marco Europeo de Referencia y en el Decreto 187/2017 que modifica el anterior. Asimismo, en base al Decreto 47/2012, de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en euskera y serán considerados los casos de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.
Horrelakorik ezean, salbuespenez, administrazio kontratuaren ezaugarri zehatzak kontuan izanik, IV. gehigarrian helburu horretarako adierazitako euskaltegiak emandako ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiria lortzeko gastuak esleipendunak bere gain hartuko ditu eta ziurtagiri horren balioa dagokion kontrataziorako soilik izango da.	En su defecto, excepcionalmente, considerando las características concretas de este contrato administrativo, mediante certificado o documento expedido por el euskaltegi señalado en el adenda IV para este fin. Los gastos de la obtención de la acreditación correrán a cargo de la empresa adjudicataria y la validez de dicha acreditación será únicamente para la presente contratación.
Baldin eta, behin kontratazioa esleituta, langileetakoren bat beste pertsona batek ordezkatzen badu, pertsona horrek egiaztatu egin beharko du dagokion hizkuntza gaitasuna.	Una vez adjudicado el contrato, si alguna de las personas trabajadoras es sustituida por otra, dicha persona deberá acreditar el nivel de euskera correspondiente.
Subrogatutako langileek eskatutako hizkuntza gaitasuna	Si el personal subrogado no tiene la capacidad lingüística

betetzen ez badute, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera; besteak beste, jardunbide protokolo bat ezartzea, oinarrizko hizkuntza prestakuntza ikastaroak eskaintzea... Esleipenduna aldatuko balitz, esleipendun berriak ikasprozesuan jarraitzeko aukera bermatuko die ikastaroak hartzen ari diren langileei. Era berean, langile horiek ordezkatu behar direnean langile ordezkatzaileek dagokien hizkuntza gaitasuna izan beharko dute kasu guztietan.	requerida, se adoptarán las medidas necesarias para garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía y de la clientela; entre otras, establecer un protocolo de actuación, impartir cursos de nivel básico de euskera... En caso de que hubiera un cambio de empresa adjudicataria, la nueva empresa deberá garantizar la continuidad en el proceso de aprendizaje de las personas empleadas que estén asistiendo a cursos. Asimismo, el personal que sustituya al personal subrogado tendrá en todos los casos la capacidad lingüística requerida.
3. Kontratua gauzatzean hizkuntza ofizialen erabileraren gaineko xedapenak betetzea FUNTSEZKO betebeharra izatea	3. Calificación de obligación ESENCIAL el cumplimiento de las disposiciones sobre el uso de las lenguas oficiales en la ejecución del contrato.
Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko betebeharrak funtsezko betebehartzat hartuak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta kontratua suntsiaraztea ere izan dezake ondoriotzat.	Las cláusulas referentes a obligaciones relativas al uso de las lenguas oficiales tienen calificación de condición esencial, a efectos de lo dispuesto en la Ley de Contratos del Sector Público, pudiendo llevar su incumplimiento a la resolución del contrato.
Esleipendunak kontratua gauzatzerakoan erabiltzen diren euskarazko testuak hizkuntza aldetik zuzenak eta egokiak direla bermatu beharko du. Hizkuntzaren kalitatearen aldetik, gutxieneko baldintzak ez dituztela betetzen ikusiz gero, zuzentzea eskatu ahal izango zaio, inolako gainkosturik eragin gabe.	La entidad adjudicataria deberá garantizar que los textos utilizados para la ejecución del contrato sean correctos y adecuados lingüísticamente. En caso de que se considere que no tienen la suficiente calidad lingüística, se podrá exigir a la empresa que adopte las medidas necesarias para su corrección sin que ello suponga ningún coste adicional.
38.2.4.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun esparruko baldintzak	**38.2.4.- Condiciones en materia de igualdad de mujeres y hombres**
1.- Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzeko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak xedatutako moduan.	1.- La empresa adjudicataria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
2.- Enpresa esleipendunak hizkuntza ez-sexista erabili beharko du kontratu hau gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan. Halaber, emakumeenganako bereizkeria iradokitzen duten irudiak edo estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzunkidetasuna eta genero rolen zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.	2.- La empresa adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.
3.- Enpresa edo entitate esleipendunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.	3.- La empresa o entidad adjudicataria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo en aquellos contratos cuya ejecución requiera más de diez personas trabajadoras.
4.- Aurreko lerroaldeetan ezarritako betebeharrak gauzatzeko baldintza berezi moduan ezartzen dira, eta egiaztatu egin beharko dira kontratua gauzatzean. Betebehar horiek bete ezean isun ekonomikoak ezarriko dira, ez betetzearen	4.- Las obligaciones impuestas en los párrafos anteriores se establecen como condiciones especiales de ejecución y deberán ser acreditadas en el marco de ejecución del contrato. Su incumplimiento supondrá la imposición de penalidades

larritasunaren araberakoak, eta isun horiek ezingo dute gainditu kontratuaren prezioaren %10. Nolanahi ere, plegu honen arabera betebehar baten ez betetzea oso larritzat jotzen den kasuetan, betebehar hori kontratuaren funtsezko betebehartzat joko da eta haren ez betetzeak kontratua suntsitzea ekarri ahal izango du.	económicas, proporcionales a la gravedad del incumplimiento y su cuantía no podrá ser superior al 10 por 100 del precio del contrato. En todo caso, las obligaciones cuyo incumplimiento tiene carácter muy grave conforme al presente pliego tendrán la consideración de obligaciones contractuales de carácter esencial, y su incumplimiento podrá dar lugar a la resolución del contrato.
38.2.5. Laneko segurtasun eta osasun esparruko baldintzak	**38.2.5.- Condiciones en materia de seguridad y salud en el trabajo**
1.- Laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu enpresa kontratistak, baita aplikatzekoa den hitzarmen kolektibotik eratorritakoak ere.	1.- La empresa contratista deberá cumplir con las disposiciones vigentes en materia de seguridad y prevención de riesgos laborales en el trabajo, así como las derivadas del convenio colectivo aplicable.
2.- Enpresa kontratistak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratu honen xedeari lotuta dauden langileen osotasunarentzat edo osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.	2.- La empresa contratista deberá adoptar las medidas de seguridad e higiene en el trabajo que sean obligatorias o necesarias para prevenir de manera rigurosa los riesgos que pueden afectar a la integridad y salud del personal afecto al objeto del contrato.
38.2.6.- Enpresa kontratistaren langileei buruzko baldintzak.	**38.2.6.- Condiciones respecto del personal de la empresa contratista.**
1.- Enpresa kontratistak gutxienez pertsona bat izendatu beharko du, bere enpresako langileen artetik, koordinazio teknikoaz arduratzeko. Eginkizun hauek beteko ditu pertsona horrek:	1-. La empresa contratista, deberá designar al menos una persona que se responsabilizará de la coordinación técnica, perteneciente a la plantilla de su empresa, que tendrá entre sus funciones las siguientes:
a) Solaskidea izatea bere enpresaren eta entitate kontratatzailearen artean. Horretarako, komunikazioa bideratuko du enpresaren eta kontratuari atxikitako lantaldeko langileen artean, batetik, eta administrazio kontratatzailearekin, bestetik, betiere kontratua gauzatzeari lotutako alderdiei dagokienez.	a) Actuar como persona interlocutora entre su empresa y la entidad contratante, canalizando la comunicación entre aquella y el personal integrante del equipo de trabajo adscrito al contrato, de un lado, y la Administración contratante, de otro , en todo lo relativo a las cuestiones derivadas de la ejecución del contrato.
b) Kontratua gauzatzeaz arduratzen diren langileen artean lan zereginak banatzea, eta kontratupeko zerbitzuaren prestazioari dagokionez, beharrezkoak diren laneko agindu eta jarraibideak ematea.	b) Distribuir el trabajo entre el personal encargado de la ejecución del contrato, e impartirle las órdenes e instrucciones de trabajo que sean necesarias en relación con la prestación del servicio contratado.
c) Lantaldeko langileek beraiei agindutako eginkizunak betetzen dituztela gainbegiratzea, eta langile horiek lantokira joaten direla kontrolatzea.	c) Supervisar el correcto desempeño por parte del personal integrante del equipo de trabajo de las funciones que tiene encomendadas, así como controlar la asistencia de dicho personal al puesto de trabajo.
d) Kontratua gauzatzeari atxikitako langileen oporrak antolatzea. Horretarako, behar bezala koordinatu behar dira enpresa kontratista eta administrazio kontratatzailea, zerbitzuaren martxa egokia eten ez dadin.	d) Organizar el régimen de vacaciones del personal adscrito a la ejecución del contrato, debiendo, a tal efecto, coordinarse adecuadamente la empresa contratista con la Administración contratante para no alterar el buen funcionamiento del servicio.
e) Entitate kontratatzailea informatzea kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen osaeraren aldaketen inguruan, behin-behinekoak izan edo	e) Informar a la entidad contratante acerca de las variaciones, ocasionales o permanentes, en la composición del equipo de trabajo adscrito a la

iraunkorrak izan, 38.2.2 klausulan jasotakoaren arabera.	ejecución del contrato, en los términos recogidos en la cláusula 38.2.2.
2.- Enpresa kontratistak bere lantoki edo instalazioetan bete beharko du kontratua, salbu eta baldintza agirian aurreikusita badago zerbitzuak entitate kontratatzailearen lantokian ematea, eta espresuki hala baimentzen bada. Kasu horretan, administrazio kontratatzaileak langile publikoen languneez besteko eremuak jarriko ditu enpresa kontratistaren esku. Enpresa kontratistak zainduko du bere langileek zerbitzu horiek berari emandako kokalekuan ematen dituztela.	2.- La empresa contratista estará obligada a ejecutar el contrato en sus propias dependencias o instalaciones, salvo que la necesidad de prestar los servicios en dependencias de la entidad contratante estuviera prevista en el pliego, y así se hubiera autorizado expresamente. En este caso, la Administración contratante pondrá a disposición de la empresa contratista espacios de trabajo diferenciados de los que ocupa el personal empleado público, correspondiendo a la empresa contratista velar por el respeto por parte de su personal a prestar tales servicios en la ubicación asignada.
3.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.	3.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada al pago de cantidades, se repercutirá en ésta la suma satisfecha, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades pagadas.
38.2.7.- Informazioaren segurtasunaren esparruko baldintzak	**38.2.7.- Condiciones en materia de seguridad de la información**
1.- Esleipendunak bete beharko ditu hari dagozkion betebeharrak, pertsona fisikoen babesaz eta haien datu pertsonalen tratamenduaz eta datu horien zirkulazio libreaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Erregelamendutik (EB) ezarritakoa betez. Horrela egingo du kontratuaren indarraldian, bere jardueraren barruan, bere kontura eta bere erabakiz, egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei dagokienez, tratamendu horien eragilea den aldetik. Esleipendunak bere gain hartzen du gai honi buruzko informazioa eta prestakuntza bere langileei emateko betebeharra.	1.- La adjudicataria deberá cumplir con las obligaciones que para ella se deriven de lo previsto en el Reglamento (UE) del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos que resulte aplicable durante la vigencia del contrato por razón de los tratamientos de datos personales que lleve a cabo en el marco de sus actividades y por su propia cuenta y decisión, como Responsable de dicho tratamiento. La adjudicataria se obliga a informar y a formar a su personal a este respecto.
2.-Gauzatu beharreko kontratuaren xedea dela eta, esleipendunak Donostiako Udalaren ardurapeko datuak eskuratu eta tratatu behar baditu, proposaturiko esleipendunak, kontratua formalizatu baino lehen, baldintza administratibo berezien agiri honen X. eranskina izenpetu eta erantsi beharko du. X. eranskina, esleipendunak orrialde guztietan izenpetutakoa, proposatutako esleipendunak aurkeztutako dokumentazioaren parte izango da, eta SPKLko 150. artikuluan aurreikusten den hamar egun balioduneko epean aurkeztu beharko da. Gainera, zerbitzu emaileari eska dakiokeenean, berak emandako zerbitzu edo konponbideengatik, urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak araututako Segurtasun Eskema Nazionala betetzea, halakoetan, Segurtasun Eskema Nazionalaren araberako adostasun adierazpena / ziurtagiria aurkeztu beharko du, XI. eranskinean ezarritakoa betez.	2.- En aquellos contratos en los que la prestación del objeto del contrato implique por parte del adjudicatario el acceso y tratamiento de datos de carácter personal responsabilidad del Ayuntamiento de San Sebastián, el propuesto como adjudicatario, con carácter previo a la formalización del contrato, deberá suscribir el Anexo X adjunto a este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. Este Anexo X suscrito en todas sus hojas formará parte de la documentación que el propuesto como adjudicatario deberá presentar dentro del plazo de diez días hábiles previsto en el art. 150 de la LCSP. Además, los operadores de servicios que presten servicios o provean soluciones a los que resulte exigible el cumplimiento del Esquema Nacional de Seguridad, que regula el Real Decreto 3/2010, de 8 de enero, deberán estar en condiciones de exhibir la correspondiente Declaración/ Certificación de Conformidad, conforme a lo establecido en el Anexo X.

SPKLko 211. f) artikuluari jarraiki, kontratua formalizatu aurretik X. eranskina izenpetzea kontratuaren funtsezko izaeradun gauzatze baldintza berezitzat hartzen da, eta hala, hori ez betetzeak, kontratistaren erruz, kontratatua iraungitzea dakar.	La suscripción de este Anexo X con carácter previo a la formalización del contrato se considera condición especial de ejecución de carácter esencial del contrato, cuyo incumplimiento devendrá en causa de extinción culpable de la empresa contratista, de conformidad con lo previsto en el art. 211. f) de la LCSP.
3.- Esleipendunak eta datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen edozein pertsonak horiei buruzko sekretu profesionala mantendu beharko du, eta datu horiek babestu beharko ditu. Obligazio horiek indarrean egongo dira entitate kontratatzailearekin duen harremana amaituta ere.	3.- La adjudicataria, y toda persona que intervenga en cualquier fase del tratamiento de datos de carácter personal, está obligada al secreto profesional respecto de los mismos y al deber de guardarlos; obligaciones que subsistirán aun después de finalizar sus relaciones con la entidad contratante.
4.- Enpresa kontratistak kontratua betetzeko beharrezko izan ditzakeen izaera pertsonaleko datuen erabilera datu pertsonalen babesaren esparruan indarrean dagoen legeria betez egingo da; baita entitate kontratatzaileak xedatutakoa betez ere.	4.- La utilización por la adjudicataria de datos de carácter personal que pueda resultar precisa para el cumplimiento del contrato, se efectuará con observancia de la legislación vigente en materia de protección de datos de carácter personal; así como con arreglo a las instrucciones que le indique la entidad contratante.
5.- Esleipendunak ezingo ditu datu horiek hirugarrenei eman edo kontratua betetzeko helburu zehatzak ez diren beste helburuetarako erabili.	5.- La adjudicataria no podrá facilitar estos datos a terceros ni utilizarlos con finalidades distintas a las precisas para el cumplimiento del contrato.
6.- Esleipendunak, datu horien tratamenduaren eragile gisa, datu pertsonalen segurtasunerako beharrezkoak diren neurri tekniko edo antolakuntzazkoak aplikatuko ditu, datu horiek aldatzea, galtzea, baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea saihesteko, aukera horiek bai giza jardueratik beretik bai ingurune fisiko edo naturaletik datozenak izanda ere.	6.- La adjudicataria se obliga, en su condición de encargada del tratamiento, a adoptar las medidas de índole técnica y organizativa necesarias que garanticen la seguridad de los datos de carácter personal y eviten su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, ya provengan de la acción humana o consecuencia del medio físico o natural.
7.- Kontratuaren iraunaldian zehar, entitate kontratatzaileak beharrezkotzat jotzen dituen kontrolak egitea onartuko du esleipendunak, hain zuzen ere segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.	7.- La adjudicataria permitirá que la entidad contratante realice los controles que considere oportunos durante el periodo de vigencia del contrato para verificar el cumplimiento de las medidas de seguridad y poder adoptar las medidas correctoras oportunas.
8.- Kontratuko zerbitzua amaitu ondoren, esleipendunak izaera pertsonaleko datuak deuseztatu beharko ditu, edo itzuli beharko dizkio entitate kontratatzaileari edota Administrazioak izendatutako tratamendu eragileari.	8.- La adjudicataria, a la finalización de la prestación contractual, deberá destruir los datos de carácter personal o deberá devolverlos a la entidad contratante o a otra persona encargada del tratamiento designada por la administración.
9.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute dirua ordaintzera, diru hori kontratistari jasanaraziko dio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.	9.- Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista o subcontratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta cláusula, la entidad contratante fuera condenada al pago de cantidades, se repercutirá en la contratista la suma satisfecha, a cuyos efectos la Administración contratante se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes hasta la total recuperación de las cantidades pagadas.
38.3. Baimen eta lizentzien kudeaketaren inguruko betebeharrak	**38.3.- Obligaciones relativas a la gestión de permisos, licencias y autorizaciones**
1.- Lanak behar bezala egiteko behar diren baimen edo lizentzia guztiak lortzea enpresa kontratistaren erantzukizuna eta kontua	1.- Será de cuenta y responsabilidad de la empresa contratista, salvo que el órgano de contratación decida gestionarlo por sí

da, kontratazio organoak bere kasa kudeatzea erabakitzen ez badu, behintzat; halaber, erakunde eskudunek ezarritako baldintzak eta preskripzioak bete beharko ditu kontratista.	mismo, la obtención de cuantos permisos, licencias y autorizaciones sean precisos para la correcta ejecución de los trabajos, debiendo atender los consiguientes condicionados y prescripciones de los organismos competentes.
2.- Baimenak edo lizentziak eskuratzeak tasa, fidantza edo bestelako gasturen bat baldin badakar, horien ordainketak edo horietarako gordailua egitea ere enpresa kontratistaren kontua izango da.	2.- Cuando se exijan tasas, fianzas u otros gastos por dichos permisos, licencias o autorizaciones, su abono o depósito será también a cargo de la empresa contratista.
38.4.- Kontratistari eska dakizkiokeen gastuak	**38.4.- Gastos exigibles al contratista**
Kontratistaren kontura dira kontratua formalizatzeko gastuak, eskritura publikoa egiten den kasuetan, eta baita kontratua gauzatzeari begirako lizentzia eta baimen guztiak ere.	Son de cuenta de la contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública y cuantas licencias, autorizaciones y permisos procedan en orden a ejecutar el contrato.
38.5.- Lan programa	**38.5.- Programa de trabajo**
1.- Administrazioak egoki iritziz gero preskripzio teknikoen agirian ezarriarekin bat etorriz lan programa bat eskatzeari, esleipendunak programa hori aurkeztu beharko dio Administrazioari, hark, hautatutako aukerari buruzko dokumentuekin batera, onartu eta, hala badagokio, epe partzialak finkatu ditzan.	1.- Si la Administración estima conveniente exigir un programa de trabajo de acuerdo con lo establecido en el pliego de prescripciones técnicas, éste será presentado por la adjudicataria para su aprobación por la Administración al mismo tiempo que se aprueben los documentos de la solución elegida, fijándose los plazos parciales correspondientes, en su caso.
2.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, esleipendunak gaurkotu eta egunean jarri beharko du programa hori, horretarako jasotzen dituen jarraibideen ildotik joz betiere.	2.- Cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, la adjudicataria queda obligada a la actualización y puesta al día de este programa, siguiendo las instrucciones que a estos efectos reciba.
38.6.- Baldintzak azpikontratazioan	**38.6.- Condiciones en supuestos de subcontratación**
1.- Azpikontratuak egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:	1.- La celebración de los subcontratos estará sometida al cumplimiento de los siguientes requisitos:
- Esleipendunak aldez aurretik eta idatziz jakinarazi behar dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa, zerbitzuaren zein zati azpikontratatzeko asmoa duen eta azpikontratistak nortzuk diren zehaztuz. Horrez gain, azpikontratisten izena, harremanetarako datuak eta lege ordezkariak zeintzuk diren adierazi beharko du, eta, era berean, azpikontratistek kontratua gauzatzeko gaitasuna dutela behar bezala justifikatu beharko du, baita Administrazioarekin kontratatzeko debeku egoeran ez daudela ere.	- La adjudicataria deberá comunicar al órgano de contratación por escrito, tras la adjudicación del contrato y a más tardar cuando inicie la ejecución, la intención de celebrar subcontratos, señalando la parte de la prestación que se pretende subcontratar y la identidad, datos de contacto y representantes legales de las subcontratistas, junto con la documentación que justifique la aptitud de las subcontratistas para ejecutar las partes de la prestación que se pretenden subcontratar, y acreditando que no se encuentran incursas en prohibición de contratar con la Administración.
Azpikontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzeko debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratistak nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.	A los efectos de acreditar que la empresa subcontratista propuesta no está incursa en las inhabilitaciones y prohibiciones para contratar previstas en el artículo 71 de la LCSP, la empresa contratista aportará obligatoriamente junto con la documentación indicada en el apartado anterior una declaración responsable suscrita por la subcontratista en este sentido.

2.- Ezaugarrien taulako **17. atalean** aipatzen diren zeregin kritikoak ezingo dira azpikontratatu, kontratista nagusiak zuzenean egin beharko ditu.	2.- Las tareas críticas que se indican en el **apartado 17** del cuadro de características no pueden ser objeto de subcontratación, debiendo ser ejecutadas directamente por la contratista principal.
3.- Enpresa azpikontratistak soilik enpresa kontratista nagusiaren mende geratuko dira. Horrenbestez, Administrazioaren aurrean kontratista nagusia izango da kontratua gauzatzearen erantzule bakarra, hitzez hitz bete beharko baitu baldintza administratibo berezien agirian eta kontratuan xedatutakoa, gizarte eta lan arloko betebeharrak nahiz ingurumen arlokoak barne.	3.- Las subcontratistas quedarán obligadas sólo ante la empresa contratista principal que asumirá, por tanto, la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, con arreglo estricto a los pliegos de condiciones particulares y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral.
Enpresa kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa ez da ezertan aldatuko, nahiz eta aurreko 1. azpiatalean adierazitako komunikazioen indarrez egin diren azpikontratuen berri izan Administrazioak.	El conocimiento que tenga la Administración de los subcontratos celebrados en virtud de las comunicaciones a que se refiere el apartado 1 anterior, no alterarán la responsabilidad exclusiva de la empresa contratista principal.
4.- Kontratistak ezingo du inolaz ere kontratu zati bat gauzatzeko hitzarmenik egin ordenamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo SPKLren 71. artikuluan jasotako egoeretako batean dauden pertsonekin. Enpresa kontratistak bete egin beharko ditu laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden arauak ere, eta azpikontratista orori ere araudi hori betearaziko dio.	4.- En ningún caso podrá concertarse por la empresa contratista la ejecución parcial del contrato con personas inhabilitadas para contratar de acuerdo con el ordenamiento jurídico, o comprendidas en alguno de los supuestos del artículo 71 de la LCSP. La contratista cumplirá la normativa vigente en materia de seguridad y salud en el trabajo, y se asegurará del cumplimiento de dicha normativa por parte de cada subcontratista.
5.- Enpresa kontratistak azpikontratazioaren berri emango die langileen ordezkariei, lan arloko legeriak agintzen duen bezala.	5.- La empresa contratista deberá informar a la representación del personal de la subcontratación, de acuerdo con la legislación laboral.
6.- Enpresa edo entitate esleipendunak azpikontratua idatziz jasotzen duen dokumentua aurkeztu beharko du kontratazio organoaren aurrean. Dokumentu horretan, enpresa edo entitate azpikontratistaren betebeharrak zehaztu beharko dira, kontratu honetan aurreikusitako klausulen inguruan, eta haiek ez betetzeak sortzen dituen ondorioak ere zehaztu beharko dira.	6.- La empresa o entidad adjudicataria deberá presentar ante el órgano de contratación el documento en el que se plasmará el subcontrato, que deberá establecer las obligaciones de la empresa o entidad subcontratista con relación a las cláusulas previstas en el presente contrato y las consecuencias de su incumplimiento.
7.- Azpikontratistei ordaintzeari dagokionez, SPKLko 216. artikulua bete beharko da, baita abenduaren 29ko 3/2004 Legea, merkataritza eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena, aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko hirugarren xedapen iragankorrean xedatutakoa ere.	7.- El pago a subcontratistas deberá ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 de la LCSP y en la Disposición Transitoria tercera de la Ley 15/2010, de 5 de julio, de modificación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.
8.- SPKLko 217.2 artikuluak ezarritakoari jarraituz, Administrazio Publikoek eta gainerako erakunde publiko kontratatzaileek kontratua ez betetzeagatiko zehapenak egiaztatu eta ezarriko dituzte honako kasuetan: balio zenbatetsia 5 milioi baino gehiago denean eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 30 edo gehiago denean.	8.- En virtud del artículo 217.2 de la LCSP, las Administraciones Públicas y los demás entes públicos contratantes comprobarán e impondrán penalidades por incumplimiento cuando el valor estimado del contrato supere los 5 millones de euros y cuando el importe de la subcontratación sea igual o superior al 30 por ciento del precio del contrato.
39.- Obra proiektuak prestatzeko kontratuari buruzko berezitasunak	**39.- Especialidades en relación al contrato de elaboración de proyectos de obras**
1.- Enpresa kontratistak ezaugarrien taulako **8. atalean** jasotako epearen barruan entregatu beharko ditu egindako lanak. Kontratuaren arduradunak azterketa bat egingo du aurkeztutako	1.- La empresa contratista dentro del plazo estipulado en el **apartado 8** del cuadro de características deberá entregar los trabajos realizados efectuándose por el responsable del contrato

dokumentazioaren inguruan eta, preskripzio teknikoak bete direla uste badu, obrak hartzea proposatuko du.	un examen de la documentación presentada y, si estimase cumplidas las prescripciones técnicas, propondrá que se lleve a cabo la recepción.
2.- Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, obra proiektuak idazteko lanari buruz, idazketa egiteko epea bukatu baino gutxienez hilabete lehenago, kontratuaren arduradunari dokumentuaren zirriborro osoa entregatu behar zaio, hark azter dezan eta, behar dituen doiketak egin ondoren editatuta, onartutako idazketa epearen barruan aurkez dadin behin betiko dokumentua.	2.- A los efectos señalados en el párrafo anterior en lo que respecta a las labores de redacción de proyectos de obra, al menos con un mes de antelación a la finalización del plazo de redacción se hará entrega al responsable del contrato del documento de borrador completo del trabajo para que una vez analizado por ésta, se realicen los ajustes y se edite y entregue el documento definitivo dentro del plazo de redacción aprobado.
39.1.- Errakuntzak zuzendu eta akatsak konpontzea.	**39.1.- Subsanación de errores y corrección de deficiencias.**
1.- Kontratuko preskripzio teknikoak bete ez direlako ustea badago, edo akatsak edo gabeziak antzematen badira, kontratistari idatziz emango zaizkio jarraibide zehatzak akats horiek konpontzeko edo zuzentzeko. Idatzi horretan jaso beharko da horretarako ematen zaion epea eta egokitzat jotzen diren behaketak zehaztuko dira.	1.- En el caso de que estimasen incumplidas las prescripciones técnicas del contrato, o se apreciaren defectos o insuficiencias, se le darán por escrito al contratista las instrucciones precisas y detalladas con el fin de remediar o subsanar las faltas o defectos advertidos, haciendo constar en dicho escrito el plazo que para ello se fije y las observaciones que se estimen oportunas.
2.- Kontratistak erreklamaziorik egiten badu kontratuaren arduradunak egindako oharrei dagokienez, arduradunak berak hartuko du horri buruzko behin betiko erabakia.	2.- Si existiese reclamación por parte del contratista respecto de las observaciones formuladas por el responsable del contrato, ésta será resuelta de forma definitiva por el responsable del contrato.
3.- Kontratistak ez badu idatzizko erreklamaziorik aurkezten egindako oharrei dagokienez, haiekin ados dagoela ulertuko da, eta, beraz, antzemandako akatsak zuzendu edo konpondu egin beharko ditu.	3.- Si la empresa contratista no reclamase por escrito respecto de las observaciones, se entenderá que se encuentra conforme con las mismas y obligada a corregir o remediar los defectos observados.
4.- Zerbitzu-kontratua obra-proiektu bat osorik egiteko baldin bada, egotzi ahal zaizkion okerrak, gabezia teknikoak, oker materialak, ez-egiteak eta erregelamendu edo lege mailako arau hausteak zuzentzeko eskatuko zaio kontratistari, eta epe jakin bat emango dio horretarako, gehienez ere bi hilabetekoa.	4.- Cuando el contrato de servicios consista en la elaboración íntegra de un proyecto de obra, se exigirá la subsanación por la empresa contratista de los defectos, insuficiencias técnicas, errores materiales, omisiones e infracciones de preceptos legales o reglamentarios que le sean imputables, otorgándole al efecto el correspondiente plazo que no podrá exceder de dos meses.
2.- Epe hori amaitu eta ez baditu oraindik okerrak zuzendu, administrazioak bi aukera izango ditu, tartean diren gorabeherak kontuan harturik: kontratua suntsiaraztea edo kontratistari beste epe bat ematea SPKLren 314. artikuluan aurreikusita dagoen eran eta bertan jasotako ondorioekin.	5. Si transcurrido este plazo las deficiencias no hubiesen sido corregidas, la Administración podrá, atendiendo a las circunstancias concurrentes, optar por la resolución del contrato o por conceder un nuevo plazo al contratista en los términos y con los efectos previstos en el artículo 314 de la LCSP
40.- Zerbitzu kontratuen berezitasunak, herritarrentzat zuzeneko prestazioak dakartzatenean	**40.- Especialidades en relación a los contratos de servicios que conlleven prestaciones directas a favor de la ciudadanía**
1.- Kontratistaren betebeharrak dira dena delako zerbitzua adostutako jarraitutasunaz ematea, eta erabiltzaileei zerbitzua erabiltzeko eskubidea bermatzea aurrez xedatutako baldintzetan	1.- La empresa contratista estará sujeta a las obligaciones de prestar el servicio con la continuidad convenida y garantizar a las personas usuarias el derecho a utilizarlo en las condiciones que

eta, kasua bada, finkatutako prestazio ekonomikoa ordainduta; zerbitzua ondo dabilela zaintzea; zerbitzua eskaini behar horretan inori kalterik eraginez gero, kalte-ordaina ematea, non eta kaltea ez den administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik; eta, behar den kasuetan, kontratatutako obrak eta instalazioak artapen eta funtzionamendu egoera egokian entregatzea.	hayan sido establecidas y mediante el abono en su caso de la contraprestación económica fijada; de cuidar del buen orden del servicio; de indemnizar los daños que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera el desarrollo del servicio, con la salvedad de aquellos que sean producidos por causas imputables a la Administración; y de entregar, en su caso, las obras e instalaciones a que esté obligada con arreglo al contrato en el estado de conservación y funcionamiento adecuados.
2.- Kontratistak kontratua ez betetzeagatik nahasmendu larri eta beste baliabide batzuekin konpondu ezinekoa sortzen bazaio zerbitzuari, eta administrazioak kontratua suntsiarazteko erabakirik hartzen ez badu, nahasmendua desagertu arte zerbitzua bahitzea edo hartan esku hartzea erabaki dezake Administrazioak. Nolanahi ere, kontratista behartuta egongo da eragindako kalte eta galerak ordaintzera Administrazioari.	2.- Si del incumplimiento por parte del contratista se derivase perturbación grave y no reparable por otros medios en el servicio y la Administración no decidiese la resolución del contrato, podrá acordar el secuestro o intervención del mismo hasta que aquella desaparezca. En todo caso, la contratista deberá abonar a la Administración los daños y perjuicios que efectivamente le haya ocasionado.
3.- Administrazioak beharrezko polizia ahalmenak izango ditu, herritarrei zuzeneko prestazioak dakarzkien zerbitzuen martxa ona ziurtatzeko.	3.-La Administración conservará los poderes de policía necesarios para asegurar la buena marcha de los servicios que conlleven prestaciones directas a favor de la ciudadanía de que se trate.
41.- Jabetza intelektualaren eskubideak	**41.- Derechos de la propiedad intelectual**
Baldin eta kontratuaren xedea bada jabetza intelektual edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea, hark berekin ekarriko du eskubide hori administrazio kontratatzaileari lagatzea.	Si el contrato tiene por objeto el desarrollo y la puesta a disposición de productos protegidos por un derecho de propiedad intelectual o industrial llevará aparejada la cesión de éste a la Administración contratante.
42.- Informazioaren segurtasunari buruzko funtsezko betebeharrak	**42.- Obligaciones esenciales en materia de seguridad de la información**
Kontratistak Udalaren kontura datu pertsonalak tratatzea eskatzen duten kontratuetan, esleipenduna den enpresak honako hauek bete beharko ditu: - Kontratua formalizatu aurretik, zerbitzariak non kokatuko diren eta zerbitzari horiei lotutako zerbitzuak nondik emango diren adierazten duen adierazpen bat aurkeztea. - Aurreko paragrafoan aipatzen den adierazpenaren harira ematen den informazioari dagokionez, kontratuaren bizitzan gertatzen den edozein aldaketaren berri ematea. Gainera, lizitatzaileek beren eskaintzan adierazi beharko dute ea zerbitzariak edo horiei lotutako zerbitzuak azpikontratatu nahi dituzten, bai eta enpresa izena edo profila ere, kaudimen profesional edo teknikoko baldintzen arabera definitua, kontratua egiteko aginduko zaien azpikontratisten kasuan. Atal honetan jasotako betebeharrak funtsezkoak dira SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.	En aquellos contratos cuya ejecución requiera el tratamieto por el contratista de datos personales por cuenta del Ayuntamiento, la empresa que resulte adjudicataria estará obligada a cumplir con los siguientes extremos: - Presentar, antes de la formalización del contrato, una declaración en la que ponga de manifiesto dónde van a estar ubicados los servidores y desde dónde se van a prestar los servicios asociados a los mismos. -Comunicar cualquier cambio que se produzca, a lo largo de la vida del contrato, de la información facilitada en la declaración a que se refiere el puto anterior. Además, los licitadores deberán indicar en su oferta si tienen previsto subcontratar los servidores o los servicios asociados a los mismos, el nombre o el perfil empresarial, definido por referencia a condiciones de solvencia profesional o técnica, de los subcontratistas a los que vaya a encomendar su realización. Las obligaciones recogidas en este apartado tienen la consideración de esenciales a los efectos de lo previsto en el artículo 211.1.f) de la LCSP.

43.- Zehapenak: berandutzagatikoa eta beste batzuk	43.- Penalidades: por demora y otras penalidades
1.- Kontratazio organoak, SPKLren 192. eta 193. artikuluetan ezarritakoarekin bat, zehapenak ezarri ahal izango dizkio enpresa kontratistari, ondoren adierazten diren ez-betetzeengatik:	1.- El órgano de contratación, con sujeción a lo establecido en los artículos 192 y 193 de la LCSP, podrá imponer penalidades a la empresa contratista por los incumplimientos que se indican a continuación:
a) Azken epea edo epe partzialak betetzean berandutzeagatik.	a) Por demora en el cumplimiento del plazo total o de los plazos parciales.
b) Kontratua gauzatzeko beste edozein baldintza berezi ez betetzeagatik edo akatsez betetzeagatik (SPKLren 192. artikulua), salbu eta funtsezko betebeharra bada eta kontratua suntsiaraztea badakar.	b) Por incumplir, o cumplir defectuosamente, cualesquiera otras condiciones especiales de ejecución (artículo 192 de la LCSP), salvo que por ser condición esencial lleven aparejada la resolución del contrato.
c) Eskaintzak balioesteko irizpidetzat kontuan hartutako alderdiak ez betetzeagatik edo akatsez betetzeagatik (SPKLren 122. artikulua).	c) Por incumplimiento o cumplimiento defectuoso que afecte a los aspectos tenidos en cuenta como criterio de valoración de las ofertas (artículo 122 LCSP).
d) Ingurumen, Gizarte edo Lan arloetako betebeharrak ez betetzeagatik, edo soldaten ordainketak behin eta berriz atzeratzeagatik eta ezargarri den lan-hitzarmenean adierazi diren soldata baldintzak baino okerragoak aplikatzeagatik, aplikazio hori larri eta dolozkoa denean (SPKLren 201. artikulua).	d) Por incumplimiento de las obligaciones en materia medioambiental, social o laboral, o retrasos reiterados en el pago de los salarios y por la aplicación de condiciones salariales inferiores a las señaladas en el convenio aplicable, que sean graves y dolosas (artículo 201 LCSP).
e) Azpikontrataziorako obligazioak, baldintzak eta bestelako eskakizunak urratzeagatik (SPKLren 215. artikulua).	e) Por infracción de las obligaciones, condiciones y demás requisitos para la subcontratación. (artículo 215 LCSP).
f) Laneko Segurtasun eta Osasun Plana aurkezteko epea ez betetzeagatik, hori galdagarria denean.	f) Por incumplimiento del plazo para presentar el Plan de Seguridad y Salud en el trabajo, cuando fuera exigible.
g) Soldaten ordainketak ez betetzeagatik edo behin eta berriz atzeratzeagatik edo hitzarmen kolektiboetatik ondorioztatzen direnen azpitiko soldata baldintzak aplikatzeagatik, aplikazio hori larri eta dolozkoa denean (SPKLren 201. artikulua).	g) Por incumplimientos o retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa. (artículo 201 LCSP).
2.- Aurreko puntuko ez-betetzeei lotutako zehapenen zenbatekoa honako hau izango da:	2.- La cuantía de las penalidades que corresponden por los incumplimientos del punto anterior, será la siguiente:
a) Adierazitako a) letran jasotako arrazoiarengatik, SPKLren 193. artikuluko 3. azpiatalean aurreikusten den zenbatekoa, non eta ezaugarrien taulako **23. atalak** ez duen besterik ezartzen.	a) Por la causa contemplada en la letra a), la cuantía prevista en el apartado 3 del artículo 193 de la LCSP salvo que el **apartado 23** del cuadro de características establezca otras diferentes.
b) Adierazitako b), c) eta d) letretan jasotzen diren arrazoiengatik, kontratuaren prezioaren % 4, non eta kontratazio organoak, arrazoi bidez, larri edo oso larri irizten ez dion ez-betetzeari, horrelakoetan % 7raino iritsi ahal izango baita larrien kasuan, eta % 10eraino, oso larriak izanez gero. Ez-betetzea errepikatu izana kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.	b) Por las causas contempladas en las letras b), c), y d), un 4 % del precio del contrato salvo que, motivadamente, el órgano de contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrá alcanzar hasta un 7 por ciento, en el primer caso, y hasta un 10% en el segundo. La reiteración en el incumplimiento se tendrá en cuenta para valorar la gravedad.
c) e) letran jasotako arrazoiarengatik, azpikontratuaren zenbatekoaren % 50eraino.	c) Por la causa contemplada en la letra e), hasta un 50% del importe del subcontrato.
d) f) letran jasotako arrazoiarengatik, euro bateko zehapena egunean kontratuaren prezioko 5.000 euro bakoitzeko; kopuru hori, hala dagokionean,	d) Por la causa contemplada en la letra f), una penalización diaria de 1 euro por cada 5.000 euros del precio del contrato que será descontada, en su caso, en la primera

lehenbiziko ziurtagirian deskontatuko da.	certificación.
e) g) letran jasotako arrazoia oso ez-betetze larritzat hartuko da.	e) La causa contemplada en la letra g) tendrá la consideración de incumplimiento muy grave.
3.- Kontratuaren ezaugarri bereziak direla eta, kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotzen bada aurreko azpiatalean adierazitakoez besteko zehapen batzuk finkatzea, zehapen horiek ezaugarrien taulako **23. atalean** zehaztuko dira.	3.- Si atendiendo a las especiales características del contrato se considera necesario para su correcta ejecución el establecimiento de penalidades distintas a las indicadas en el apartado anterior, estas se especificarán en el **apartado 23** del cuadro de características.
4.- Enpresa kontratista berandutze-egoeran sartzeko ez da behar Administrazioak, aldez aurretik, betetzeko agindua ematea.	4.- La constitución en mora de la empresa contratista no precisa intimación previa por parte de la Administración.
5.- Bitartekoak atxikitzeko konpromisoa, hizkuntza baldintzak edo esleipeneko baldintza berezietako beste edozein ez betetzeagatik edo akatsez betetzeagatik ezartzen diren zehapenak kontratazio-organoak kasuan kasuko ez-betetzea egiaztatzen duen unean ezarriko dira.	5.- Las penalidades por incumplir, o cumplir defectuosamente, el compromiso de adscripción de medios, las condiciones lingüísticas o cualesquiera otras condiciones especiales de adjudicación se impondrán en el momento que el órgano de contratación verifique el incumplimiento.
6.- Baldin eta kontratua ez betetzeagatik edo akatsez betetzeagatik ezarri beharreko zehapenak eskaintzak baloratzeko irizpidetzat hartutako alderdiei badagozkie, zehapen horiek harrera egiten den unean ezarriko dira, kontratistari egozteko moduko arrazoiak direla-eta kontratua ez duela gauzatu edo eskaintzan bere gain hartutako konpromisoetakoren bat ez duela bete egiaztatzen denean.	6.- Las penalidades por incumplimiento, o cumplimiento defectuoso, que afecten a los aspectos tenidos en cuenta como criterio de valoración de las ofertas se impondrán cuando, al tiempo de la recepción, se constate que, por causas imputables a la contratista, esta no ha ejecutado el contrato o alguno de los compromisos asumidos en su oferta.
7.- Akatsez betetzeagatiko zehapenak ezarririk ere, kontratistak legezko obligazioak izango ditu akats horiek konpontzeari dagokionez.	7.- Las penalidades por cumplimiento defectuoso se impondrán con independencia de la obligación que legalmente incumbe a la contratista en cuanto a la reparación de tales defectos.
8.- Zehapena ezartzeak ez du kalte-galeren ordaina eman beharraz salbuesten (SPKLren 196. artikulua).	8.- La imposición de penalidad no excluye la indemnización por daños y perjuicios (artículo 196 de la LCSP).
9.- Berandutzagatiko zehapenen zenbatekoa faktura edo ziurtagirietatik kenduko da eta, hala dagokionean, bermetik, aipatutako beste dokumentuetatik kentzerik ez dagoenean. Bermearen gainean gauzatzen direnean, kontratistak birjarri edo handitu egin beharko du hura, zehapena exekutatzen den egunetik 15 egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.	9.- El importe de las penalidades por demora se deducirá de las facturas o certificaciones y, en su caso, de la garantía cuando no puedan deducirse de los mencionados documentos. Cuando se hagan efectivas sobre la garantía el contratista quedará obligado a reponer o ampliar la misma en el plazo de 15 días naturales desde la ejecución, incurriendo, en caso contrario en causa de resolución del contrato.
10.- **Lizitatzaileen arteko kolusioa** berariaz debekatuta dago Lehia Defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean (LDL) 1 artikuluan. arau-hauste **oso astuntzat** jota. Enpresari bere **negozio-bolumen osoaren % 10eko zehapena** ezartzea ekar dezake, edo, bolumen hori zehaztu ezin bada 10 milioi euro arteko zehapena. Jokabide hori enpresei edo enpresa kontrolatzen duten pertsonei ere egotzi ahal izango zaie. (LDLren 61. -63. artikuluak) LEA/AVCk zehapenaren zenbatekoa kendu edo murriztu diezaioke kartel batean inplikatutako enpresa bati, erruki-eskaera bat aurkezten badu LEA/AVCren aurrean Horretarako.	10.- La colusión entre **los licitadores** es una práctica prohibida por el artículo 1 de la Ley 15/2007, de 3 de julio de Defensa de la Competencia (LDC), calificada como **infracción muy grave**, que puede tener como consecuencia la imposición de una **sanción** a las empresas de **hasta el 10% de su volumen total de negocios** o de hasta 10 millones de euros cuando no sea posible determinar el volumes anterior. Dicha conducta sera también imputable a las empresas o personas que la controlan. (Artículos 61 a 63 LDC) LEA/AVC podrá eximir o reducir el importe de la sanción correspondiente a la empresa implicada en un cártel que presente una solicitud de clemencia ante LEA/AVC. Para ello deberá

froga-elementuak aurkeztu beharko ditu, zehapen-espediente bat hasteko edo hari buruzko ikerketa-ekintzak gauzatzeko bidea emango dutenak. (LDLren 65. eta 66 artikuluak) Era berean, legezko ordezkari bakoitzari edo akordio edo erabakian esku hartu duten zuzendaritza-organoetako kide bakoitzari 60.000 eurora arteko isuna ere jartzeko aukera egongo da. Lehiaren faltsutzea ere tipifikatuta dago **Zigor Kodearen 262. artikuluan**, honako hau xedatzen baitu: lehiaketa eta enkanteetan prezioak aldatzen dituztenek urte batetik hiru urtera bitarteko espetxe-zigorrak jaso ahal izango dituzte, hamabi hilabetetik hogeita laura bitarteko isunak, eta enkante judizialetan lizitatzeko desgaikuntza berezia, bai eta, hala badagokio, administrazio publikoekin kontratatzeko desgaikuntza berezia ere, hiru urtetik bost arteko epean. Lehia faltsutzeagatik zehatutako lizitatzaileei a**dministrazio publikoekin kontratatzeko debekua** ezarri ahal izango zaie (SPKLren 71.-73. artikuluak).	aportar elementos de prueba que permitan la incoación de un expediente sancionador o la realización de actividades indagatorias sobre el mismo. (Artículos 65 y 66 LDC) Se podrá así mismo imponer una multa de hasta 60.000 euros a cada uno de sus representantes legales o a las personas que integran los órganos directivos que hayan intervenido en el acuerdo o decisión. El falseamiento de la competencia también está tipificado en el **artículo 262 del Código Penal**, donde se establece que quienes alteren los precios en concursos y subastas podrán ser sancionados con penas de prisión de uno a tres años, multa de doce a veinticuatro meses e inhabilitacion especial para licitar en subastas judiciales, así como la posible pena de inhabilitación especial para contratar con las Administraciones Públicas por un periodo de tres a cinco años Los licitadores sancionados por falseamiento de la competencia podrán ser declarados incursos en **prohibición de contratar** con las Administraciones Públicas (artículos 71 a 73 LCSP).
11.- Lehia murriztea dakarren jokabide baten kalteak pairatu dituztenek eskubidea izango dute erantzukizun zibileko kalte-ordainak eskatzeko arau-hausleek eragindako kalte-galerengatik. (LDLren 71.-81. artikuluak)	11.- Quienes resulten perjudicados por una conducta restrictiva de la competencia están legitimados para exigir una indemnización de responsabilidad civil por los daños y perjuicios causados por los infractores. (Artículos 71 a 81 LDC)
44.- Kontratuaren aldaketak	**44.- Modificaciones del contrato**
1.- Kontratua burutzen denean, kontratazio organoak bakar-bakarrik interes publikoagatiko aldaketak sartu ahal izango ditu bertan, horrela aurreikusten bada ezaugarrien taulako **21. atalean**, edo SPKLren 205. artikuluan ezarritako egoeretan eta mugekin.	1.- Una vez perfeccionado el contrato, el órgano de contratación sólo podrá introducir modificaciones en el mismo por razones de interés público, cuando así se prevea en el **apartado 21** del cuadro de características, o en los supuestos y con los límites establecidos en el artículo 205 de la LCSP.
2.- Kontratuaren xedean aldaketak sartzea beharrezkoa suertatzen denean, kontratuaren arduradunak beharrezko proposamena idatziko du, proposamena justifikatu, deskribatu eta baloratzen duten dokumentuekin batera. Administrazioak aldaketa onartu aurretik, enpresa kontratistari entzunaldia eman beharko dio.	2.- Cuando sea necesario introducir modificaciones en el contrato, la responsable del contrato redactará la oportuna propuesta, integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquella. La aprobación de la modificación por la Administración requerirá la previa audiencia de la empresa contratista.
3.- Ezaugarrien taulako **21. atalean** aurreikusitako aldaketak eta SPKLren 205. artikuluan jasotako kontratu aldaketarako balizko kasuetan egokitzen direnak, bakarka edo elkarrekin kontratuaren hasierako prezioaren % 20ko aldaketa gainditzen ez duen aldaketa eragiten dutenean –BEZa kanpo–, nahitaez bete beharrekoak izango dira, betiere, kontratistarentzat, eta kontratazio organoak erabaki beharko ditu aldaketa horiek, SPKLren 191. artikuluan eta HAKLEOren 102. artikuluan aurreikusitako prozedura aurrez tramitatuta. Halaber, dokumentu administratiboan formalizatu beharko dira, SPKLren 153. artikuluan adieraziarekin bat, hala dagokionean behin betiko bermea aurrez birdoituta.	3.- Las modificaciones previstas en **el apartado 21** del cuadro de características y aquellas otras que encajen en los supuestos de modificación del contrato recogidas en el artículo 205 de la LCSP cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido, serán en todo caso obligatorias para la contratista y deberán ser acordadas por el órgano de contratación, previa tramitación del procedimiento previsto en el artículo 191 de la LCSP y 102 RGLCAP y formalizarse en documento administrativo con arreglo a lo señalado en el artículo 153 de la LCSP, previo reajuste de la garantía definitiva en su caso.
4.- Ez kontratistak, ez kontratuaren arduradunak, ezingo dute behar bezala onartu gabeko aldaketarik sartu edo egin. Administrazioaren kontratazio organo eskudunak behar bezala baimendu gabeko kontratu aldaketek enpresa kontratistaren ardura eragingo dute. Kontratistak, hala dagokionean, aldaketak	4.- Ni la contratista ni la responsable del contrato podrán introducir o ejecutar modificaciones que no estén debidamente aprobadas. Las modificaciones del contrato que no estén debidamente autorizadas por el órgano de contratación competente la Administración originarán responsabilidad de la empresa

izan dituzten alderdiak berregin beharko ditu, inolako ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.	contratista, la cual estará obligada, en su caso, a rehacer la parte afectada por aquellas sin derecho a abono alguno.
5.- Kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak gaurkotu egin beharko du laneko programa.	5.- Cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, la contratista queda obligada a la actualización del programa de trabajo.
44.1.- Aldaketa aurreikusiak	**44.1.- Modificaciones previstas**
1.- Kontratu hau aldatu ahal izango da, horrela aurreikusi bada, baldintza agiri honetako ezaugarrien taulako **21. atalean** zehazten denaren arabera, betiere hartan finkatutako baldintza, irismen eta mugekin, eta aldaketek hasierako prezioaren % 20tik gora egin gabe.	1.- El presente contrato podrá modificarse si así se ha previsto, según lo detallado en el **apartado 21** del cuadro de características del presente pliego en las circunstancias, con las condiciones, alcance y los límites allí establecidos, que no podrán superar el veinte por ciento del precio inicial.
2.- Aldaketarako arrazoi bat baino gehiago aurreikusiz gero, jaso egin beharko dira horietako bakoitzeko xehetasunak, baldintzak, irismena eta mugak.	2.- En caso de prever varias causas de modificación las circunstancias, condiciones, alcance y límites deberán quedar referidos a cada una de ellas.
3.- Aurreikusten diren aldaketek ezingo dute, inolaz ere, kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk finkatzea eragin.	3.- En ningún caso las modificaciones previstas pueden suponer el establecimiento de nuevos precios unitarios no previstos en el contrato.
44.2.- Aldaketa aurreikusi gabeak	**44.2.- Modificaciones no previstas**
1.- Ezaugarrien taulako **21. atalean** aurreikusitakoez bestelako aldaketak sartu ahal izango dira, interes publikoko arrazoiak direnean, bakar-bakarrik behar beste justifikatzen denean SPKLren 205.2 artikuluan jasotzen diren kasu mugatuetako bat edo batzuk gertatzen direla, eta betiere aldaketa horiek mugatzen badira haiek eragin dituen arrazoi objektiboari erantzuteko ezinbesteko kontuetara.	1.- Sólo podrán introducirse modificaciones distintas de las previstas en el **apartado 21** del cuadro de características por razones de interés público, cuando se justifique suficientemente la concurrencia de alguno o varios de los supuestos tasados del artículo 205.2 de la LCSP y que se limiten a introducir las variaciones estrictamente indispensables para responder a la causa objetiva que las haga necesarias.
2.- SPKLren 205. artikuluan ezarriaz gain, balizko horietan kontratua aldatzeari ekin aurretik entzunaldia eman beharko zaio zehaztapen teknikoak idatzi dituen pertsonari, zehaztapen horiek prestatu dituena kontratazio organotik kanpoko hirugarren pertsona bat izan denean zerbitzu kontratu baten indarrez, hain zuzen 3 egun naturaletik beherako epean formula ditzan egoki deritzen kontsiderazioak.	2.- Sin perjuicio de lo establecido en el artículo 205 de la LCSP, antes de proceder a la modificación del contrato en estos supuestos, deberá darse audiencia a la persona redactora de las especificaciones técnicas, si estas han sido preparadas por una tercera persona ajena al órgano de contratación en virtud de un contrato de servicios, para que, en un plazo no inferior a 3 días naturales, formule las consideraciones que tenga por convenientes.
45.- Kontratistari egin beharreko ordainketak	**45.- Abonos al contratista**
1.- Zerbitzuaren ordainketa entrega egin eta adostasunez jaso ondoren egingo da, aurrez aurkeztuta, betiere, fakturak edo dokumentu baliokideak, ziurtagiriak entrega partzialak direnean, eta harrera akta, hala dagokionean. Horretarako, entrega datatik 30 egun naturaleko epea izango du kontratistak, faktura aurkezteko.	1.- El pago del servicio se efectuará una vez sea entregado y recibido de conformidad, previa presentación de facturas o documento equivalente, certificaciones si son entregas parciales y acta de recepción cuando proceda. A tal efecto, la contratista deberá presentar la factura en el plazo de 30 días naturales desde la fecha de la entrega.
2.- Kontratistak eskubidea izango du kontratuaren gauzapena prestatzeko lanen zenbatekoa kontura ordain dakion, baldin eta lan horiek kontratuaren xedean sartuta badaude. Konturako ordainketa horiek bermea jarrita ziurtatu beharko dira.	2.- La contratista tendrá derecho a percibir abonos a cuenta por el importe de las operaciones preparatorias de la ejecución del contrato y que estén comprendidas en el objeto del mismo, debiéndose asegurar los referidos pagos mediante la prestación de

	garantía.
3.- Fakturak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzekoak, xedatutako kasuetan, 632/2014 Foru Aginduan arututakoarekin ere bat etorriz.	3.- Las facturas deberán presentarse en formato electrónico en los supuestos establecidos por la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas del Sector Público, de acuerdo también a lo regulado en la a la Orden Foral 632/2014.
4.- SPKLren 198. artikuluan ezarriarekin bat, emandako zerbitzuak kontratuan xedatuarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartzen diren datatik hasita 30 egun naturaleko epearen barnean prezioa ordaindu beharko du Administrazioak; eta berandutzaz jardunez gero, 30 egun naturaleko epe hori betetzen denetik aurrerako berandutza interesak eta kobrantza kostuengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, artikulu honetan bertan aurreikusten den moduan.	4.- De acuerdo con lo establecido en el artículo 198 de la LCSP, la Administración tendrá obligación de abonar el precio dentro de los 30 días naturales siguientes a la fecha de aprobación de los documentos que acrediten la conformidad de los servicios prestados con lo dispuesto en el contrato, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de 30 días naturales, los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro previstos en este mismo artículo.
5.- Edonola ere, kontratistak ez badu aurkezten faktura dagokion administrazio-erregistroan hogeita hamar eguneko epean, interesen sorrera ez da hasiko harik eta hogeita hamar egun igarotzen diren arte faktura zuzen aurkezten duen egunetik, baldin eta Administrazioak ez badu fakturarekiko onarpenik eman, hala badagokio ere, eta ez badu dagokion ordainketarik egin.	5.- En todo caso, si la empresa contratista incumpliera el plazo de 30 días naturales para presentar la factura ante el registro administrativo, el devengo de intereses no se iniciará hasta transcurridos 30 días naturales desde la fecha de presentación de la factura en el registro correspondiente, sin que la Administración haya aprobado la conformidad, si procede, y efectuado el correspondiente abono.
6.- Bestetik, emandako zerbitzuak kontratuan xedatuari egokitzen zaizkiola egiaztatzen duten dokumentuak onartu beharko ditu Administrazioak, ondasunen entrega efektiboaren ondotiko 30 egun naturalen barnean.	6.- Por otra parte, la Administración deberá aprobar los documentos que acrediten la conformidad de los servicios entregados con lo dispuesto en el contrato, dentro de los 30 días naturales siguientes a la entrega efectiva de los bienes.
7.- Fakturetan ondoko datu hauek jaso beharko dira:	7.- Las facturas deberán contener los datos siguientes:
- Erakunde kontratatzailearen identifikazioa.	- Identificación de la entidad contratante.
- Kontratazio organoaren identifikazioa.	- Identificación del órgano de contratación.
- Kontabilitate publikoaren arloko eskumenak dituen organoaren identifikazioa.	- Identificación del órgano con competencias en materia de contabilidad pública.
- Prestazio kontratatuaren hartzailearen identifikazioa.	- Identificación del destinatario de la prestación contratada.
8.- Kontratuaren finantzaketan Udalaren departamentu bik edo gehiagok parte hartzen badute, edo beste entitate edo organismo batzuek ere finantzatzen badute, finantzaketan konpromisoa duen alderdi bakoitzak partaidetza horrekiko proportzioan ordainduko dio kontratistari gauzatutako kontratua, ezaugarrien taulako **6. atalean** jasotako moduan alegia, eta ezaugarrien taulako **10. atalean** adierazten den ordainketa hurrenkerari jarraikiz.	8.- Si en la financiación del contrato participan dos o más departamentos del Ayuntamiento, o está cofinanciado con otras entidades u organismos, a la contratista se le abonará, por cada una de las partes comprometidas en la financiación, el contrato ejecutado en la proporción en que participan en el mismo y que se refleja en el **apartado 6** del cuadro de características y en el orden de abono que se indica en el **apartado 10** del cuadro de características.
9.- SPKLren 200. artikuluan xedatuarekin bat, eta bertan ezartzen diren baldintzetan, kontratistek, legez ezarritako bideetako bat erabiliz, hirugarren pertsona bati laga ahal izango diote kontratuaren prezioa kobratzeko duten eskubidea. Lagapenak ondorioak izan ditzan eta Administrazioak lagapen hartzaileari ordaintzeko agindua eman dezan, Administrazioari	9.- Conforme a lo dispuesto en el artículo 200 de la LCSP, y en los términos establecidos en el mismo, las contratistas podrán ceder a una tercera persona, por cualquiera de los medios legalmente establecidos, su derecho a cobrar el precio del contrato. Para que dicha cesión surta efectos, y la Administración expida el mandamiento de pago a favor de la cesionaria, será requisito

modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen horretarako akordioa.	imprescindible la notificación fehaciente a la Administración del acuerdo de cesión.
46.- Kontratua etetea	**46.- Suspensión del contrato**
Kontratua etenez gero, SPKLren 208. eta 313. artikuluetan eta HAKLEOren 103. artikuluan xedatua aplikatuko da. Etetea aldi baterakoa, partziala, osoa edo behin betikoa denean, etete horren akta egingo da.	En el caso de producirse una suspensión del contrato se aplicará lo dispuesto en los artículos 208 y 313 de la LCSP y artículo 103 del RGLCAP. En los supuestos de suspensión temporal, parcial, total o definitiva se levantará acta de dicha suspensión.
47.- Harrera eta berme epea	**47.- Recepción y plazo de garantía**
47.1.- Harrera eta likidazioa	**47.1.- Recepción y liquidación**
1.- Zerbitzua kontratuan ezarritako epearen barruan eman beharko du enpresa kontratistak, preskripzio teknikoen agirian eta baldintza administratiboen agirian adierazitakoari jarraituz.	1.- La empresa contratista estará obligada a prestar el servicio dentro del plazo estipulado en el contrato y de conformidad con las prescripciones técnicas y cláusulas administrativas.
2.- Enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, xedea oso-osorik kontratuan ezarri bezala eta Administrazioaren adostasunarekin gauzatu duenean. Horretarako, kontratuaren arduradunak dokumentazioa edo prestazioa aztertuko du eta, preskripzio teknikoak eta klausula administratiboak bete direla uste badu, zerbitzuen harrera egitea proposatuko du.	2.- El contrato se entenderá cumplido por la empresa contratista cuando esta haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de la Administración, la totalidad de su objeto. A tal fin, el responsable del contrato realizará un examen de la documentación presentada o de la prestación realizada y, si estimase cumplidas las prescripciones técnicas y cláusulas administrativas, propondrá que se lleve a cabo la recepción.
3.- Kontratuaren xedea amaitzen denetik hasi eta hilabeteko epean, kontratuaren xedearen harrera egintza formala zertuko da.	3.- Dentro del mes siguiente a la finalización del objeto del contrato se procederá, mediante acto formal, a la recepción del objeto del contrato.
Era berean, harrera partzialak egin ahal izango dira bereizita erabili daitezkeen kontratuaren zatien gainean.	Así mismo, podrán efectuarse recepciones parciales sobre aquellas partes del contrato susceptibles de ser utilizadas de forma independiente.
4.- Segidako traktuko gauzapena duten kontratuen kasuan, kontratupeko prestazioa edo kontratuaren epea amaitzean egingo da harrera.	4.- En caso de contratos cuya ejecución sea de tracto sucesivo, la recepción se realizará a la terminación de la prestación contratada o al término del plazo contractual.
47.2.- Berme epea	**47.2.- Plazo de garantía**
1.- Berme epea ezaugarrien taulako **11. atalean** ezarria izango da edo, bestela, esleipendunak eskainia.	1.- El plazo de garantía será el establecido en el **apartado 11** del cuadro de características o, en su caso, el ofertado por la adjudicataria.
2.- Epe horretan egiaztatzen bada egindako lanetan ezkutuko akats edo okerren bat dagoela, Administrazioak eskubidea izango du kontratistari konpondu dezala erreklamatzeko.	2.- Si durante dicho plazo se acreditase la existencia de vicios o defectos ocultos en los trabajos efectuados, la Administración tendrá derecho a reclamar al contratista la subsanación de los mismos.
3.- Berme eperik aurreikusi ez denean, jarduera soileko kontratuak epea betetzeagatik iraungiko dira, baina horrek ez du eragotziko Administrazioak eskumena izatea kontratistari erantzukizuna eskatzeko, ondoren hautematen den balizko edozein ez-betetzeagatik.	3.- Los contratos de mera actividad, donde no se haya previsto plazo garantía, se extinguirán por cumplimiento del plazo, sin prejuicio de las prerrogativas de la Administración de depurar la responsabilidad del contratista por cualquier eventual incumplimiento detectado con posterioridad.
Kontratistak eskubidea izango du kontratupeko prestazioa	El contratista tendrá derecho a ser oído sobre las observaciones

betetzearen inguruan egiten diren oharren inguruan entzuna izateko.	que se le formulen en relación al cumplimiento de la prestación contratada.
4.- Berme epea Administrazioak eragozpenik aurkeztu gabe amaitzen bada, kontratista berak emandako prestazioari lotutako erantzukizunetik salbuetsita geldituko da, obra proiektuak prestatzeko kontratuetarako berezitasunak eragotzi gabe.	4.- Finalizado el plazo de garantía sin que la Administración haya formalizado reparos, el contratista quedará exento de responsabilidad por la prestación realizada, sin perjuicio de las especialidades para los contratos de elaboración de proyectos de obras.
47.3.- Bermea itzultzea	**47.3.- Devolución de la garantía**
Ezaugarrien taulako **11. atalean** adierazitako berme epea igarotzen bada Administrazioak inolako eragozpenik adierazi gabe, emandako zerbitzuaren gaineko erantzukizun orotatik libre geratuko da kontratista, eta behin betiko bermea itzuli edo deuseztatu egingo da horrenbestez.	Transcurrido el plazo de garantía indicado en el **apartado 11** del cuadro de características sin que la Administración haya formalizado ningún reparo, la contratista quedará relevada de toda responsabilidad por razón del servicio realizado, procediéndose a la devolución o cancelación de la garantía definitiva.
48.- Kontratua suntsiaraztea	**48.- Resolución del contrato**
1.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak izango dira.	1.- Serán causa de resolución del contrato las establecidas en los artículos 211 y 313 de la LCSP.
Kontratua suntsiarazte hori HAKLEOren 109. artikuluan eta hurrengoetan zehazten den prozedurarekin bat izapidetuko da, suntsiarazte prozedura abiatzen den egunetik hasita 6 hilabeteko epean, eta SPKLren 213. eta 313. artikuluetan aipatzen diren ondorioak izango ditu.	La resolución contractual se tramitará con arreglo al procedimiento detallado en el artículo 109 y siguientes del RGLCAP, en el plazo de seis meses contados desde la fecha de incoación del procedimiento de resolución, y producirá los efectos señalados en los artículos 213 y 313 de la LCSP.
2.- Gainera, kontratazio organoak kontratua suntsiarazi ahal izango du kontratupeko lanerako ezarritako epe osoan ez-betetzerik gertatuz gero, edo, arrazoi bidez, epe partzialetan gertatutako ez-betetzeak direla eta guztirako epea betetzea ezinezkoa izango dela iritziz gero, betiere kontratazio organoak ez badu erabakitzen SPKLko 193.3 artikuluan xedatutako zehapenak jartzea.	2.- Además, el contrato podrá ser resuelto por el órgano de contratación cuando se produzcan incumplimiento del plazo total o de los plazos parciales fijados para la ejecución del trabajo contratado que haga presumiblemente razonable la imposibilidad de cumplir el plazo total, siempre que el órgano de contratación no opte por la imposición de las penalidades señaladas en el artículo 193.3 de la LCSP.
3.- Halaber, hauek izan daitezke kontratua suntsiarazteko arrazoiak:	3.- También podrá ser resuelto el contrato por las siguientes causas:
a) Kontratua gauzatu bitartean, kontratuari atxikitako langileei kontratistak soldatak ez ordaintzea, edo langile horiei ezargarri zaien lan-hitzarmenean jasotakoak baino soldata baldintza baxuagoak ezartzeagatik kontratua gauzatzeko epean, edo langile horiei aplikatzekoak diren lan hitzarmenetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik kontratua gauzatzean (SPLKren 211. art.).	a) Por el impago, durante la ejecución del contrato, de los salarios por parte de la contratista a los trabajadores que estuvieran participando en la misma, o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las señaladas en el convenio colectivo aplicable para estos trabajadores también durante la ejecución del contrato, así como el incumplimiento de las condiciones establecidas en los Convenios de aplicación para estos trabajadores durante la ejecución del contrato (art. 211 LCSP)
b) Kontratuaren suntsiaraztea, oro har, enpresa kontratistako langileen ordezkaritzak eskaturik bakarrik erabakiko da; soldatak ez ordaintze horrek eragiten dien langileak SPKLren 130. artikuluarekin bat subrogazioa bidezkoa den langileak izan eta enpresa kontratistak zor dituen soldatek kontratuaren esleipen prezioaren % 5etik gorakoak direnean, aldiz, kontratazio organoak ofizioz erabaki	b) La resolución por esta causa se acordará, con carácter general, a instancia de la representación del personal en la empresa contratista; excepto cuando en el personal afectado por el impago de salarios procediera la subrogación de conformidad con el artículo 130 de la LCSP y el importe de los salarios adeudados por la empresa contratista supere el 5 por ciento del precio de adjudicación del contrato, en cuyo caso la

ahal izango du, zuzenean, kontratua suntsiaraztea.	resolución podrá ser acordada de oficio, directamente por el órgano de contratación.
c) Baldintza agiri honen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko oso ez-betetze larria gertatzea.	c) Por incumplimiento de carácter muy grave conforme al presente pliego de las obligaciones en materia de seguridad y salud en el trabajo.
d) Kontratua gauzatzea ezinezkoa izatea, hasiera batean kontratuan zehaztutako langile kopuruarekin.	d) Por imposibilidad de ejecutar el contrato con el número de efectivos de personal inicialmente asignado al contrato.
e) SPKLren 294. artikuluaren c), d) eta f) letretan jasotako arrazoiak, herritarren aldeko zuzeneko prestazioak dakartzaten kontratuetarako.	e) Por las señaladas en las letras c), d), y f) del artículo 294 de la LCSP, para los contratos que conlleven prestaciones directas a favor de la ciudadanía.
4.- Era berean, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, SPKLren 211. artikuluaren babesean, ez betetzea **38.2 klausulan** adierazitako obligazioak eta ezaugarrien taulan espresuki kontratuko funtsezko betekizuntzat jasotako obligazioak.	4.- Asimismo, serán causas de resolución al amparo del artículo 211 de la LCSP, el incumplimiento de las obligaciones indicadas en la **cláusula 38.2** y de las señaladas específicamente como tales en el cuadro de características como obligaciones esenciales del contrato.
5.- Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkartekideetakoren bat SPKLren 211.1 artikuluko a) eta b) letretan jasotako kasuan sartzen denean, Administrazioak ahalmena izango du aldi baterako elkartea osatzen duten beste enpresei kontratuko obligazioak betetzea eskatzeko edo kontratua suntsiaraztea erabakitzeko.	5.- En el supuesto de Uniones Temporales de Empresas, cuando alguna de las integrantes se encuentre comprendida en el supuesto del artículo 211.1 a) y b) de la LCSP, la Administración estará facultada para exigir el cumplimiento de las obligaciones contractuales al resto de las empresas que constituyan la unión temporal o acordar la resolución del contrato.
